


ANTONIO ZAVALA, S. I.

PAULO YANZI

TA BERE LAGUNEN BERTSOAK



AUSPOA LIBURUTEGIA

PAULO YANZI
ta bere lagunen bertsoak

AUSPOA LIBURUTEGIA

77-78

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Ewdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

Ordaindu bearrak:

**Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

PAULO YANZI
TA BERE LAGUNEN BERTSOAK

AUSPOA LIBURUTEGIA
1968

D. L. S. S. 446/68

San Sebastián - Agosto 1968
IZARRA - Peña y Goñi, 13

ARKIBIDEA

ITZAURREA	9
PAULO YANZI'REN BIZITZA	
Bere seme Pepitok kontatua	11
PAULO YANZI'REN BERTSOAK	
Apezari	41
Eujenio ta bere astuan berriyak	45
Yorre mutilzarraren bertsoak	52
Bertso berriak Paulo Yanzi'k jarriyak: "Eme- tzi eun urte pasa onduan..."	55
Iñauteriyetako deia Euskalerriyari	62
Bertso berriak San Fermiñeri Pablo Yanzi'k jarriyak	69
Bertso Berriyak (Afrika'ko gerrarenak)	74
Rafael <i>Kuttuna</i> 'ri	86
Gizongaiak andregaiari	90
"Lengo batez amestana..."	98
Xenpelar ta amabost urteko mutikua Goi- zueta'ko bestetan	106
Kaiko ta Altamira	116
Josetxori	121
Pablo Yanzi'k bere illobari Nevada'ra bere kartan erantzuera itz neurtuetan	125
Pablo Yanzi'k Ameriketara bere illobari ...	128
Jose Yanzi'k bere osabari Amerika'tik eran- tzuna	133
Josetxok bere osabari	138
Pablok bere illoba Josetxori	141
Ikaragarrizko gertatua Paulo Yanzi'k bana- tua urriki ta irriraz moldatua	146
Neska gazte batzuei	156
<i>Beti-Gazte</i> 'ri	166
Garziarena ta Korta	172
Pelota-plaza berria	178

Bidasoa'ko kopa	183
Gaztetik zartzarako diferentziyak	188
Fabrika berria	196
Bertso berriyak Pablo Yanzi'k jarriyak (Lata- sa ta Luxia)	205
Neska batzuen berriyak	215
Bertso berriyak Paulo Yanzi'k jarriyak Na- parro'ko bertsolarien txapelketa-eguneko	222
Salbador artzaiari Amerika'ra	227
Erratzu'ko pelota-plazan	232
FEPITO YANZI'REN BERTSOAK	
Barrio Zialdo'ri bertsoak	243
Nere aitari	245
JOSETXO YANZI'REN BERTSOAK	
Artzaien bizi-modua	251
Negu gogorra	255
Kaskabel sugeari	257
Bi lengusuak	259
Erriko bestak burutan	261
SALBADOR ETXARTE'REN BERTSOAK	
Salbadorren despedira	265
Salbador Etxarte'k Paulo Yanzi'ri	269
Paulori, bigarren aldiz	271
DAVID ARANBURU'REN BERTSOAK	
California'ko lagunari	279
Pablo Yanzi'ri	281
Amerikanoak eta euskaldunak	283
Anaiari	287
Amari	289
Lagun bati	290
Lagun bati kontestan	292
Txakain	294
Artzaien bizi-modua	296
Bigarren joan-aldian	297
LEON BERAU'REN BERTSOAK	
Nevada'ko berriak	301
Nevada'ko artzaien bizi-modua	304

ITZAURREA

Liburu ontan Paulo Yanzi'ren bertsoak datoz, baita Lesaka'ko beste zenbait bertso-larirenak ere.

Paulo Yanzi'ren bizitza, beraren seme Pepitok kontatua, urrengo orri-aldeetan arkituko du irakurleak. Ez daukagu, beraz, emen zer besterik esan.

Paulo etzan aotik aora aritzen, ezta plazaz-plaza ibiltzen ere; bañan jarri bai, bertsoak erruz jarri zituan.

Ala, liburu onen erdia baño geiago, irutatik bi gutxi gora-bera, beraren bertsoz osatu da. Beste bertso geiago ere jarri zuan, bañan asko ta asko gure eskuetaraño iritxi gabe gelditu dira, non-bait ere galdata.

Paulok, bera bertsolari ugaria izateaz gañera, beste zerbait ere egin zuan: bertsolari-mordoxka polita sortu-azi zuan bere inguruko gazteetan: bere seme Pepito, bere illoba Josetxo, bere illoba txi-

ki Salvador Etxarte, ta bere erritar David Aranburu ta Leon Bereau.

Auek guziak bertsoarako griña piztua zuten beren barrenetan. Kantu-lanean poliki jarduten ziran. Bañan bizi-bearrak Ameriketara bota zituan, ta an, Nevada'ko mendietan, beren doaia ezin landurik arkitu ziran, ta etzuten bertsoan egin, noizean bein beren sentimentuak paperean adierazteko ezpada.

Ta ola jarritako bertsoak ere, ez ditugu danak bildu; erdiak baño geiago galduak dira.

Nik ez dakit zorioneko Amerikak Euskalerraren onerako ala kalterako izan diran. Bañan Lesaka'ko bertsolari gazte auek bereganatzeaz mesederik egin etzizutela, dudarik ezta. Euskalerrian bertsolari prestu izango ziranak, Euskalerriko plazak eta paperak millaka bertsoz bete zitzazketeanak, Amerika'ko mendietan, girorik gabez, frutu gutxiko arbolak izandu dira, gu penetan uzteko lain beste fruturik eman ez dutenan alegia.

Ta ez degu aztu bear Arozamena bi anaiak ere Lesaka'koak dirala; bañan auek, ur emateari utzi ez dioten iturriak ditugu. Orregatik, oiekikoa beste baterako utziko degu.

PAULO YANZI'REN BIZITZA
bere seme Pepitok kontatua

Nere aitaren istorioak erraten asi ba-
ño leno, nere aitonarenak erranen ditut,
au ere bertsolaria baitzen.

Gizon famatua zen; yotzen zun txistua
eta laruntetan, lagunen artian, kantatzen
zitun bertsuak.

Egun batez, San Pedrotan, suertu zen
Doneztebe'ra bertso tara yoatia, Leitze'-
ko bertsolari batekin. Tokatu zaion au-
rrera kantatzea, ta onela kantatu zun:

Leitze'tikan onera
azaldu al zera?
ni berriz Igantzi'tik
zu ezagutzera;
publikuan gu guaz
kantu oien jartzera,
ta emengo jendian
alabatutzera.

Ta lagunak onela kontesta eman zion:

Jaungoikuakin San Pedro
ibilli zan munduan,
fedian predikatzen
orlako moduan...

Nik ez nakizkin bertsu oriek; orain
aste batzuk nere izeba Romualdak, nere
aitaren arrebak, erran dizkit.

Gure aita jaio zen Igantzi'ko errian,
1882 urteko Otsaillaren labian. Bigarren
deitura, Petrikorena zun.

Amaika urterekin asi zan lanean, bere
aitarekin, Ponpollegi'ko minetan. Mina
ok dira Eskolmendi deitzen zaion Lesa-
ka'ko terrenuan, Irun'go mugan. Igan-
tzi'tik lana egin bear zuten tokira, bazen
lau orduko bidea. Ta egunero yoan da
etorri egiten zuten.

Yatekoa izaten zen zardin zarra, opilla,
gazta pixka bat, ta pitarra; eta larunte-
tan bakarrik ardua. Bañan nere aitak
bere denbora guzian etzun edan izan, ez-
ta ere fumatu. Bere azken aldera, il ba-
ño urte bat lenotik, asi zen edaten ardo
pixka bat otordu bakoitzetan.

Bere irauzia, egunekoa, izaten zen ogei
ta bortz sos. Galdetu nion nik egun ba-
tian:

—Zer egiten zenun zuk ogei ta bortz sosekin egunian?

Ta erran zidan:

—Nik dena aitari ematen nion.

Ta nik berriztik:

—Gauza gutti egiñen zenun diru orrekin!

Ta berak:

—Denbora etan aragirik obenak kiluak amasei sos balio zun; orregatik, orain ogei duro irabazten dun gizonak eztik nik adiña irauzten. Nik nere yornalarekin eramaten al nun kilo bat arage, kilo bat azukre, ta oraindik gauza geio; oraingo yornalakin eztuk orrenbertze gauza egiten al.

Bein batian, Ponpollegi'n lanian ari zela, nere aitak zun palanka, ta bertze lagun bat ari zen malluakin arrian zulo egiten, dinamita jartzeko. Alako batian ateri zen arri-kozkor bat, eta yo zun belaunian nere aita. Asi zen belaunari elduta *ai, ai, ai* egiñaz miña artu zulakoz, eta bere lagunak, ikusi zunian nere aita orrela, bera pixka bat konten utzitziagatik, erran zion:

—Paulo, labetakua!

Labetakua zen berendua erraten du-

guna. Ordun nere aitak, bere min guziazekin, aditu zunian labetakua, erran zion lagunari:

—Labetakua? Oñazia bai bolara batekua!

Ori zen nere aitaren umoria. Naiz beara oñazez egon, beti prest berttua botatzeko.

Jai batian suertu zen nere aitona Jose Igantxi ostatu batian bere lagunekin bertso kantari. Ta ara alletu zen nere aita bere lagunekin. Nere aitak, len erran dudan bezala, etzun beñere edaririk edaten, ez zigarrorik erretzen ere; bañan aditu zun bertsoan ari zela bere aita, eta an sartu zen. Aitak, berttua bukatu zunian, erran zun:

—Ola bakarrik ari gabe, obe du batek ixilik egon!

Ordun semeak erran zion:

—Nik kantatuko dut zurekin!

Ta aitak:

—Ik zer dakik kantari?

Ta semeak:

—Nik? Pixka bat bai!

Ta orduan lau puntuko berttua bota zion, eta aitak, ikusi zunian semia mol-datzen zela bertsoan, segitu zun kantari

berakin, eta gero elkarrekin yoan ziren etxera.

Alletu zirenian, amar t'erdiak ziren, eta nere amonak onela erran zion bere gizonari:

—Nun egondu zerate tenori ok arte?

Ta bere gizonak erran zion:

—Ikusi dut gaur gure semia bertsolaria dela, eta berakin aritu naiz bertso-tan! Badakit orain segida badugula!

Ta bere andreak erran zion:

—Zoazte, zoazte guatzera, biyar goizian lanera yoan bear duzute ta!

Orduzkerotik, aunitz aldiz, aita-semiak etortzen ziren etxera, bidian alkarri puntu paratuz bertsutan.

Aunitzetan, Lesaka'ra alletzen zirenian, Madalenia izena zun ostatu batian gelditzen ziren; aita artzen zun baso bat ardo, eta pazientxik; eta semiak pazientxik bakarrak. Eta an egoten ziren solasian eben lagunakin, etxera yoan arte.

Ordun bizi ziren Lasati'ko errekan, Aiezteneko-borda'n. Gero bizitu ziren Igantzi'ko errian, orain Tabernia izena dun etxe batian. Nik an ezagutu nun nere aitaren famile guzia. Orduko illa zen

nere aitautxi bearra zen Jose Igantxi, ta aren ordez Fermin Igantxi, nere aitaren anaia, izandu zen nere aitautxi. Fermin ere bertsolaria zen.

Egun batian au gertatu zen: Jose Igantxik zitun bi alaba Irunan serbitzen; eta San Migeletan, erriko bestetan, alletu zirenean etxera, erran zioten eben aitari:

—Aita: zuk beti, txistuarekin, pieza bat bakarra yotzen duzu, ta pixka bat modernatu bear duzu; guk irautsiko dizugu San Marzial izena dun pasakalle polita!

Au erran zion alabak, izena zun Kornelia. Ta alaba kantatzen ta aita aditzen, egondu ziren aunitz denbora San Marzial ikasten, biarrrian gelditzeko. Azkenian artu zun burutan. Egondu zen aibertze denbora yotzen, ta alletu zen eguna estrenu egiteko.

Ateritzen zen goizian, San Migel egunian, prozesionea eliz inguruan, ta nere aitonak yotzen zun txistua erriko ayuntamientoaren antziñian. Orduko erran zioten bere lagunakiri pieza berria yo biar zula, eta an zagon bera, nerbiosua, esperuan noiz ateriko zen prozesionea, txistua yotzen asitzeko.

Ala zagolik, yoan zaio ondora mutiko

kozkor bat, eta ain suerte txarrakin erran dio:

—Aizu, Jose: orain yo bear duzu mar-txa ori: *tiripititi...?*

Ta leno beti yotzen zun soñua bera asi zion. Ta mutiko orri lengo soñua aditu zionian, berria antzi zun. Ta momentu artan ateri zen prozesionea, ta nola etzen oroitzen doñu berriaz, asi bear izan zun lengo martxa zarra, ta orrekin egin zun prozesionea.

Etxera yoan zenean, erran zion alabak:

—Bañan, aita, zer egin duzu nik irau-tsitako pasakalle polita orrekin?

Ta erran zion aitak alabari:

—Ezpaingo bat emanen nion pozik mutiko orreri! Etzait ba asi lengo pieza zarrarekin prozesioneak ateri bear zun momentun? Orrek antzi egin dit pieza berria!

Denbora etan etzen lan aunitzik errietan, eta pobre bizi ziren yendiak. Denbora etako lana izaten zen batzuek landatan, bertziak egur garraio, eta aunitz ere bai kontrabanduan.

Nere aitari sartu zaion buruan Ameriketara yoan biar zula lanera. Bañan arat yoateko biar zen dirua, eta nere aitak

etzun. Ordun bere lagun batek eman zion
biajia pagatzeko.

Ordun, Igantzi'tik Ameriketara yoate-
ko *cédula personal* bakarra biar zen.
Etzen bertze paper biarrik. Ori Ayunta-
mentuak ematen zun. Ta paper ori ba-
karrakin yoan zen lenbiziko Havre'ra
trenian, eta gero Havre'tik Buenos Ai-
res'etara ontzi batian.

Ameriketako bere lenbiziko lana izan-
du zen *estancia* erraten zioten arrantxu
batian zaldia domatzen, eta illaute t'er-
diren buruko yarri zen an zen obena; ez
domatzen bakarrik, bañan bai eta ere
zaldi gañian ibiltzen.

Oso maite zuten ango nagusiak, oso
langillea zelakoz. An egondu zen urte ba-
tzuk.

Bazun afizione aundia boxeora, ta ika-
si zun boxeuan agitz ongi. Etzen beñere
aritu publikuan boxeuan, bañan ikusi zu-
ten lagunak errana dut, orretara yokatu
izan bazen, agitz ona izanzen zela.

Beti izan zun nere aitak gerri miarra,
bizkarra zabala, esku-mutur lodia, ta in-
dar aundia. Ta oso mutil ederra zelakoz,
ango yendiak erraten zion: *el vasquito
lindo*.

Orain erranen dut nere aitaren istorio

bat, aren indarra zer zen kontuak ateritzeko. Nik amazapi urte nitunian, nintzen mutilla fuertia, indartsua. Etxian izaten ziren irutan ogei kiloko azukrezakuak, eta goizero, prueban aritzeko, altxatzen nitun bizkarrera amar edo amabi aldiz zaku lasaiean, eta gorputza ikutu gabe. Ta aunitzetan yoaten nintzen panaderira, eta ango iriñ-zaku bakotxak pisatzen zun eun kilo, eta aunitz aldiz egin dut, indarra probatziagatik, lurretik artu eun kiloko zakua eta bizkarrera eramane. Ordun uste nun zerbait ere banitzela, banan orra zer gerta zidan niri eta nere lagun bateri nere aitarekin:

Nere aitak zun tienda, eta an saltzen zen denetik. Ta tienda ezik ostatua ere bazen. Onduan zen Lantxen aroztegia, eta atiaren onduan aunitzetan izaten ziren lengo karro zarren rueda aundi batzuk, burnizko ejiakin. Ikusi nun nere aita yoan zela alondegira barrika bat eske, eta nik, gaixtakeritan, nere lagun batekin pentsatu nun bi rueda ek eben ejiakin paratu bear nitula atian, aitak, barrikarekin eldu zenian, estorbu ura an billatzeko.

Ordun sartu giñan nere laguna eta ni eje azpian, bakotxa bere aldetik, rueda ek ateraño eramateko, bizkarrarekin in-

dar eginda. Naiz ainbertze indarra egin ura altxatzeko bion artian, ez gendun posible izandu lurretik mugitu ere. Ta ordun erran zidan nere lagunak:

—Zergatik indar ok egin alferrik? Ez-tigu sekulan mugituko! Gogoratu ziak gauz bat: eraman bear digu firrilka.

Ta ala egin gendun: biek bultzaka yarrri gendun atiaren antziñian. Ta gorde giñen ikusteko zer egiten zun gure aitak.

Momentuan alletu zen bere barrikarekin, eta ikusi zituenian bi ruedak ate-antziñian, begitu zun alde guzitara, ia zeñ ikusten zun edo zeñek egiña al zun gaixtakeri ura. Nola giñen gu gorderik, etzun iñor ere ikusi.

Orduan yoan zen ruedan ondora, sartu zen azpian, artu zitun bizkarrarekin, altxatu zitun bi ruedak eta eraman zitun bortz edo sei pauso, eta gero bota egin zitun lurrera. Ta ori eginda, sartu zun bere barrika. Guk ikusi gendunian ori, arrituta solasik gabe gelditu giñen. Ezin gendun siñetsi, guk bien artian altxatu ezin gendun karga, gure aitak bakarrik nola egin zun.

Argentina'n egondu zan denbora batzuk, eta etorri zen berriz Igantzi'ra. Egondu zen emen denbora batzuk, eta berriz

yoan zen Ameriketara, bañan oraingo al-
dian Californi'ra eta Nevada'ra.

Emen egondu zan beti ardi zai men-
dian, batzuetan nagusi batekin eta ber-
tzeetan bertzeakin. Mendian egoten ziren
bi lagun eta bi zakur, eta bi milla ardi
gizon bakotxak.

An zagon bere anaia Natalio ere, ba-
ñan bertze toki batian.

Egondu zen denbora bat Stockton dei-
tzen zaion erri batian, ta an izandu zen
txapeldun pelotan, bai bakarrik eta bai
lagunarekin ere. Ta umore ona nola iza-
ten zun kantatzeko, beti ongi ikusia izan-
du zen.

Ta an zagolik, izandu zitun estomako-
miñak. Etorri zen berriz Igantzi'ra, ta or
ibilli zen medikuakin batera ta bertzera,
bañan etzuten ongi utzi.

Ordun erran zion gizon batek, eztakit
zein baserritan bazela andre sendagille
bat, belarrakin eta gauz oriekin senda-
tzen zuna. Yoan zen andria orrengana
egun batian, eta eman zion zerbait medi-
kamentu belarrakin egiña. Eta erran
zion oso fuertia izanen zela ori, bañan
ez izitzeko, orrekin il edo antziña ateri-
ko zela.

Andria arek erran bezala, nere aitak ar-

tu zitun belarrak, eta zer ote zun, ta illarra bere zañakin estomaka barrenian ia-ia. Ura, andria arek emandako botikakin bota zun, eta ala sendatu zen.

Bere pensamentua zen berriz segidun Ameriketara yoatia, bañan merkatu-egun batian etorri zen Lesaka'ra, bere lagun batekin berendua egin bear zula, eta an ezagutu zun neskatxa bat maia serbitzen. Berendua akautu zutenian, yoan zen eta neskatxa orren amari erran zion:

—Nik neska au nai nuke nere andre-tako!

Ta andre arek kontesta:

—Etorri nai duzunian ta solas egiñen dugu.

Andre arek eta bere alabak uste zuten gauza brometan zela, bañan andikan egun batzuk buru nere aita etorri zen solas egitera dama oriekin. An egondu ziren arratsaldian solasetan.

Yoan zen gero nere aita bere errira, eta egondu zen aunitz egun etorri gabe. Ordun neskatxa arek eskribitu zion paper batian ia zergatik etzen etortzen, etortzeko Lesaka'ra solasian egitera. Etorri zen etxera, ta erran zion neskatxa aren amari:

—Ez naiz etorri ainbertze egunez, gizon batek erran ditalakoz zure alaba de-

la señorita Frantzia'n kolejiuan kostunbratua, eta lanian egiteko balio eztuna. Ta nik biar dut andria lanian dakiena, bazkariak eta gauzak ongi egiten dakiena.

Ordun erran zion andre arek:

—Eldu den igandian atoz goizian gure etxera, eta egonen gera gu biok solasian, eta bitartian nere alabak egiñen du bazkaria eta afaria, zuk ikusteko nola dakien lanian.

Igandian dama arek egin zun bazkaria, ta elkarrekin bazkaldu zuten andre arek gonbituta, eta nere aitak ikusi zun bazkaria nolakua zen. Ordun, bazkaldu onduan, erran zion andre ari:

—Niri zure alaba gustatzen zait, eta berekin espostu biar dut!

Ta andre arek erran zion:

—Nere alabarekin esposteko, ekarri biar duzu bortz milla duroren dotia.

—Nik ekarriko dut dote ori!

—Ta zerekin bizi biar duzute?

—Beinrik ez naiz minetara berriz yoenen! Saiatuko naiz bertze zerbaitera!

Ekarri zun dotia, yarri zun Bankuan, ta espostu ziren. Andregaiak, Esperantza Alvarez Sein zun izena. Ama-alaba aiek zuten tienda artan yarri zen nere aita ere,

idea berriakin tienda obetuz; eta gañera, terrenu batzuk ere erosi zitun.

Ikasi zun kordiona yotzen, agitz ongi gañera, eta yotzen zun egunero yendia ekartziagatik, eta bertsuak ere kantatzen zitun. Yende aunitz etortzen zen, eta andik aurrera yendiak ezagutu zun etxe ori Pauloren etxia erranda.

Ezkontza onen frutuak izandu gera, lendarabiziko, mutilla, ni, ta gero neska, nere arreba Martina.

Ta beti agitz ongi bizitu gera. Gure etxian izaten zen beti umore ona. Aitak yotzen zun kordiona, eta kantatzen zitun bertsuak; nere amak oso ongi kantatzen zun, naiz euskeraz, naiz erdaraz ta naiz prantzesez, ta oraindik ere ala kantatzen du; nik yotzen nitun pianua eta klarinetia; ta nere arrebak pianua. Musika faltik etzen gure etxian izaten.

Bañan orain erranen dut nola utzi zun kordiona yotzia nere aitak. Nik nitun amalau urte, bukatu nun komerzio Bera'ko eskolapioetan eta bakazioetan nintzen.

Nere aitak etzun nai ni beti deus ere egin gabe egotia; beti erraten zidan:

—Nik beretzi urtetako an **ibiltzen** nauken aitakin mendian eta lanian, beraren laguntziagatik, ta sosa irauzten etxian la-

guntzeko. Ta i berriz, deus ere egin gabe egunero pasitzen!

Nik erraiten nion:

—Ta zer kulpa dut nik olako suerte izatia? Seme bakarra naiz, ta zu amerikano abetsa!

Ta ordun bera asertzen zen; etzun aditu nai nik errantako gauzik.

Egun batian gogotu zion nik biar nula sujeziona pixka bat, eta biali zidan mendira, Zokondi'ko mendira; an zitun bortz edo sei gizon, berak markatuko arbolari adarrak mozten eta ustela zagon arbola botatzen. Nik yoan biar nun ikustera zer egiten zuten gizon oriek, eta pixka bat laguntzera. Arat alletu nintzenian, ango gizonek erran zidaten:

—Bueno, nabaduk abudo etxera yoan, emen guri lagundu biar diguk!

Ordun nik kendu nun atorra, bizkarra beltza jartzeko beraniantiak bezala. Bañan nik ez nakin an bazirela uliak eta ez-patak edo mandauliak. Asi dira niri ausikika, eta or ikusi nintzen bizkarra, lepua ta ezpañak denak aundituk. Gizon ek ematen zidazten enbor aundiak karrua kargatzeko. Ta ala egondu nintzen ordu bat ekiri laguntzen. Ez nuan posible ya geigo

lanik egin. Nere indar denak aulduta, aspertu nintzen ta erran nien:

—*¡Que trabaje Rita!*

Ta an mendian utzi gizonak, ta yoan nintzen etxera eskapo. Aitak ikusi zidanian etxera alletu nintzela alako figurakin, eguzkiakin beltzatua eta uliak ausiki egiña, ango yende guziari begituta erran zion:

—Orra! Ikusten duzute nola den *la nueva ola*? Ok uste dute zerbait badirela, ta pito bat eztute balio!

Ori dena erran zun irriz. Ta nik erran nion:

—Begizu, aita: ez naiz geigo sekulan mendira yoanen! Izanen naiz nere bizian *limpiabotas*, edo eztakit zer, bañan olanian ari baño naigo dut il!

Ta ordun ala gelditu ziren gure solasak.

Gaba guzia pasatu nun ezin lo egiñik berotasunakin, eta pentsatzen zer egin biar nun andik antziñera. Banekin banula *beca* apez estuitzeko, nere antziñeko yendiak etxe bat apezentzat utzi zutelakoz. Ori nekin nere amautxi Baldunberak erranda, eta beti apez egiteko erraten zidalakoz. Bañan niri etzian gustatzen apezaz izatia.

Ordun pentsatu nun: Lesaka'n badira bi edo iru kordionista, ta oriek agitz ongi bizi dira, beti bodatan, bataiotan eta bestetan. Ta pentsatu nun kordiona ikasi biar nula.

Goiza alletu zenian, gosaldu eta aitari deus erran gabe, beraren kordiona artu ta asi nintzen prueba egiten. Ez nun posible izandu deus ere yotzia, nere aitaren kordiona zelakoz *diatónico* erraten diotena, oraingo trikitixa bezalakoa.

Bañan Lesaka'n bazen gizon bat, Ramon Sanjurjo, zapaterua, kordiona yotzen zuna. Arek zun pianoko kordiona. Yoan naiz bere tallerrara ta erran diot:

—Ramontxo, utziko didazu kordiona prueba bat egiteko?

Ta erran zidan:

—Andria ta kordiona ezta iñori utzi biar!

Ta nik erran nion ordun:

—Ni yoanen naiz etxera eta ekarrikodut zerbait ere!

Yoan nintzen etxera, sartu naiz aitaren kuartuan, ta asi naiz bere trajerik obedian billatzen bolsetan, ia zerbait ere arrautzen nun. Ta txaleko batian billatu nun duro bat zillarrezkua. Ura artu ta

yoan naiz berriz Ramontxongana, ta erran diot:

—Ramontxo, tori duro bat eta utzi ziazu kordiona yotzen.

Ordun Ramontxok ekarri zun bere kordiona. Nik artu nun besotan ta ez nakin nola paratu; arek berak irautsi zidan nola paratu.

Nola nik banakin pianua yotzen pixka bat, asi nintzen eskuñeko eskukin pianuaren eskalak egiten, eta Ramontxok, ikusi zunian nola egiten nitun eskala ek, erran zidan:

—Ik irautsi biar dirak biatzan kanbio ori!

Ta nik erran nion:

—Nik irautsiko dizut biatzan kanbioa, bañan zuk irautsi biar dirazu ezkerakin zer egiten den.

Bañan arek ezin zian esplikatu, berak kordiona bere burutik ikasi zulako, ta ordun yo zun pieza bat. Nik begitu nion bere ezkerreko eskukin zer egiten zun, eta segidun quartu nintzen zer egin biar nun fandango bat ikasteko. Artu nun berriz kordiona, ta asi nintzen amar minutuz arek egiten zun bezala egiten ezkerako eskukin, eta erran nion:

—Ramontxo, ikusiko duzu orain nola yo biar duten *Andre Madalen*.

Ta nere denbora guzian bertzerik egin ez banu bezala, asi naiz yotzen *Andre Madalen*. Ramontxo gelditu zen arrituta, baita ni ere. Ordun gogotu zidan ensaiatu biar nula nere aitak yotzen zun pieza bat, asi bai bañan beñi ere ezin akautu zuna, baita ere bandan yotzen genitunak. Ta gero erran nion Ramontxori:

—Guazen gure etxera! Yo biar ditut piez ok aitaren antziñian!

Alletu nintzenian gure etxera, an ziren bortz edo sei gizon musian eta solasian, eta erran nion nik aitari:

—Aita, eztuzu erraten pito bat eztutela balio, eta deus ere ez naizela izanen? Orain aditu biar duzu, nik yota, zuk asi ta ezin akautu duzun musika ori!

Ta yo nion pieza ura, eta gelditu zen arrituta, solasik egin gabe. Gañera yo nitun bertze bortz edo sei piez.

Aitak, ori ikusi zunian, pentsatu zun bere kordiona saltzia, eta bertze bat obia-gua erostia, nik ikasteko.

Yakindu zun Abaskene etxean bazela kordion bat kromatikua, eta egin zun kanbioa: nere aitak bere kordiona utzi, ogei ta amar duro eman, eta ango kor-

diona ekarri zun etxera. Ordun, bere kordiona emanda, utzi zun nere aitak betiko kordiona yotzia.

Ni asi nintzen ikasten, eta aste baten burun prest nintzen edozein bodatara yoateko.

Alako egun batian, etorri zen gure etxera Modesto Irisarri, Etxalar'tarra, España'n zen kordionistarik obena. Ikusi zian nola ari nintzen kordiona yotzen, eta erran zion nere aitari:

—Zure semiak biar du pianozko kordiona, eta ikasiko du agitz ongi.

Ordun, urrengo egunian, yoan giñen nere aita, Modesto Irisarri ta ni Donosti'ko Marzelino Larrinaga'ren fabrikara kordiona eroatera. Erosi gendun kordiona, ta pagatu zun milla ta lau eun peze-ta, ta yoan giñen Kojoene'ra berentzera. Nere aita ta Modesto asi ziren berentzen, bañan ni asi nintzen ikasten Donosti'n erosi nitun piezak, berenduari kaso egin gabe.

Nere aita il zenian, beraren paperari begira nagola, ikusi nun kordionaren faktura, 1931'ko Abenduaren 28'an egiña, eta, bertze paperen artian, ikusi nun eskritura bat, urrengo egunian egiña, etxe bat erosteko, bi bizitzekoa ta baratze ba-

tekin, sei eun pezetatan. Ura ikusi nunian, irriz egondu nintzan, nere kordionak baliño zulakoz etxiak baño geigo.

Orduzkerotik beti elkarrekin bizitu giñen, 1946 urte arte. Urte ortan Ameriketara yoan nintzen nere Xey'ko lagunakin, ta an egondu nintzen amar urte etxera etorri gabe.

Andik onat etortzia izandu zen, etxetik eskribitu zidatelakoz aita gaizki zagola. Ordun nik Mejico'tik deitu nun telefonoz, eta galdetu nun ia ain eri zagon, ta erran zidaten baietz, itza galdua zula, bañan aditzen zula. Nik erran nion ordun telefonotik aitari errateko illaute bat baño len etorriko nintzela.

Asi nintzen paperak egiten onat etortzeko, ta deitu nun berriz telefonotik, eta erran zidaten aita ia sendatua zela; yakin zunian ni eldu nintzela, pozakin sendatua zela.

Etorri nintzen, eta berarekin segitu nun bizitzen denbora puska batian. Gero, ni Donosti'n yarri nintzen bizitzen, eta aitak Lesaka'n segitu zun.

Ni yoaten nintzen laruntero aita ta amarekin egotera, ta egun batez, yoan nintzenian, erran zidan:

—Tiendan traspasu egin diot nere illo-

bari, ta emendik antziñera yoan biar dut bizitzera zurekin Donosti'ra. Azkeneko egunak elkarrekin bizi biar tugu, ta konponduko gera!

Nik erran nion:

—Etortzen al zera nai duzunian, ta ez-tugu konpondu biarrik! Nerekin bizitzen zeraten bitartez, denetik izanen dugu.

Ta erran zidan:

—Gaur bertan yoanen gera!

Ta ala etorri giñen nere automobillan nere aita, ama, andria ta ni Donosti'ra. Emen egondu zen gurekin nere aita, bañan ez aunitz denboraz.

Etortzen zen beti neregana aditzera nola ari ziren ikasten kordiona mutillak eta neskak. Bein batian artu zun kordiona prueba egiteko ia ikasten al zun oraindikan pianozko kordiona. Ta erran zidan:

—Iru filako kordiona banuke, oraindikan yoko nuke ederki nik!

Egoten giñen elkarrekin solasian, baita ere bertsoan, elkarri puntu paratuz ta ola. Ain pozik eta ongi bizi zen emen gurekin, deus ere egin gabe, ta egun batian erran zidan:

—Au yakin izan banu, sei urte leno etorri biar nun onat!

Donosti'ko Bar Bartolo'n yartzen zuten
astero pizarra aundi batian bertso bat
euskeraz, ta yende guzia egoten zen ber-
tsuari begira. Egun batian etorri zen gi-
zon bat galdetzera biar zutela nere aita-
ren bertso bat, eta eurek erran zidaten
zein.

Ni asi nintzen leitzen bertsoa, ta guar-
tu nintzen ongi egiña zela, bañan bazula
fallo txiki bat neurrian, eta orduan nik
konpondu nun aitaren antziñian, bertsoa
ola paratuz:

Euskalerridan jaio,
baita bertan azi,
askok erriko izkuntza
ez dute ikasi;
txikitikan naiago
erdarakin nasi,
gazte askokin ori
geinetan ikusi;
txikitikan asi
euskeran igesi,
erderakiñ duazi,
bañan emen bizi...
euskeldun izenik ez
dute merezi!

Gero aitari irautsi nion, ta aitak, ikusi
zunian, erran zidan:

—Len bezela ongi yun, bañan ola paratzen al duk!

Bertsua paratu zuten an, pizarran, ta an egondu zen aunitz denboraz. Yoan biarrak giñan aita eta ni ikustera, bañan egun etan il zen bera. Ara nola:

Eguardi batez, bazkaldu onduan, kafiarri bueltaka ari zen kutxarillakin, eta alako batian quartu nintzen bi begiak antziñera eldu zirela, atake baten gisan, eta erran nun:

—Aitak badu zerbait!

Artu nun, eta aitaerroaren laguntzakin eramán nun guatzera. An egondu zen ordu erdi bat solasik egin gabe. Alako batian erran zidan:

—Niri zer pasatu zait?

Erran nion:

—Eztakit; miñ egin zaizu. (1)

Ordun erran zidan berak:

—Au aunitz aldiz pasatu ziat niri gabaz. Atzo bertan, pixalik nagolik, nai nin bixtu argia, eta ez nun posible izandu.

Ori erran ta egondu zen geldi-geldirik arratsalde guzian guatzean. Afaltzeko ordua etorri zenian, erran nion:

(1) Lesaka'n, miñ egin korde galtzeari esaten zaio.

—Nai duzu zerbait ere artu afaltzeko?
Ta erran zidan:

—Bueno; berdura pixka bat eta konpota.

Yoan nintzen bere afariaren billaka, ta mugitu zenian guaztetik afari ura artzeko, asi zitzaion berriz atakia.

Ekarri gendun medikua, ta erran zigun enbolia zula. Igual bizitzen al zela urte bat, igual bortz minutu, ta oso eri zalgola.

Ekarri genion apeza, ta apezakin egondu zen il arte, bañan etzun solasik egin. Urrengo egunian, 1962'ko Azaroaren 30'an, goizeko amaiketan il zen, ta eraman gendun Lesaka'ko kanposantura.

PAULO YANZI'REN BERTSOAK

APEZARI

"BERSOS CANTADOS AL CURA D. JUAN BAUTISTA LABAYEN EN YANCI EL AÑO 1899 POR P. YANCI Y B. CHOPERENA"

«Bein batian, nere aitak amasei urte zitula, sermoia egin zun Igantzi'ko bika-rioak ango mutill eta neskangaindik: no-la berandu yoaten ziren etxera, eta ori etzela formalidadia, tenori orietan kanpuan ibiltzeko.

Apezak etzun iñoren izenik eman, bafian yendia ongi quartu zen zefientzat ziren puntada aiek: nere aita ta bere lagun Benitorentzat.

Gauza onen gaindik irri franko egin zioten bere lagunak, eta ordun nere aita eta bere lagun Benitok kantatu zituzten bertsu ok apezari.

Benito ta nere aita egondu ziren gero berrogei bat urte elkar ikusi gabe, gure aita Ameriketara yoan zelakoz ta Lesaka'ra espostu zelakoz.

Orai dela zortzi bat urte, 1960 urte in-

gurun, Igantzi'ko bestetan, ateri nun nere aita pasitzera automobillan, ta aurrena Igantzi'ra eramán nun, ta gero Benitoren baserrira, aítak bidia irautsita.

Atera alletu giñenian, leio ta ate guziak itxita zeuden, erriko bestak zirelako. Ordun aítak idiki zun atia, ta oiú egin zion Benitori:

—Non yaiz?

Bai eta ere barrendik oiuz kontesta egin:

—Zer diok, Paulo?

Benitok urtiak zitun guatzian zagola, ta guatzetik ezagutu zun boza. Nere aita yoan zen guatze antzinerano, ta Benitok onela erran zion:

—Zer abilla?

Ta gure aítak:

—Bai, *yaque*-ta i ez aizen gure etxera etortzen, ni etorri nauk bisita egitera.

Ta Benitok erran zion:

—Eskerrik asko, estimatzen dit ederki!

Egondu ziren ordu erdi bat kontu-kontari, ta zerbait bertso-kantari ere bai. Ta despedidan gure aítak erran zion:

—Ya ez gaituk elkar geio ikusiko ta zeru arte!»

Adierazpen au, ta beste geien-geienak

ere bai, Pepito Yanzi, Pauloren semeari
zor dizkiogu. Bertsoak, berriz, Pauloren
eskuz-idatzietan agertu dira:

1/ P.: Naiz dela apezan serbitzari,
berdiñ seroria,
bertso bat botatzeko
badet podoria;
naiz oriyekiñ egon
predikadorea,
neskatxak kanpuan egoteko
ezta tenoria.

2/ B.: Orla gertatzen dira
askotan kasuak,
neurtzen aritzen dira
besteren pausuak;
baserritarrak etxera
juan ziran gaxuak,
alere izaten dituzte
beti zelosuak.

3/ P.: Diferentzi ederra
Jainkuan artaldian,
gaur ikusten deguna
gabaren erdian:
baserritarrak etxian
lo umildadian,
kalekuak kanpuan daude
gaur libertadian.

4/ B.: Ezta aski izango
guk nai izatia,
ez al luteke obia
etxera juatia?
berdiñ gaizki artuko dute
gure esatia,
au ezta ejenplua
berdiñ ematia.

5/ P.: Astian beiñ errira
da gure bisita,
asko poztutzen gera
orrela ikusita;
dama oriyen onduan
badauka errekista,
ejenplua emazu,
Don Juan Bautista.

6/ B.: Gaurko gaba onetan
gure biarra bazen,
ikusi ditugu etxe-
rako bidia artzen;
zerbait aditu eta
juan dirade zuzen,
gu ere lana ontik
ixildu gaitezen.

*Pablo Yanci y Benito
Choperena, Yanci,
año 1899*

EUJENIO TA BERE ASTUAN BERRIYAK P. YANZI'K JARRIYAK

Doñua: Zaldi zuriarena.

«1920 urte ingurun Lesaka'ko errian baziren bortz edo sei gizon zelebren, ostatutan beti broma yartzen zutenak eben kantu ta istoriokin, eta yende guziak maite zitunak.

Beti aritzen ziren elkarrerri trapu botatzen, bañan alere etziren asertzen; ain zuten umore ona.

Ta gure aitak yarri zitun bertsuak gizon orietako biri, Yorre mutilzar eta Eujenio Beltzari, ez miña egiteko deseiuarekin, baizik elkarren artean broma bat pasatzeko.

Eujenio Beltzarenak yarri zitun, erranez lenengo Eujeniok zer erraten zion astoari, eta gero astoak zer kontesta ematen zion.

Eujeniok bazekien bertsuak konfiantzaz egiñak zirela, ta etzen sekulan asertu. Ta gure aitak aunitz aldiz kantatzen zitun beraren antziñian.» (1)

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

1/ —Itz neurtuak jartzeko
egin det promesa;
nere berri jendiak
jakindu beza;
neretan ikusten det
alderdi alrebesa,
biotzaren betian
bai daukat tristeza;
da nere deritza
Eujenio Beltza,
urtetan grandeza,
au nere pobreza,...
asto zar bat daukat ne-
re interesa.

2/ —Asi zera esaten
ni naizela zarra,
urte batzuekin baña
naiko azkarra;
zuri baliatutzen
zaitzu nere indarra,
ekartzen dizut zenbait
egurren adarra,
eze ta igarra,
ai nere bizkarra,
zuk saldu ta farra,
erosi pattarra...
bizitzeko badezu
nere biarra.

3/ —Lanpide aundiyakiñ
ni naiz arkitua,
astotxo bat badet zar
ta ajitua;
lana eman baño len
dago akitua,
askotan eziñ juanez
bidian gelditua;
dago nagitua,
eziñ mugitua,
motel ligitua, (*sic*)
asto malditua...
lana det zaldalia
eziñ ornitua.

4/ —Ni azpiyan artuta
zijuaz mendira,
zere edo besten gau-
za den tokira;
jaberik ezpadago
iñondik begira,
kontzientziari kaso
egin gabe tira;
gero erretira
menditik errira,
artzalliak badira,
lenbailen salida...
dirua artu eta
ardotegira.

5/ —Goiz-goizetik asita
lanian nabil larri,
ikusten det amaika
istillo gorri;
jatera emateko
ondo bera orri,
etzaude zu gosiak,
ain gutxi egarri;
indarrez zaude urri,
esan so edo arri,
ajol gabe jarri;
zerk zaitu ekarri
nere gorputz ta ariman
kondenagarri?

6/ —Goizian lanian asteko
zure erreminta:
kutxet erdiko pota
bat aguardinta;
gero berdiñ ardotik
iru edo lau pinta,
orra jendiari esan
dagueñ jakinta;
nik gose-irrintza,
zu eunpo eginta,
oiera igo ezinta,
ukulluan etzinta...
ezpañetan daukazu
matsaren tinta.

7/ —Ederki ari zera,
gezurti lasaia,
zeu're zerade ni be-
zin ondo-naia;
bai, gustatzen zaizkizu
artua ta zaia,
bestela ez dezu jartzen
itxura alaia;
gauz on billa saia,
txarrari usaia,
egunero jaia,
lana dezu etsaia,...
zurekin badago pren-
da on baten gaia.

8/ —Zure egon-tokiyak
dira edari-gelak,
dirua daukan bitar-
tian sakelak;
bai, gustatzen zaizkitzu
ardo ta pastelak,
zu goxoketan eta
neri lasto ustelak;
janari motelak,
edateko epelak,
asto-zai kruelak
beti utsak ganbelak...
ez dauka enpatxorikan
nere sabelak.

9/ —Ederki ari zera
nere desonratzen,
kulparikan gabe ja-
bian tatxatzen;
nik ez det ortaraño
ezertan faltatzen,
beti nabil zuretzat
gauz onak plantatzen;
zer dezu pensatzen?
beti gaizki esaten,
okasiyo jartzen,
nauzu ernegatzen...
laister asi biarko det
ezurak austen.

10/ —Neri ezurak austen
zerala asiko,
ondo begira zazu
lendabaiziko;
ordaindu gabetanik
etzaitut utziko,
egiñalak egiten
ni're naiz ariko;
pullanka ta ostiko
nik zaitut jarriko
elbarra betiko;
dezu ikusiko
zeñek degun lan ontan
irabaziko!

11/ —Nere partetik orai
nai det despeditu,
ez det nai zugandik ge-
iago aditu;
lanpide aundiyakiñ
nintzan ni arkitu,
orai arteraño naiz
alperrik aritu
zu naizik lezitu;
asko det seguitu,
gutxi zait balitu,
ez nauzu obeditu;
asi bezelaxen biar-
ko det gelditu.

12/ —Zuk asiera eta
nik errematia
obia degu lenbai-
len ematia;
Eujenio, ontara
obeditu zaitia,
ezta ondo elkarri
gaizki esatia;
onetan juatia
guretzat kaltia,
zertako nastia,
nagusi maitia?
aurrerat obe degu
biyok pakia! (2)

(2) *Bertso-papera*: "Imp. Macazaga / Rentería",
Paulo Yanzi'k berak emana.

Príncipe de Viana euskal errebista, 19'gn. zenb.;
1967/IX.

YORRE MUTILZARRAREN BERTSOAK

Doñua: Zaldi zarrarena.

«Yorre zan mutil zar bat, Lesaka'koa; Yorre, izengoitia zun. Aritzen zen ordun errian izaten ziren lanetan, egur-garraiozen, ikatz egiten ta abar.

Ta beti bere zakurrarekin ibiltzen zen. Nun zan Yorre, an zen zakurra.

Illunabarretan etortzen zen gure aitarren ostatura, ta galdetzen zitun bi xoxen pazientziak. Ematen zizkioten amalau pazientzi, ta erdiak beretzako ta erdiak zakurrarentzako izaten zitun. Ogia, txardiña ta dana, erdia zakurrarentzat. Ardoa ere zakurrari ematen zion.

Ta bertsuak paratu zitun gure aitak.

Urteen buruan il zen Yorre, ta zakurra ibilli zen aste bat nagusia ezin billa-

turik, bañan azkenian arkitu zun nun zagon enterratua. Ta antxen gelditu zen. Uzten zioten jana ondoan, bañan etzun jaten. Enterradoria, Grillos, despatxatu nai izan zun, bañan ezin.

Ta ala penaz, nagusiaren ondoan, il zen zakurra ere.» (1)

1/ —Treku, esango dizut
garbiro ta suabe,
omen zaude ganadu
on baten jabe;
zakur batei begira
egonak bagaude,
berriz ere egongo
dira geiago're;
dauzka iru kolore,
garbi ta dotore;
ezpazera pobre,
egizu fabore
Moxko utzitzia zu-
re eredore.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak. Bertso asko omen ziran, bañan bertsoak ez zitugu arkitu Pauloren eskuz-idatzietan, ta ez beste iñun ere; orregatik Pauloren semeak buruz zekizkin iru auekin konformatu bearko gera.

2/ —Nere ganadu onek
izena du Moxko,
zakur obiagorik
ez det erosko;
suerte txar orrekin
egin zuen topo:
nik oni uztekorik
etzait nei etorko,
ai naizik ondoko
nabill zokoz-zoko,
diruak zein *poco*
nauen ni joko!
erentzi-lana ori
utzi geroko!

3/ —Zakur txikiya ori
da maitagarriya,
ondo begiratzan du
atal-arriya;
ortaz gañera badu
alderdi aundiya:
lo ondo egiten du
ta jale garbiya;
erne belarriya,
bista ere argiya,
begiya zuriya,
Treku iduriya...
ezaguera aundiko
animaliya!

(1922)

BERTSO BERRIAK
PABLO YANZI'K JARRIYAK

«Denbora etan izaten ziren anitz diskusione zeruko gauzen gañean, elkar ezin entendituz. Ta iñork ere etzakien gure aitak zer pensatzen zun, ta ordun bertsu ok jarri zitun, illargia, iguzkia ta izarrak, berak nola uste zun egiñak zirela erranaz.» (1)

1/ Emetzi eun urte pasa onduan
orai ogei eta biyan,
bertso berri batzuek jartzera
orantxen nua abiyen;
mundu onetan asko bizi da
ignoranzia aundiyan,
adbertentzia jarri biar det
lo dagona esna dediyen.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

2/ Geren begiyan bistan dauzkagu
nobedadiak aundiyak,
irakurritzen asi ezkeru
burutikan juangarriyak:
gure gañian nola dabiltzan
eguzki, izar ta illargiyak...
oiek ez dira mundu ontako
ofizialiak jarriyak.

3/ Goiz-goizetikan ematen digu
eguzkiyak argitasuna,
beren klarezi ederrarekiñ
pasatzen degu eguna,
gero izarrak eta illargiyak
argitu gaba illuna...
siñets dezagun norbait badela
oriyek jarri zituna.

4/ Eguzkiaren diferenzia
uda aldetik negura:
udan berua botatzen digu,
neguan berriz freskura;
ez dakigu zeñ jiran gabilzen,
orretan badago duda,
sekretu ori agertzallerik
ez da jaiotzen mundura.

- 5/ Illargiya're jaio berriyan
txikiya zaigu agertzen,
gero laurdenian pasatuta
ikusten degu betetzen,
ortikan berriz bajaturikan
bistatik zaigu gordetzen...
misteriyua ori nola den
alperrik daude asmatzen.
- 6/ Siñetsmentua artzeco badaude
señale sufizientiak:
eguzki eta illargiyekiñ
izar reluzientiak;
gab'eta egun irakurritzen
daude estudiантиak,
sekretu ori ez dute erdisten
munduko intelijentiak.
- 7/ Otaz gañera orra non dauden
itxasua ta leorra,
begiyan bistan ikusten dana
ez nolanaieko obra;
mundu ontako engañuekin
ez gaiten fiatu sobra,
denbora dalik artu dezagun
beste artako beldurra.

8/ Arrai txiki ta aundiz betia dago
itxasuko ur azpiya,
leorrian ere jendez gañera
animali-klase guziya;
jendiak badu beste oieri
eman etziyon graziya,
ortaz Jaun bateri zor diyogu
bakoitzak geren biziya.

9/ Orra itxasuak non derallezkiñ
kargamentuak aundiyak,
beren gañian nola dabilten
baporrak eta ontziyak;
dena ebekiñ eramen nayik
bai urak eta aiziak,
ez ditu iñork orandik neurtu
astro oien potentziyak.

10/ Ignoranzian illak dirade
orai artiñoko zarrak,
neurtu gabe sua ta ura
eguzki ta aizen indarrak;
otaz gañera sekretu aundiya
illargi eta izarrak...
oriyen berri daki zeruko
Jaun dibinuak bakarrak.

11/ Ez ditu iñork argiturazten
misterio oien sekretuak,
ignoranzian gelditzen dira
mundu ontako talentuak;
kristab maitiak, denbora dalik,
ateri bada kontuak,
ezpaldin baditugu nai izan
infiernuko tormentuak.

12/ Jaun Zerukuak berak jarriya
bada lege bat zuzena,
denak ortara obeditu biar,
eskaporik ez dagoena;
ortan sartzen da zar ta gaztia,
pobre ta aberats dena:
jaio guziyak il biar dato-
rrenian beren ordena.

13/ Illtzen dirade Presidentiak,
Errege ta Aita Santuak,
bai eta pobre denak bezala
munduko kaudalatuak;
justizi orren bistan gaudezin
bada eskarmentatuak,
guarda detzagun Jaungoikoaren
legeko mandamientuak.

- 14/ Azken juiziyua datorrela
ori gaude adituak,
predikatutzen azkar dabilta
Jaungoikoaren ministruak;
ala diote Aita Santuak,
kardenal ta obispuak,
ez gaiten kastigatuak izan
gaudezin prebenituak.
- 15/ Ya dagoneko ikusten dira
mundu onetan mudantzak,
zenbait gauzetan artzen zaizkiyo
zarran esan orri trazak:
gerrak norenai, plantak igartu,
ukatzen asi labrantzak...
beldurtu gaiten eldu ote diran
gure kontrako bengantzak.
- 16/ Siñets dezagun Jaun bat badela,
gure denen Erregia,
orretarako deitutzen zaio
zeru ta lurren Jabia;
faltatu gabe guarda dezagun
fede santuko legia,
gero illtzian billatutzeko
beren tronurat bidia.

17/ Jaungoikoaren lege santuan
bizitzen ez dena emen,
orrelakuak illtzian eztu
salbazyorik izanen;
fede santu orretan illikan
zerurat al gera juanen,
guziyondako deseaten det,
ala gerta bedi, amen. (2)

(2) *Bertso-papera*: "Imp. J. Díaz — Irún.", Pablo Yanzi'k berak emana.

(1922)

IÑAUTERİYETAKO DEIA EUSKALERRİYARI

«1922 urtian nere aitak egin zun biaje bat Iruñe'ra, bere lagun Modesto Lasaga'rekin. Ez dakit zer asunto zen. Ta Iruñe'tik Lesaka'ra eldu zirelik, Modestok erran zion paratu bear zitula Lesaka'ko iñauteriari bertsuak, ta bertso orien doñua izan bear zela Lesaka'ko zortzikoren bat.

Ordun, eldu zirelik bidian, gogotu zaizkion gure aitari bertsu ok, ta an bidian bertan kantatu zion iru edo lau, berak momentuan eginak. Bai gustatu ere Modesto Lasaga'ri, ta erran zion:

—Oriek kopiatu egin bear dituk!

Ta ala egin zun aitak, etxera etorrita. Urrengo egunian deitu zion Modestori bere ostatura, eta kantatu zitun denen antziñian bertso oriek.» (1)

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak. Urrengo orri-aldeko doñua, Pepito Yanzi'k idatzia da.

E-mē-tzi eun ur-te pa-si-a, o-rai dua o-
gei ta bi-ya, i-lla ta be-re te-no-ri-a, O-tsaillan
er-di-ya; al-de-tu da l-ñau-te-ri-ya,
gu-a-zen zar-ta gaz-te-ri-ya aur-ten on-ra-de-
za-gun Le-sa-ka-ko e-ri-ya.

- 1/ Emetzi eun urte pasia,
orai dua ogei ta biya,
illa ta beren tenoria
Otsaillan erdiya;
aldetu da ñauteriya,
guazen, zar eta gazteriya,
aurten onra dezagun
Lesaka'ko erriya!

- 2/ Badator iñaute-eguna,
bada itz aue zeñek entzuna,
euskaldun guziyon artian
bada alaitasuna;
betor plaz'aldera txuntxuna,
zeñ den gure soñu kutuna,
euskaldunen artian
maitatzen deguna.
- 3/ Onek mugitzen ditu aurrak,
bai eta animatu zarrak,
arindutzen ditu eriyak,
baita're elbarrak;
txuntxunaren soñu ederrak
jartzen ditu denak azkarrak,
guazen plazara, guazen,
euskalerritarrak.
- 4/ Oñ dirade egun pozgarriyak,
alai dirade gazteriyak,
aldetuak diradelakoz
trapu zar periyak; (2)
egun oietako komeriyak,
estalirikan arpegiyak,
jostaketa onak dauzka
aurten gure erriyak.

(2) Eskuz-idatziak, *zatar zar periyak* jartzen dute; bañan *trapu zar periyak* omen zan Paulok lenengo asmatu zuana. Bañan gero, *trapu* erderazko itza zala esan baitzioten, aldatu egin zuan. Dударик ez da, *trapu zar periyak* gatz geiago duala, ta Pauloren burutik ola sortu baitzan, orrela jarri degu.

- 5/ Bertan dauzkagu musikuak,
bai eta gure errikuak,
dantz-aire ariñak jotzeko
gogo aundikuak;
guazen, neska ta mutikuak,
kale eta baserrikuak,
dantzatzera fandango
eta zortzikuak.
- 6/ Badauzka Lesaka'ko erriyak
aurten jostaketa aundiyak,
alaitasunakiñ guazen
euskaldun guziyak;
etorri, makill-dantzariak,
dama gazte pare-gabiak,
guazen, dantza detzagun
euskaldun airiak.
- 7/ Guazen, guazen, zar eta gaztiak,
guazen plaz'aldera guztiak,
antxe ikusiko ditugu
gauza txokantiak;
guazen, neskatx elegantiak,
bai eta zuen amantiak,
alai pasa detzagun
aurten iñautiak.

- 8/ Etorri aurten Lesaka'ra,
guziyondako toki bada,
iñauteriyetako bestak
alai pasatzera;
emengo mairu ta maskara,
jostaketa ona nola ez para?
biba alaitasuna
ta gora euskara!
- 9/ Guziyondako dago plaza,
izango da soñu ta dantza,
iñauteriyak poz aundiyan
detzagun pasa;
etorri guregana aisa,
artuaz biar den konfiantza,
guazen alkar artuaz
euskaldunen raza.
- 10/ Oroitu Bizkai ta Alabaz,
Gipuzkua eta Naparraz,
oroitu anztu gabetanik
gure probintzi aizpaz;
alkarrekiñ egiñez jolas,
gure izkuntz eder euskaraz,
guazen bada oroituaz
lengo lege zarraz.

11/ Guazen poz aundi bat artuta,
izkuntz eder au maitatuta,
ez daien euskara gelditu
atzera anztuta;
guazen denak bateratuta,
oitura zarraz oroituta,
guazen aurrera, guazen,
danok anaituta.

12/ Agur, musikero nobliak
ta txuntxunero dotoriak,
zuen aire alai oiekiñ
gure umoriak;
agur, gure agintariak,
epaile eta abadiak,
agur, alkate jauna
ta erri-giariak. (3)

(3) Paulo Yanzi'k bi aldiz kopiatuak zeuzkan bertso auk bere eskuz-idatzietan. Bietatik jatorrena iduritu zaigunari jarraitu diogu. Besteak aldaketa auk ditu:

1/1: Emetzi eun urte onduan; 1/6: etorri, zar ta gazteria; 2/5: betor dantz-lekura txuntxuna; 3/1: Onek alaitzen ditu aurrak; 3/2: bai eta ere jende zarrak; 3/7: guazen josta-lekura; 4/5: jai oietako txarkeriyak; 5/2: geuren; 5/3: jostaketa onen jartzeko; 6/3: gogo onarekiñ etorri; 6/6: neska gazte pare-gabiak;

7'gna.: Etorri, zar eta gaztiak,
guazen dantz-lekura guztiak,
antxe izango bai dirade
gauz ikusgarriak;
guazen neska pare-gabiak,
bai eta zuen lagundiak,
alai igarotzera
aurten iñautiak.

8'gna.: Etorri aurten Lesaka'ra,
guziyondako leku bada,
iñauteriyetako jaiak
ondo igarotzera;
emengo jostaketa ona da,
alaitasuna nola ez para?
gora alkartasuna
ta gora euskeral

9'gna.: Izango da soñu ta dantza,
egiñ ontan guri laguntza,
iñautiak igarotutzeko
gaztiak ekarri gatza;
etorri guregana aisa,
izango da emen asko gauza,
erakutsi euskalduna
ez dagola latza.

10/4: geuren; 10/6: geuren; 10/8: lengo oitura
zarraz; 11/7: guazen gora dezagun; 11/8: danak al-
kartuta; 12/1: Agur, musika-jotzalliak; 12/4: alai
dantzariak.

BERTSO BERRIYAK
SAN FERMIÑERI
PABLO YANZI'K JARRIYAK

«Lesaka'n erriko bestak San Fermiñetan izaten dira. Ta urte batez bertsu ok para zitun gure aitak.» (1)

1/ Badatorzkigu egun jakiñak,
uztan zazpiyan San Fermiñak,
guziyok etortzera egiñ
zeben alegiñak;
zeñ diran egun atsegiñak,
badauzkagu jan-edan piñak,
ta anparantzan soñuak,
doñu ariñ-ariñak.

2/ Datorren illaren zazpiyan
jaiak Lesaka'ko erriyan,
lendabaiziko goiza elizan
jauntasun aundiyan;
andik atera egurdiyan,
inguro eder bat kalian,
baita ezpata-dantza
Onin'go zubiyan.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

3/ Ezpata-dantzariekin ttunttuna,
elizara juango zaiguna,
goratutziagatik gure
erriko Patroi ona;
atsaldian ere elizkizuna,
an dalakoz Jainkotasuna,
otoitz onak egiñez
lenbaiziko eguna.

4/ Lendabaizikotik aurrera
jai-zaliak denak kalera,
adiskidetasunian egun
onak igarotzera;
bildu gaiten denak batera,
soñua alaia den aldera,
an billatuko degu
lagunazko aukera.

5/ Nai ditugu onazko egitiak,
ala dire gure ustiak,
izan gaitezen bada denak
alkarren maitiak;
etorri bat ala bestiak,
alaitasun batez betiak
ori nayian gaude
Lesaka'n guztiak.

- 6/ Goizetikan lau pelotari
diru-jokuan nai bada ari,
aien jokutzen ondotikan
zezen bat edo bi;
ordu biyetan bazkaldu ongi,
berriz anparantzara ateri
soñua izango da
denentzat ugari.
- 7/ Dantzatu fandango ta baltsa
ateri arte izerdi-patsa,
lengo oitura ona oietik
ez aurrera pasa;
bestela jostekatu aisa,
jarri neskatx oientzat saltsa,
bañan ez detzatela
gonak geiegi altxa.
- 8/ Jostekatu oitura onetan,
agintariyen esanetan,
ezer ezta jarriagatik
izerdia kopetan;
edari oztu onak bertan
izango dira egun oietan,
andik lo egitera
goizko ordu biyetan.

- 9/ Etorri bada, zar ta gazte,
ondo ikusiak izango zate,
gure lengo oitura zarrak
nai ditugu bete;
etorri al bazenduteke,
erruki izango ez dezute,
askatasuna bada
nai dezuten arte.
- 10/ Alaituko gaitu soñuak,
añ ariñak dira doñuak,
dantzatutzeko porrusaldak,
baita fandanguak;
zauli iduki bada zanguak,
badira dantza berri orainguak,
baita neskatx ederrak
ondo apainyuak.
- 11/ Laugarrenian juango gera
ematera Txakaiñ'go jira,
okel ta ollasko erriak
an izango dira;
ardoz barrena ondo bustira,
oraintxen lan ori aski da,
zortziko eder onetan
guziyak errira.

12/ Alaitu onduan Txakaiña'k,
ornituak azpiyak ta gañak,
okel eta ollaskua janez
uriñdu arte ezpañak;
geiago esan nai du mingañak:
erriyan suak ta kukañak,
baita soñulari ta
dantzari bikañak.

13/ Laugarrenako jostaketa
zarrentzat bakarrentzat ezta,
berdiñ oietaratzen dira
mutil eta neska;
ez ibilli bada igeska,
etorri bidian beteka,
ni're juango nintzake
astiya baneuka.

14/ Orra bada guk adirazi,
nai baldin badezute ikasi,
egun oriyetako lagun
on billa guazi;
maitetasunez gera asi,
alkarrekin nayian bizi,
etorri bada denak,
zuen zai gaudezi. (2)

(2) Pablo Yanzi zanak berak emandako errebista-
puska batetik. Eztakigu zein aldizkari dan, ezta zein
egunetakoa dan ere.

(1922)

BERTSO BERRIYAK
(AFRIKA'KO GERRARENAK)

«Afrika'ko gerran, 1922 urtean, aunitz mutil, erriko ta erri ondoko, eraman zitutuen gerrara.

Egun batez, gure aita Irun'en suertu zen, ta ango merkatu batian ikusi zitun aunitz mutil gazte, instruzionea ikasten ari zirela.

Gero, mutillak kuartelera zoaielarik formatuak, aditu zun gure aitak andre batek nola erran zion antziñian zoaien mutil bateri:

—Ez aldi ortara yoan! Yoan bertze alde ortara!

Ta Frantzia erakusten zion eskuarekin.

Ta ala, ainbertze mutil il baitzen gerra ortan, bertsu ok paratu zitun.

Etzun gerrick ikusi nai gure aitak. Beti militarren kontra aritzen zen. Ta bertsu ok egin zitunian, Irun'go inprenta batian atera zitun paperak, baita zabaldu ere bere lagunen artean.

Bañan segidun yakindu zun etzela libre militarren kontra bertso kantatzea, ta debekatu zioten paperak ifiori ematea. Ta berak erran zun etzuela geigo pape-

rikan. Ordun erran zioten kontu emateko ta ez kantatzeko bertso oriek iñoren antziñian.

Ala, egon zen aunitz urte bertsu ok kantatu gabe yendearen antziñean; ixilka bai, ixilka kantatzen zitun. Ta yendeak ere kantatzen zitun ostatuetan.

Egun batian yoan ziren erriz-erri, ta automobillatik botatzen zituten pape-rak, yendeak ikasteko bertsu ok, erritik ateratzean, iñork ikusi gabe.» (1)

Ber-tsu-ak jar-tzen naiz a-si ko-pi-a-
 -tu-az ta gu-zi, nai di-tu-a-naki-ka-si; A-
 fri-kaal- de-ra o-rain-go al-di-yangoz-te-ri
 aun-di-yak dua-zi; di-o-te a-di-e-ra-zi ez-de-la
 juan bi-rr-i-ge-si; a-nak ne-gar-rez dau-de-zi.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak. Doñua, onek berak idatzia da, bere aitak kantatzen zuan bezelaxe.

1/ Bertsuak jartzen naiz asi
kopiaturaz ta guzi,
nai ditubenak ikasi;
Afrika aldera oraingo aldiyan
gazteri aundiyak duazi;
diote adiderazi,
ez dela juañ biar igesi;
amak negarrez daudezi.

2/ Erriyetan jarri nota
esperuan dagola flota
enbarkatutzeko tropa;
deitu dituzte lizenziatuak,
excedente ta kuota;
eman fusil eta arropa,
balaren artera bota,
etzaizkiyo asko gusta.

3/ Artu manta ta motxilla,
juana bada asko milla
moru artera Melillâ;
eben buruan defenditzeko
matxetia ta fusilla;
ogei urtetan mutilla,
obediente ta umilla,
bizi jokatzen dabilla.

- 4/ Asiya naiz adbertitzen
gaxuak nola dabilten
atakian elkar iltzen;
soldado oien ama tristiak,
egon zaitezte aditzen:
gaba eta egun sufritzen,
nola zeraten aritzen
gerrâko seme azitzen?
- 5/ Gaxuak balan artian,
gaur Afrika'ko partian,
moruekin atakian;
pena aundiyak utzita juanak
bakotxak eben etxian;
dabiltza malamentian
gostiak ogei urtian,
ez ortarako ustian.
- 6/ Españi'ko soldaduak,
zuri, seme onraduak,
leialak eta brabuak;
zer defenditzen den jakiñ gabe
Afrika'ra bialduak,
an gerrillan zabalduak,
gose-egarriyak aulduak,
asko betiko galduak.

7/ Asko aman seme brabo
Afrikâ juana badago,
galoi-dun oien anparo;
jaun oriyeri serbitu biar,
eskaporikan ez dago;
nora dirade juango?
ogei urtetan soldado,
miliziara esklabo.

8/ Bete besuak galoiez,
zillar ta urre-kolorez,
agindu modu gogorrez;
artu ta eramén gure semiak
azitakuak dolorez;
ez dute eskatzen faborez,
batek nai badu eta ez,
lur bustitzera odolez.

9/ Eman arma ta trajia,
Afrika'ra barajia,
mutikuak korajia;
kristandadian izenarekiñ
gizon iltzera biajia;
moro edo salbajia,
ura da aien parajia,
Jaun Zerukuak lajia.

10/ Izar-dun oiek poztuta,
beti aurrera kenduta,
orai geldi dira oztuta;
ameka urtian irabaziyak
egun gutxitan galduta,
denak badute diskulpa,
bañan ez dago anztuta
jefe zenbaiten konduta.

11/ Galdu lengo terrenuak,
armamentu modernuak,
gostiak gure reinuak;
bai eta ere galdu dituzte
besten seme tiernuak;
ai zer lotsa gobiernuak,
ematia rifeñuak
gure tropari frenuak!

12/ Gazte elegante lirañak,
bai eta goxo mingañak,
engañatzeko rifeñak;
soldaduak mendijan utzi eta
eurek erriyan azañak,
eben buruari mañak,
kobratuaz paga bikañak,
alderdi ona dauka España'k!

13/ Mantxatu da miliziya,
kulpa gabe ta guziya,
argi bedi maliziya;
inozente askok kulparik gabe
galdu dute eben biziya,
artu biar den klareziya,
baldin bada fiñeziya,
egiñ bedi justiziya.

14/ Arruit, Zeluan ta Nadorrak,
ango odol-galtze gogorak,
gorriturik daude lurrak;
ango kontuak aditu eta
bat artutzen du beldurrak;
ez dira noski gezurrak:
egazkiyak ta txakurrak
txupatzen illan ezurrak.

15/ Beltzan sarrera zorrotzak,
egiñ diguzte destrozak,
milla asko eriotzak;
nola jarriko ziran ondotik
juan diran aien biotzak,
ikustian ala gorputzak,
utziyak moro ferozak,
eben anaiak ill-otzak?

16/ Zori gaiztozko markallak, (2)
aietan egiñ batallak,
galdu floreko galaiak;
oien gorputzak ikusgarriyak
artuak daude usaiak,
ill ta utziyak lasaiak,
aiek enterratu naiak,
juan dira eben anaiak.

17/ Triste oriyen galera,
orai nua esatera
nola dituzten atera
aita eta amaren ondotikan
bostetik iru iltzera;
oien paga zer ote da?
erituta ospitalera,
ill gizajuak lurpera.

18/ Triste gelditu dirade,
makiñatxo bat nerabe, (3)
eben aitarikan gabe;
oriyen amak senarrak galdu,
solterak ez nobiyuen jabe;
azkar egin dute galde,
oiek utzita egiñ alde,
denak pensaketan daude.

(2) markallak = ilketak.

(3) nerabe = aur.

19/ Asi ezkeroztikan sutan
negarrak naziyo ontan,
uste det geien lekutan;
ama triste oiek gaba eta egun
eben semiak burutan;
aziyak eben petxutan,
ill dira sufrimentutan
salbaje aien eskutan.

20/ Asko ama española
ikusten det badagola,
negar franko dariyola;
anparo gabe Afrika'n galdu
bere entrañako odola,
martirizatua orla,
pen au zenbat edo nola
eziñ det neurtu iñola.

21/ Seme maitiak faltatu,
eziñ dituzte billatu,
Jainkuak detzala anparatu;
prisionero salbaje aien
artian denak gertatu,
zer ote ditu pasatu?
iñoiz al badu eskapatu,
izango du zer kontatu.

22/ Egiya eziñ det isildu:
beltzak zuri asko il du,
jendiak ziñetan min du;
martirizatu aien arimak
ez daditezen an galdu,
biotzez gaiten umildu,
Jaun Zerukuari agindu
bere ondorat detzan bildu.

23/ Orra gerran ondoria:
gure gazteri floria
desastre ortan eroria;
triste oientzat eskatzen dizut,
zeru ta lurrari Jabia,
beste munduan gloria,
zorion pare gabia,
Afrika'n baño obia.

24/ Gure reinuak nastia,
bat anztu gabe bestia,
au da bizitze tristia!
Urriki zaite zere umiaz
zu, Jaun Zeruko maitia,
gutaz oroitu zaitia,
ontan artzazu partia,
lenbailen jarri pakia.

25/ Onekin dijua azkena,
 nik betetzen det ordena
 amatxo batek emana:
 gerra ontako sentimentuak
 zabaldu guziyongana;
 etorri gazteri dena,
 eraman papertxo bana,
 Afrika'ko oroipena. (4)

(4) Guk dakigularik beintzat, iru aldiz argitaratu dira bertso auk, irurak Paulo Yanzi'ren denboran, ta ain zuzen, uste degunez, berak inprenta-araziak. Orregatik irugarrenari jarraitu diogu omen, azken ikutuak berari egin baitzizkion. Urrena, bigarren argitaraldiak dauzkan aldaketak jarriko ditugu; ta, azkenik, lenengo argitaraldiak dauzkanak.

Irurak moldiztegiaren izenik gabe agertu ziran. Bañan, nere ustetan, bigarren ta irugarren argitaraldia Erretereria'ko Makazaga'renean inprentatuak dira. Ain zuzen, bigarregoaren papera Makazaga'renean bertan arkitu gendun. Irugarrena, berriz, Pablo Yanzi'k berak eskura eman zigun; ta lendabizikoarena, Joxe Anjel Sarasola'k (Olalde, Alzibar, Oiartzun).

Bigarren argitaraldiaren aldaketak: 5/5: bakoitzak; 9/4: kristandadien; 11/3: kostiak; 12/4: soldaduak mendiyen laja eta; 14/7: egaztiyak; 14/8: illen; 16/2: aietaz; 16/5: artatik daude usaiak; 16/7: oiek; 18/6: fuerte egiñ dute galde; 19/5: eben semiak besuetan; 22/4: animak; 22/8: bere ondora ditzan bildu; 24/4: erruki zaite; 25/2: kunplitutzen det ordena; 25/7: papeltxo.

Lenengo argitaraldiaren aldaketak: 5/1: bale artian; 6/3: lealak; 9/4: kristandadien; 9/7: ura aien parajia; 11, 12 ta 13'garrena, beren artean lekuz aldatuta daude, beste era ontan jarrita 13, 12 ta 11'garrena; 11/5: askon seme tiernuak; 12/2: bai eta dulce mingañak; 12/3: konkistatzeko rifeñak; 12/4: sol-

daduak mendiyan laja eta; 14/8: illen; 15/1: bel-
tzen; 15/2: tiguzte; 15/5: juan diren oien biotzak;
16/2: aietaz; 16/7: oiek enterratu naiak; 18, 19, 20
ta 21'garrena, beren artean lekuz aldatuak daude,
beste era ontan jarrita: 21, 18, 19 ta 20'garrena;
18/6: fuerte egiñ dute galde; 19/4: ganeta egun
(sic); 19/7: sufrimientutan; 19/8: salbajiaren esku-
tan; 20/5: entrañeko; 22/4: oien animak! 22/8: on-
dora; 23/1: geken (sic); 23/5: lurren; 25/2: kunpli-
tutzen det ordena; 25/4: sentimientuak; 25/7: era-
men paperetxo bana.

Principe de Viana euskal errebistan ere argitara-
tuak dira bertso auek, orain illabete batzuk, 1968'ko
Maiatzean, irugarren argitaraldiari kopiatuta.

RAFAEL KUTTUNA'RI

«Rafael *Kuttuna* zen erri guziak agitz maitea zun gizona. Ura zen tokian, beti bazen umoria, bertsuak eta dantza. Naiz bera gizon adiñekoa izan, beti gaztiakin ibiltzen zen. Beiñ ere etzen ikusi Rafael aserre, baizik beti umore onian. Orregatik gure aitak aunitz estimatzen zun, eta bere lagun ori famatzeko bertsu ok yarri zitun.

Rafael Kuttuna zen gizon oso dantzaria, eta ederki dantzan zekina, eta beti erraten zun, bera gaztia zela ikusi zula egun batian gipuzkoarra bat oso ongi dantzatzen fandangua, eta areri ikasi zio-la *zango-gurutzia* egiten; ordun berak egiten zun agitz ongi. Nere aitak aipatzen du bere bertsutan *zango-gurutzia* ori, eta seguro nago orain iñon ez dela egiten *zango-gurutzia* ori Lesaka'n bertzerik.

Rafael Kuttunak, bere lagunakin kantatzen zunian, beti *duo* egiten zun; *duo* egiteari *ire* erraten zion berak. Orregatik,

bertsu ok yarri ziren doñu ontan, ire egi-
ñez kantatzeko.» (1)

Bertso be-rii ba-tzu-ek nai ni-tuz-kea-te
ri ne-re as-pal-di-txo-ko la-gun zar ba-
-te-ri Jaun o-ri a-ri-tzen da noize-nai
kan-ta-ri ortaz ni-ju-a o-rai
jar-tze-ra be-ra-ri.

- 1/ Bertso berri batzuek
nai nituzke ateri
nere aspalditako
lagun zar bateri;
jaun ori aritzen da
noizenai kantari,
ortaz nijua orai
jartzera berari.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak. Bertsoak, Sal-
bador Etxarte'k emanak. Doñua, Pepito Yanzi'k ida-
tzia, bere aitak kantatzen zuan bezelaxe.

- 2/ Izenaz esango det:
Rafael Kuttuna,
orai larogei urte
jaiotako aitona,
dantzan eta kantari
parerik eztuna...
estimatzekua da
olako laguna.
- 3/ Zure kantuak dira
leun eta dultziak,
dantzan e arritzen gaitu
zure ibiltziak;
mugida biziyakin
zango-gurutziak,
iduri dauzkitzula
juntura autsiak.
- 4/ Rafael, kantatzen dezu
boz me ta lodiyan,
dantzatu ere ondo
postura egokiyan;
nor zaren ezagutua
zera aspaldiyan,
parerikan ez dezu
Naparru guziyan.

- 5/ Sasoyian zerade
itzaia izana,
zuran da egurrian
jartzen zendun lana;
pionak pozik beti
juaten zuregana,
beti izan dezu na-
gusi onen fama.
- 6/ Labrantzan ere ezta
oberik azaldu,
segan da aitzurrian
etzaizte igualdu;
emakumetan ere
zerade amaindu,
Rafael, etzerade
motela izaindu.
- 7/ Gizon orrelakua
larogei urtetan,
ezta olakorik emen,
ezta're bestetan;
zartuta ere oraindik
modu oritan jostetan,
nolakua ote ziñan,
Rafael, zu gaztetan?

GIZONGAIAK ANDREGAIARI

«Bertsu oriek, uste dut nik enkarguz egiñak direla, erriko gazteren batek erranda. Ez nitun nik beñere aditu, ez berari ta ez bertzeri. Benturaz izanen dire mutillak Lesaka'n badakitenak asuntu orren berria.» (1)

- 1/ Bertso jartzera nua nere sentimentuz, tristurakiñ, lenago nengona kontentuz; pena artua nago baita fundamentuz, motibua badaukat jokatzeko buruz, onez aurrera ibilliko naiz ni kontuz.

(1) Ala esan zuen Pauloren seme Pepitok, bertso auek irakurri ondoan. Bertsoak, Paulok berak eman zigun eskuz-idatzi batetik ditugu.

- 2/ Damatxo bat banuen
nere gogokua,
ez nere etxetikan
urrungo auzokua;
izdun paregabia,
jolas goxokua,
orai ateri baitzait
beste modokua,
ez nik uste bezala
konfianz osokua.
- 3/ Klara, zutaz nintzen ni
biotzez gustatu,
neretzat izateko
giñan konformatu;
prestatzeko dirua
zenidan eskatu,
beriala biar zenduela
bizitza plantatu,
milla duro eskutan
nezkitzun kontatu.
- 4/ Juramentuz zenidan
egun artan esan,
biotzez nai zenduela
nere andria izan;
santa baten moduan
itza zenduen eman,
orai ikusten det nik
nolakua zeran,
ni utzita beste ba-
tekiñ ziñaden juan.

- 5/ Abisatu zidaten
zu zaunden auzotik,
lenbailen utzitzeko
zu nere gogotik,
beste bat zabillega
an zure ondotik;
orixe jakiñazi
didate geroztik:
paseatzen zendutela
elkarren besotik.
- 6/ Emendikan jua ziañ
nigandik aparte,
neretikan jantzia
oso elegante;
zure bizimoduaz
jakiñazi naute:
«Lan ori izandu da
zuretako kalte,
laguna izandu dezu
diruak jan arte.»
- 7/ Diruakiñ emendik
ziñaden aldatu,
baita beste batekiñ
farrandan gastatu;
uste bezala etzaitu
andretako artu,
lagunik gabetanik
zerade geratu...
orai berriz nerekiñ
nai dezu tratatu.

8/ Errukitua zaude
emendik juana,
nik ez det kulparik zu
tranposa izana;
zabaldu ta onduan
orrelako fama,
orai etorri naizik
zabiltza nigana,
nai zendukiela izan
nere aurren ama.

9/ Zuk pensatu zenduen
ni orla uztia,
eta beste batekiñ
igesi juatia;
utsa juan ziñaden ta
itzuli betia,
orai ni alai nago,
zu berriz tristia,
lana ortik libre naiz,
or konpon zaitia!

10/ Arturik zaude uste
etzenduen itzala,
orai pena ni utzi
eta juan ziñela;
orla ezagutzen da
mudakor oiala,
lenago zuk ni utzi,
orai nik zu orla,
au gertatu zaitzu zuk
merezi bezala.

- 11/ Klara, fiatu ziñan
besten esanian,
etzenduen ala usteko
juan ziñadenian;
laguna izan dezu
zere aldamenian,
orai alde egiñ dizu
aspertu denian,
ta nigana etorri nai
utzi zaituenian.
- 12/ Uste bezala etzera
ateri kanpuan,
berriz asi nai dezu
nerekiñ tratuan,
jarri zeradenian
estado guapuan;
ez det ezer jakin nai
zure ostatuan,
maian ez det jarri nai
bigarren platuan.
- 13/ Ni bakarrik utzita
juan ziñan isilla,
orretarako ziñan
bastante abilla;
ez nuen uste ziñala
zu orren naspilla,
zutaz egondu naiz ni
penakiñ ya illa,
orai juaten al zera
lenguaren billa!

14/ Geiago naizik izan
besteren esposa,
ni utzita jua ziñan
bastante airoa;
ederra zeradela,
baita borontosa, (2)
neri itz onak eta
besteri biotza,
neretzat izan zera
falsa ta tranposa.

15/ Diruak gastatu ta
ez artu senarrrik,
ni bezala zu ere
oraindik bakarrik;
ez dizut adituko,
ez egiñ negarrrik,
ondotik ibiltzia
daukazu alperrik,
ez det zu bezalako
tranposa bearrik.

16/ Diruak gastatu arte
bestekiñ pasitu,
orai berriz nerekiñ
nai dezu unitu,
naikua zeranian
bestekiñ ornitu;
ez det nik orrelako
gauzik nai aditu,
naiago det betiko
mutill zar gelditu.

(2) borontosa = borondatea duana.

17/ Nere bolsatik zera
askotan beztitu,
dama elegantiaz
kalian luzitu;
zuri eman oietaz
berando errukitu,
oiek galduta orai
biarko det gelditu,
obe nuke neriak
eskutan banitu.

18/ Gustora ibilli zera
itxuraz fiñdua,
zure berriyak nago
ondo jakiñdua;
gorputza nagitua,
ibilli ezindua,
sabela ori daukazu
franko berdindua,
nori eman diozu
neri agindua?

19/ Diruak gastatuta
len beziñ pobria,
gañera galdu dezu
zere onoria;
nere aurrera etortzeko
izan baloria,
orrela jostatzeko
badezu umoria,
alde egizu nigandik,
falsa traidoria!

20/ Nere aurrera etortzeko
izan dezu kara,
lana oriyetako
edoziñ etzera;
berdindu ta onduan
bestekiñ ijada,
negar falso oiekiñ
ez etorri onara...
Maria Madalenak
zaitzala anpara!

«LENGO BATEZ AMESTAN...»

- 1/ Lengo batez amestan
izandu nintzen illa,
laster abiatu nintzen
zeruaren billa;
ateraño juan eta
ango arima-pilla!
esan zidaten bertara
presentatu nedilla,
San Pedrongana juan nintzen
aurrera umill-umilla.

- 2/ Errespetoz izketan
nezatziyon asi,
nere deseia zer zen
niyon adiderazi:
nola nai nuen zerua
urbillatik ikusi,
«orretarako eskatzen
dizut milla grazi.»
«Ondo begira zazu,
barrena zuazi.»

- 3/ San Pedrok laster ide-
 ki zidan atia,
 ageri zan zeguala
 tenplo dena betia.
 «Posible al det bakarrik
 barrena juatia?»
 «Bai, ikusi zazu ondo
 or daukaten pakia,
 ondo begiratu eta
 itzuli zaitia.»
- 4/ Sartu nintzen alderdi
 guzietara begira,
 zar flako ta aur txikiyak
 oietik asko dira,
 mundo ontik gizen juanak
 aietikan gutxi da,
 aingero asko bilduak
 Jauna dagon tokira...
 ondo begiratu eta
 eman nuen jira.
- 5/ Nai dituenak siñetsi,
 ok egiyak dirade:
 zeruan sartuak dira
 pobriak ta asko nerabe,
 izandunak beste tokira
 egiñak dira alde;
 orren bistan San Pedrori
 nik egiñ niyon galde:
 «Aberats gizena aiek
 non sartuak daude?»

6/ San Pedrok erantzun zidan:
«Ikusko ditutzu laster,
bide ederra orretan
begira zazu ezker;
munduan pasatu dute
ameika egun eder;
fede santuan ibilli
diradelakoz oker,
orai infernuan dute
nagusi Luzifer.»

7/ San Pedrok esan bezala
juan nintzen aurrera,
begiratzen nuelarik
ezkerrako aldera;
iritxi nintzenian
infernuko atera,
Luzifer ateri zetzaidan
errezibitzera,
ariñ aski eman nituen
pauso bi atzera.

8/ Luzifer jarri zetzaidan
zorrotz aski begira,
egin niyon galde: «Jende
gizen aiek non dira?»
«Sartuak ortxen daudezi
biar zuten tokira,
uriñ danak urtutzeko
infernuan erdira,
ikustera eman zazu
kanpo aldetik jira.»

- 9/ Kanpotik ikusi nuen
infiernuko labia,
mundotik gizen juanakiñ
dago ondo betia;
garretan eziñ egonez
ek daukaten nekia,
sua azpiyatik eta
gañatikan ikia,
an urtu biar emen gaizki
bildutako koipia.
- 10/ Gaiztuak geradenak
gaitezen bada ondu,
Jangoikuaren legiak
onela esaten du:
iñor bere lanatikan
dadiyela mantendu;
beste mundoko aferak
nai dituenak zuzendu,
ez dadiyela onetan
bestenatik gizendu.
- 11/ Fede santuko siñets-
menturikan gabiak
emen arturik dabilta
okerrako bidiak,
bestena arrapatzeko
edatuak sariak;
betetzen ez dituztenak
Jainkuaren legiak
zuzentzeko, zai daudezi
infiernuko sardiak.

- 12/ Besten izerdiatikan
bizitzen direnak,
iltzian sufritu biar
merezi diran penak;
estraperlista oietik asko,
baita aberats geienak,
Jangoikuaren legiak
dirade ain zuzenak,
infiernuratutzen ditu
orrelakuak denak.
- 13/ Biltzen dituzte urre,
zillar eta kobriak,
baita ebentzat iduki
zokoetan gordiak;
oriyek jateko lana
egiten du pobriak,
gero esango digute
diradela nobliak...
gu gosiak eta berak
razione dobliak!
- 14/ Mundo ontan asko bada
besten gauzan amante,
jende biarrak gaizki gaude
au dela mediante;
gure lanatik bizi da
makiña bat tunante,
len esan ditudanak ta
zenbait komerziante,
guk jana idorra, oiek
koipia sobrante.

- 15/ Aundiyatara pasa
txikiyatik asita,
asko orla bizi dira
besteri ebatsita
ondo jan ta edan egiñez,
baita ondo jantzita;
gero iltzian deabruari
egiñ biar bisita,
emen gaizki bildu denak
bestentzat utzita.
- 16/ Agertzen ari naiz egiya
gordian iduki ezinta,
adirazi ez dakitenari
egon ez ditezen jakinta;
idazteko eskutan artuak
dauzkat pluma eta tinta,
ikusirikan zertarako den
kristaba askoren jakintza,
beren bizimodua ondutzeko
besteri kalte eginta.
- 17/ Zuzen ibiltzen al gera
mundo onetan zutik,
ez dezagun beste artan
gero izan disputik;
bialtzen baldin bagaizte,
ez naizikan, zerutik,
deabruak eramango
gaizte laster eskutik,
ta igesi eziñ egiñ
infiernuko sutik.

- 18/ Infierno dana suak
artua dago garraz,
adar biyak zorroztua
guardiyan Barrabas,
ta ez kamutxaguakiñ
Pilatos eta Kaifas,
atiaren zai jarriyak
Luzifer eta Judas...
andikan igesi egiten
ezta izango arraz.
- 19/ Purgatu biar dute
bekato benialak,
infiernuan sutan erre
dituztenak mortalak;
onak izatera egiñ
detzagun egiñalak,
an ez dute baliyoko
zillar ta urrezko metalak,
dirotan ez dira saltzen
zeruko fiskalak.
- 20/ Bi bide jarriyak daude
guretako aukeran,
iñor bera zefietikan
jokatzen ote dan;
ia bada oker gabiltzanak
zuzentzen ote geran,
orra nik adiderazi
neunek dakidan euskaran
beste mundora juan eta
zer ikusi deran. (1)

(1) Paulo Yanzi'ren eskuz-idatzietatik artuak.
Inprentaren izenik gabeko bertso-paper batean ere

arkitu ditugu bertso auek; bañan, argitaratu aurretik, bateonbatek ikutu batzuk egin zizkien an ta emen *garbitzearren*, irakurlea, emen segiran jarriko ditugun aldaketai begiratuta, bereala konturatuko danez.

Bertso-paperaren aldaketak: Izenburua: Ametsetan beste munduko berriyak P. Yanzik jarriyak. Doñua: Belate'ko bertsuenak. 1/2: nintzan; 1/8: urbildu nedilla; 2/3: nere desiua zer zan; 3/4: zeru dana betia; 3/5: uzten al nauzu bakarrik; 4/5: lurra ontik gizen juanak; 5/7: orreatatik San Pedrori; 6/3: bide eder ortan zuazi; 6/4: begiratuaz ezker; 6/5: lurrean igaro dute; 6/6: amaika; 6/7: Jainkuan agintzan ibi-; 6/8: lli diralakozer oker; 6/9: infernuan; 7/7: atera; 8/1: zizaidan; 8/8: infernuan; 9/2: infernuko; 9/3: lurratik gizen juanakiñ; 9/5: garra artan ezin egonez; 11/3: gabiltza; 11/7: ez dituenak; 12/3: iltzian igaro bear; 14/9: guk jana idorra berak; 15/10: bestendako utzita; 16/1: agertzen naiz egiya; 16/4: egon dadiyen jakinta; 16/7: dan; 20/8: euskeran; 20/9: mundura.

XENPELAR TA AMABOST URTEKO MUTIKUA GOIZUETA'KO BESTETAN

Bein batez, Xenpelar Goizueta'ko festetara joan zan, ta errikoak, ura ikusi zutenean, kantatzeko eskatu zioten. Bañan Xenpelarrek onela erantzun zien:

—Nik, bertsotan aritzeko, laguna bear det.

Ta Goiztetarrak erantzun zioten:

—Errian ez da iñor bertsotan aritzen danik; mutiko bat bada, amabost urtekoa, pixka bat aritzen dana, bañan ura ez da gauza zurekin kantatzeko.

Bañan Xenpelarrek agindu zien mutiko ura ekartzeko. Ekarri zuten, ta bertsoak ondo mutikoak. Xenpelar bera ere, arrituta gelditu zan.

Beiak jeizten ari zala, bei batek ostikoz jota, anka batetik maingua zan mutiko ori.

Orduan Xenpelar ta mutikoak kantatu zituztenetatik, ba omen zekizkian Paulok iru-lau bertso, lengo zarretatik ikasiak. Oietatik asita, sail luzea paratu omen zuan berak gero. Onako bertso-sail au, alegia. Lengo zarretatik ikasitakoak, emengo 1, 2 ta 5'garrena omen dira; ta agian 6'garrena ere bai; beste guziak, Paulok jarriak, beraz. (1)

1/ X.: Amar urtetan nintzen
oteketan asi,
zarpall eta nekia,
gutxi irabazi;
aberatsa izaten
ez nuen ikasi,
orai ere ez nauzu
indiano bizi.

2/ M.: Oteketa besterik
ezpanu izandu,
orai ez nintzen egongo
belaunatik maingu;
nere ofiziyua
nai det deklaratu:
beiak itzita esnia,
ura emanta saldu.

(1) Salvador Etxarte'k. Bertsoak, Pauloren eskuz-
-idatzietatik.

3/ X.: Zure beiak esnia
sendo ta ugari,
ura emanik etzaio
ajolikan ari;
Xenpelarrek bear lituzke
artatik pitxer bi,
gorputza lasaituta
azi al baledi.

4/ X.: Xenpelarrek badauzka
ertziak estuak,
lasaituko dizkiyo
edari freskuak;
esnia eta ura
elkarri nastuak,
enpatxua kentzeko
ez dira gaiztuak.

5/ X.: Astua emango nizun
bizi izan bazen,
berdiñ zuregatikan
aisa juango zen;
enfermedadi ori
sendatzeko zuzen,
alako medikorik
erriya ontan etzen.

- 6/ M.: Enfermedadi ori
etzeguen gugan,
premiyan dagonari
biar zaio eman;
hoja de sen egosi,
aren urak edan,
ikusko dezu nola
sendatuko zeran.
- 7/ X.: Esaten ari zera
zu gauza jakiña,
nola sendatzen den be-
larra orrekiñ miña,
kentzen duela baten
libratu eziña...
zeu're egongo zera
prueba egiña.
- 8/ M.: Nik ez det belar ori
neronek probatu,
nere lagun batek du
lengo batez artu;
zu ere etzaiteze
botika ortaz anztu,
estutasun ori nai
badezu lasaitu.

- 9/ X.: Esnia eta ura
elkarrereri nastu,
hoja de sen egosi,
aren urak artu;
nik ez det orrelako
gauzik nai probatu,
obe dezu zeretzat
botik'ori altxatu.
- 10/ M.: Iñork ez du konpondu
nere belaunikan,
maingu ederra egiñez
nabilla oraindikan;
bañan ez det oiek sen-
datzeko miñikan,
nere ertziak ez dute
libratu eziñikan.
- 11/ X.: Jaiotzez etorria,
zerezko ernia,
aitari erakusten
ari zera, semia;
artzeko *hoja de sen* ta
urakiñ esnia,
zedorrek sendatzeko
badezu premia.

12/ M.: Belaunako maingua
ezta aisa kentzen,
alako medikorik
ez da emen agertzen;
zure estutasuna
ez dute lasaitzen,
berriz ere ezpadezu
botik'ori artzen.

13/ X.: Goizueta'n igaro zait
uste gabekua:
lagun bat topatzia
zu bezalekua;
gaztia oraindik, a-
mabost urtekua,
edoziñen aurreko
bazera naikua.

14/ M.: Ez nuke nai gelditu
nik fama txarrian,
jarri naizen kasuan
gaur zure aurrian;
naiz segituko deran
denbor lagurrian,
berriz ere ariko naiz
al deran neurrian.

15/ X.: Memoriyan daukazu
itzazko aukera,
iñork despreziatzeko
laguna etzera;
gaur nerekiñ bezala
portatzen bazera,
edoziñen aurrian
zu jartzen al zera!

16/ M.: Aditua banuen
nik zure izena:
Euskalerriko bertso-
laririk onena;
orai gure errira
etorri zarena,
emendik juatia
izango det pena.

17/ X.: Adirazi didazu
zuk zere izketan
ni naizela onena
euskal erriyetan;
zeu're etzaude makala
amabost urtetan,
zuregana etorriko naiz
urrengo bestetan.

18/ M.: Itz ori ez dezu esan
denbora juanian,
azalduko zarela
besta-egunian;
ni emen egongo naiz
umore onian,
etorri bada berriz
zuk nai dezunian.

19/ X.: Dibertitu gerade
ordu bat betian,
orai lana onetik
isildu gaitian,
nik billatuko zaitut
urrengo batian,
milla esker, gaztia,
beste bat artian.

20/ M.: Ni emendikan ez naiz
juango aparte,
zeren naizen maingua
izanikan gazte;
bañan zure itz oiek
animatzen naute,
agur, Xenpelar jauna,
urrengo bat arte.

- 21/ X.: Amabost bat urtekiñ
oraindikan gazte,
zu bezaleko lagun-
txo bat nik nai nuke;
azaldutzen banaiz ni
iñoiz zure eske,
jira bat ematera
juango al ziñake?
- 22/ M.: Testigotako bada
jende asko begira,
itzaren emateko
orixen aski da;
zu nere billa iñoiz
etortzen bazira,
ni zurekiñ juango naiz
nai dezun tokira.
- 23/ X.: Zu zerade jaiotzez
Goizueta'kua,
bertsolari garbiya,
pare gabekua;
lagun bat nai nuke nik
zu bezalekua,
adios, adiskidia, e-
kartzu bostekua.

24/ M.: Onekiñ bukatzen da
izketa gaurkua,
esan dezu badela
oraingo naikua;
despeditzeko eskatu
didazu bostekua,
ori ezpadezu aski,
tori amarkua.

KAIKO TA ALTAMIRA

Bertso-sail au ere, Pauloren eskuz-ida-tzietan arkitu degu. Bañan Kaiko ta Altamira auek nor ziran dakienik, ez degu iñon topatu; ezta, beraz, bertso auek no-la sortuak diran esan al dezakenik.

Xenpelar ta amabost urteko mutikoa-ren bertsoetan bezela, baditeke Kaiko ta Altamira auek antziñako bi bertsolari zarizatea, ta bertso auek, danak ez badira ere, banaka batzuk beintzat, lengo zarretatik ikasiak izatea, ta gero Paulok bere gisa osatuak.

Ain zuzen, Altamira Tolosa'ko bertsolari zar baten izena da. Gorosabel'ek dienez, bertsolari-saio bat egin zan Tolosa'n, 1802'gn. urtean, Iñauterietako irugarren egunean, lau bertsolari auen artean: Amezketa'ko Zabala ta Fernando, Ernani'ko Txabalategi, ta Tolosa'ko Juan Bautista Altamira.

1/ —Kaiko, nondik eldu yaiz?

Arano aldetik,
ire jendia etik
itxesarenetik, (*sic*)
kamiyuak utzita
sasiko bidetik,
larrak ez yau geldituko
kaskuko illetik.

2/ —Altamira, badaukak
soñekua pana,
ibilli faltan ez daukak
sitsa zarrak jana;
orai ere biar yituzkek
dozena bat kana,
pozik artuko yukek,
bayu nork emana.

3/ —Kaiko solyua dala
jendiak ala diyo,
egiya esatia
ezta misteriyo;
lengo illia juan eta
berririk ez jayo,
buruko zorri denak
otzak ill zaizkiyo.

4/ —Gauz oriyek ez dituk
orrela diranak,
ez laitezkek siñetsi
gaur ire esanak;
nere zorriyak ema-
ten dizkitek lanak,
ez al zauzkak geiago
ire traje panak?

5/ —Etzakela neri eman
ire tatxarikan,
nik oraindik ez diat
orrelakorikan;
gezurra dek ta eziñ
esan egirikan,
nere panak etzaukak
zorri-kaberikan. (1)

6/ —Aize-girizirik ez (2)
dik nere buruak,
zorririk eziñ izan
dik kasko soillyuak;
ire panak zartuta
zimur ta ziluak,
uste diet badauzka-
la gorde-lekuak.

(1) kaberikan = kabirikan.

(2) girizirik = gerizarik, babesarik.

7/ —Itza egin biar det gaur
aditzen deranez,
ari yaz ire tatxak
besteri emanaz;
gustaturikan yago
nere traje panez,
asko baziok orre-
lakua eziñ izanez.

8/ —Ire panak bazeuzkak
ogei ta amar urte,
seguro ez nauk baña
ala diet uste;
adirazi didaken
itza orren truke,
berriya artuko yukek
nork eman bayuke.

9/ —Dirorik ez derala
al dek aditua?
iñorekiñ ez niok
zortan gelditua;
ibilli nai banikek
ondo beztitua,
jostun askon etxetan
badiat kreditua.

10/ —Atsegiñ biar likek
ire traje panak,
orrekiñ ibilli biar
geiago eztuenak;
baditukela asko
zortan nork emanak...
kreditu biarrik ez dik
dirua daukanak.

11/ —Pozik ematen ditek
ordañtzalle onari,
saldu naizik baziok
gaur asko dendari;
bazeuzkatek traje eta
pelukak ugari...
erosi bat ta estali
kasko solla ori!

12/ —Gure gertaera gaur
Goizueta'ko plazan,
Kaiko Altamirakiñ
beste asko're bazan;
elkarrerri gauz asko
baiziogu esan,
barkatu, adiskide
biar digu izan.

JOSETXORI

«Gure aita ibilli zen amar bat urte ardi zai Nevada'n ta California'n, eta artzaien bizi-modua iñork baño obekiago zakin. Orrengatik, bere illoba Josetxori, au ara yoan zenean, bertsu ok paratu zizkion.» (1)

- 1/ Josetxo, gauza txarrak
badauzka mendiyak,
ondo zaitutzekotan
aurreko ardiyak;
artzaiari tristatzen
zaizkiyok begiyak,
ikusten dituelakoz
kontrariyo aundiyak;
elur ta uriyak,
askotan bustiyak
gañ eta azpiyak,
ok dira egiyak;
bañan saria artzian
urre gorriyak.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak. Bertsoak, Pauloren eskuz-idatzietatik.

2/ Goizetan ateratzen
yaiz kanpo aldetik,
ardiyak ditukela
ire aurretik;
zakurrak zaituko daiz-
kik alde batetik,
ik berriz ojua ta
ziztua bestetik;
lana au goizetik,
aurre egotiagatik,
lenbaiziko itzetik
ziken map atzetik (1)
al bayu zaituko di-
tuzkek etxetik.

3/ Gaztiaren gogua
da beti jostetan,
beste gauzarik eztu
bere kasketan;
dibersiyorik bada
inguru oietan,
ik juateko miñarik
ez yuke anketan;
lana izanik bertan;
gogua bestetan;
egongo yaiz izketan
gero modu obetan;
zartziaz oroi adi
orai gaztetan.

(1) *Seek'em up! Seek them up!* Zakurrari inge-
lesez ematen zaion agindua: Bildu aiekl.

4/ Josetxo, adiñ ona
daukak oraindikan,
fortuna bat egi-
teko Amerikan;
diro askokiñ etor-
tzen bayaiz ortikan,
iñoiz billatzen badek
bueltan biderikan,
urriak patrikan,
neskak ondotikan,
denak i naizikan,
Lesaka'n karrikan
señorita guziyak
ire atzetikan.

5/ Ortikan etortzian
musika juango da,
au da amerikanu-
endako moda;
jendia emen juaten da
diruan ondora,
orrelako baten be-
gira emen asko da:
Joxepa ta Flora,
Ines ta Teodora,
Juliana ta Aurora,
urruxa arro da...
primera klasian Jo-
setxo, ire boda.

6/ Josetxo, itz okiñ ez
sobera aunditu,
ez nuke iñoiz nai gauz
ori aditu;
gizonak bajotikan
biar du begitu,
gonbeni dan martxetan
aurrera segitu,
ez sobra mugitu,
itzak obeditu,
biar bada saritu,
denakiñ kunplitu,
al bada ez iñokiñ
gaizki gelditu.

PABLO YANZI'K BERE ILLOBARI
NEVADA'RA
BERE KARTAN ERANTZUERA
ITZ NEURTUETAN

«Emendik yoan ta lana billatu arte, egondu giñen errian illabete ta erdi. Gure nagusiak nai zigun toki ona eman, zaldiak ziren tokia; oñez ibiltzeko tokia etzun nai, arrunt gazteak giñela-ta. Nik osabari eskribitu nion errian nola geunden, ta zer bizi-modu egiten gendun, ta arek bertsu okin kontesta eman zidan:» (1)

- 1/ Esan dezute nola zaudeten oraindik beintzat erriyan, jan ta edan naikua egiñez ta aspertu arte oyian; galderikan azaltzen ezpada bertan igual eguardiyan, gero bazter guziyak iretxi janikan bada mayian, ez dakit orla izango zaten artzai juatian mendiiyan.

(1) Josetxo Yanzi'k. Bertsoak, Paulo Yanzi'ren eskuz-idatzietatik artuak.

2/ Zuek bezalako artzaiak ere
nai dituztenak izaki,
ez dakit ârtik ez ote duten
laster artuko aitzaki;
zuekiñ zer pasatu biar duen
osaba zarrak badaki:
illundu orduko oiera juanta
loz ase arte ez jaiki...
koiote oiek izango dute
zuengatik naiko jaki.

3/ Zuentzat ezta goxo izango
lanpide ori artzia,
erriko biziya bat da eta
menditakua bertzia;
egunaz ardiyak zaitu biar ta
baita egosi eltzia,
gabaz ardiyan marraka eta
koiotian irrintzia...
Josetxo, ez da ori izango
Piperla'n zerri zaitzia.

4/ Egunaz ondo bazkatu biar
ardi, bildotx eta auntzak,
bazka garbiyetan ibilliaz
ondo bete arte panzak;
ez al da lana ori orrela?
Josetxo, egiya esan zak;
erriko bizitzatik mendira
izango dira mudantzak...
or guziyori anzten zaizkiyo
musik-sonyo eta dantzak.

5/ Josetxo, ditzu osaba zarrak
egi batzuek esango,
bañan itz okiñ pena aundirik
ez dizut noski emango;
orai modua danian dantzatu
asko jota ta fandango,
nola bakarrik ardi zaitzera
mendira zeran juango,
an ez dezu zure Margaritan
laguntzarikan izango.

6/ Oraingo aldiko, nere illoba,
lana onetan aski da,
orreatan beste bat arte
eman biar det despedida;
uste det laster izango dela,
zai egongo naiz begira:
Josetxo, ortik espero ditut
bertsotxo bat edo bida,
zure bueltak errezibitzeko
osaba zarra bizi da.

PABLO YANZI'K AMERIKETARA
BERE ILLOBARI

Doñua: P. M. Otaño'na: Limosnatxo bat

1/ Itz neurtu berri batzuek Ame-
rikara España aldetik,
Naparru'ko erri bat Lesaka
izena duen batetik;
euskaldun asko or bazerate
urrun juanak etxetik,
zuetaz oroitzen naizela ni
okiñ adiraztiagatik,
agur on bana bialtzen dizuet
denari nere partetik.

2/ Zeben etxetik atera eta
juan ziñaten mundo korri,
bai eta ere mendi oietan
ibilli askotan larri;
artzaiko lanpidea orretan
zuek ziñatenak jarri,
negu txarretan igarotuz
amaika estilo gorri,
zenbatekua den neke ori
arraz ez laiteke neurri.

- 3/ Udan lan arraxa izanikan
neguan beti nekia,
artzaiak izaten du mendiyen
ibilli biar aundiya;
askotan elurra azpiyan eta
gañetik berriz uriya,
barrena auleriyak artua,
bizkarra berriz bustiya,
ara nolakua den artzai gi-
zajo oriya biziya.
- 4/ Mendiyen arkitutzen zatenak
lanpide ori artuak,
begiyatik malkuak zintzillik,
penaz beterik urtuak;
kalamidade oiek lenago
dauzkat neunek pasatuak,
zuen pausuak nola diraden
nik dauzkat ondo neurtuak,
etzate zeben etxea etan
denak orla usatuak.
- 5/ Lendabaiziko, artaldiari
ondo biar zaio begitu,
galdu eta batzuek atzera
ez daditezen gelditu;
bistatikan asko utzi gabe
alde samartik segitu,
gero beretzat jana egiñ eta
arropa're biar garbitu...
Nevada'ko artzai gizajuak
lana ok denak baditu.

- 6/ Aita eta amaren ondotikan
gazterik gera mugitzen,
aien onduan ez egon naizik
laster gerade asitzen;
obeki biarrez gere etxiak
aisa ditugu utzitzen,
gero lauetik iru gerade
errukituak arkitzen...
kalamidadiak pasatuaz
or ikasten da bizitzen.
- 7/ Deseatzen dizkitzutet denari
Jangoikuaren graziyak,
bere laguntzaz ibillitzeko
zelaiak eta mendiyak,
ordu onian izan ditezen
zuen lana eta nekiak,
zabilztelako mendian oietan
pesti oiekiñ nasiyak...
ondo zaitzia merezi luke
orrela irabaziyak.
- 8/ Mendiyatik errira jatxita
or bada ainbeste okasiyo,
mendi-jendia artutzen dute
gaiztakeriko soziyo;
or dauden lagun txarra oieri
kaso egiten bazayo,
denbora gutxiz patrikak ustü,
berriz kanpora seriyo...
orretarako lan egitiak
ez du askorik baliyo.

- 9/ Erri aldian arrokeriyan
orla ibiltzen direnak,
patrikaetan dolar gutxikiñ
izango dira geienak;
urtia jua ta urtia etorri
beti igual daudenak,
lasaikeriyan orrela pasa
eben sasoyik obenak,
gero denbora jua ta onduan
izango dituzte penak.
- 10/ Orra zuentzat ondo nayian
itz berri batzuek neurtu,
etzazutela, adiskidiak,
nere esanak gaizki artu;
erri aldera azaldutzian
berriz laster kanporatu,
denborak urria baliyo du,
ez alperrikan pasatu,
orai sasoi dezutelarik
zartzerako akordatu.
- 11/ Ezagutzen det nolakua den
Amerika'ko Nortia,
orko oiturak artu bitarte
naiko paraje torpia;
bañan gaztiak or lana egiñez
irabazten du dotia,
gero kate gorri bat zintzillik,
ezpañetan bigotia,
patrikan txeke aundi batekiñ
Europa aldera trotia.

12/ Amerika'n arkitzen zatenak
Euskalerritik juanak,
entzun zatzute biotzatikan
aitona onek esanak;
guziyondako deseatutzen
dizkitzutet zori onak,
ta jira bat ematera etorri
utzirikan zeben lanak,
besuak zabalik emen daude
zuen aitak eta amak. (1)

(1) Bertso auek, Paulo Yantzi'ren bi eskuz idatzietan arkitu ditugu. Oietako batean, bertsoak orgoien jarri ditugun bezela daude. Besteak, berriz, aldaketa auek ditu:

2/7: negu gaiztotan igarotuz; 5/8: arropak ere garbitu; 6/10: orla ikasten da bizitzen; 11/4 naiko bizitze torpia.

**JOSE YANZI'K BERE OSABARI
AMERIKA'TIK ERANTZUNA**

1/ Nere osaba, zure itz neurtu
berriyak ditugu artu,
gure bizitza zuk esatia
batere ez gera asertu;
guk ixillikan genaukan baña
zuk orai dezu agertu,
gure bizitzak bear bezala
nola baiditutzu neurtu,
ok irakurtzen gaba eta egun
eziñ gerade aspertu.

2/ Itz neurtu berriyetan bialdu
dizkigutzu zori onak,
oiek irakurtzen igarotzen
ditugu gabak ta egunak;
oroipen onak zuretzat eman
dizkidate emen lagunak,
estimatutzia merezi du
gutaz otsegiten dunak,
agur bana bialtzen dizugu
Amerika'ko euskaldunak.

- 3/ Osaba, zure esana oriyek
denak dirade egiyak,
ez duela gauz onik ekartzen
erriko gaiztakeriyak;
jostaketa oiek nola diraden
ondo gaude ikasiyak,
orreatan zaitzen ditugu
mendian irabaziyak,
bizi gerade bide txar oiek
alde batera utziyak.
- 4/ Gere etxetik ateri giñan
emen obeki biarrez,
bañan etorri errukituak
ez gaudezi gu negarrez;
sari ona ematen digute
gure lan egiñan ordez,
egiya da orko oroipena
ez dala anztutzen errez,
bañan zartzerako ari gera
patrikak betetzen urrez.
- 5/ Egiya da ibiltzen gerala
ondo bustirik bizkarrak,
artzaiak mendian izaten ditu
onak bezelaxen txarrak;
neguko elurak kentzen ditu
udaetako sukarrak,
ok ta geiago izaten ditu
artzaiak igaro biarrak,
bañan guztiyak anztutzen ditu
emengo okelan indarrak.

6/ Neguan asko ibiltzen gera,
uda guztiyan etzanta,
denbora eziñ igarotuz
okela naikua janta;
nola ez degu ortikan jango
aurrian oinbeste izanta?
zakurrak ere gizen dauzkagu
gere sobriak emanta,
ez degu oinbeste jan biarko
geren errira juanta.

7/ Orra, osaba, artzaiak nola
bizi geran Amerika'n,
lekua ontan jan ta edana
naikua bada oraindikan;
guk emen geiegiakin beti,
ez degu eziñ izanikan,
mendiya otan ibilli biarra
zerbait izanagatikan,
jateko gogua duenentzat
ez dago ezeren faltikan.

8/ Gere bizitzaz ez dadukagu
ezer esanik batere,
egunaz lana, gabaz lo egiñ,
ondo jan ta edanak gaude;
gu baño obeki denikan bada
ori ebendako obe,
leku askotan ez dira egongo
ausarkiya onen jabe,
obe luteke Europa'n denak
modu onetan baleude.

- 9/ Jan ta edanen faltik ez dago
gu bizi geran etxian,
ogi zuriya, zato ardua,
okela beti eltzian;
errekiya alderdi batian,
ta egosia bertzian,
otaz gañera urre gorriyak
lanan saria artzian...
Europa aldera juango gerade
boltxatik ondo jartzian.
- 10/ Euskalerritik etorri giñan
geren etxetik urruna,
ardi zaitzera gure Jainkua
daukagularik laguna;
ondo gerade Berak ematen
digularik osasuna,
bere laguntzarekiñ egiten
badegu nozpait fortuna,
iritxiko da zuek ikustera
juango geraden eguna.
- 11/ Relojo ederrak urrezkuak,
medallak berriz kation,
bai eta ere bigote ederrak
ezpañ guztiyan betian;
egoki apañduak jartzian
juango gerade trotian,
bitartian ondo bizi gaiten
osasanakiñ pakian,
gero besta ederra egiñgo degu
gu orrara juatian.

12/ Ondo billatu ditutzu gure
bizi-modu onen zañak,
ezer utzi gabe mugituaz
ondo azpiyak ta gañak;
lana ontako itzak aukeran
badauzka zure mingañak,
nik ere jarri, naiz ez diraden
zuriak beziñ bikañak,
orra, osaba, irakur zatzu
zure bertsuan ordañak. (1)

(1) Pablo Yantzi'k berak bere eskuz idatzitako orri batzuetatik kopiatuak.

Orain, emen argitaratzerakoan, Josetxok, bereak dituen ezkerro, ikutu batzuk egin dizkie an ta emen. Au bera esaten degu Josetxoren beste bertso-sorta guziengatik.

JOSETXOK BERE OSABARI

«Karta bat eskribitu zidan osabak, eta karta barrenean erretratua. Erretrato edo potreta ontan zauden Paulo, bere alaba Martinika ta onen aurra. Paulo zagoen maukak gora eginda, ta oso sasoi oneko gizona. Osaba ain ongi ikusi nularik, bertsuak yarri ta biali nizkion. Bai berak ere kontestan neri.» (1)

- 1/ Bertso berri batzuek
nai ditut paratu,
denbora zerbait esanez
biar det pasatu;
nola karta bat lenguan
egin nuen artu,
ta pasa nuen trantzia
nai nuke kontatu.

- 2/ Karta ideki ta potretak
barruan lenikan,
ez nuen pensatzen zu oie-
tan izaterikan;
eziñ ezagutu ondo
begiraturikan,
esan nuen: «Au ikusi
det nik Amerika'n!»

(1) Josetxo Yanzi'k. Bertsoak, Pauloren eskuz idatzietatik artuak.

3/ Urrezko ortza oiekiñ
brilluetan aba,
nor zen eziñ ezagutuz
pasa nuen gaba.
«Nik lenago ikusia
izango da bada!»
Gero esan nuen: «Ez al da
au nere osaba?»

4/ Maukak gora egiñak,
besuak agerian,
andria ta alaba
zere aldamenian,
illoba besuetan,
bai gusto onian...
zu ziñela ezagutu
nuen azkenian.


5/ Osaba ezagutu
nuen azkenian,
bertso jartzen asi nintzen
bere izenian;
zu etzuazi aurrera
bide zuzenian,
gaztetzen ari zera
zartu biarrian.

6/ Zure gorputzak oraindik
ez du zartzerikan,
soltero zarela esan
laike oraindikan;
modu ortan gora juanta
ezpada bajikan,
berriz ere lana egiten
al dezu Amerika'n.


7/ Eguna beziñ lagur
igaro urtia,
modu ortan dijuala
da nere ustia;
naiz nik au ala uste
zu zaude gaztia,
gugana etortzeko
anima zaitia.

8/ Ez pensatu ez dela
gizonaren planta,
lo naikua egiñez
nai adin bat janta,
egunaren orduak
igaro etzanta,
biziko zerade guri
konsejuk emanta.

PABLOK BERE ILLOBA JOSETXORI (1)




Jo - se-txo itz neur-tu-ak zuk di-tutzu pa-
 -ra, a-lai i-ga-ro-tze-ko i-ño-lez alba-da; e-
 -ra-ku-tsinai de-zu da-ki-zun eus-ka-ra, lan-
 -pi-de-a o-rre-tan kon-pon-du-ko ga-ra o-
 -rain-di-kan sa-soi-an da-go zu-re o-sa-ba.




Zar-tu-ta're o-rain-dik e-sa-te a-la-
 yak; nes-ka gaz-ti o-ri-yek ez di-tut e-tsa-


(1) Lenengo doñua, Pepito Yanzi'k idatzia; bigarena, Salbador Etxarte'k kantatua ta Ambrosio Zata-rain jaunak magnetofonotik entzun da idatzia.



-yak, a-ni-ma-tu-tzen nau-te o-ri-yen u-sa-



-yak, ni-gane-tor-tzen di-ra a-mo-di-yo na-



-yak: muso bi e-man diz-kit zu-rean dre-ga-yak.

1/ Joxetxo, itz neurtuak
zuk ditutzu para,
alai igarotzeko
iñolez al bada,
erakutsi nai dezu
dakizun euskara,
lan-pidea orretan
konponduko gera,
oraindikan sasoiari
dago zure osaba.

2/ Karta ideki zendu-
enian lenbizi,
ni eziñ ezagutuz
orrenbeste trantzi;
zartu naizela orrekiñ
didazu adirazi;
izketako badezu
milla bat malezi,
begira, Joxe, zu're
bide ortan zuazi.

- 3/ Potretan ikusi dezu
ortzaren brillua,
ni eziñ ezagutuz
ai zer estillua!
urrun izanik orrat
zugana billua (1)
gustagarriya dala
nere espillua,
osabari burlaka
zu gazte pillua.
- 4/ Nere urrezko ortzaz e-
gon zera pensatzen,
ok mendiya oietan
dira irabazten,
ni ere gaztetan naiz
egona ardi zaitzen;
orai zartu ta ari
baizaizkit bakantzen,
utsaren betetzeko
ok ditut paratzen.
- 5/ Zartuta're oraindik
esate alaiak,
neska gaztia oriyek
ez ditut etsaiak;
animatutzen naute
oriyen usaiak,
nigana etortzen dira
amoriyo-naiak,
muso bi eman dizkit
zure andregaiak.

(1) billua = bildua.

6/ Besuak agerian,
gorputza bikaña,
ortzak erakusteko
idekia ezpaña;
orrela luzitzen det
gazte batek aña,
iru ogei ta zortzi
urte dauzkat baña,
oraindik ere neska-
txetan, alajaña!

7/ Orra nolakua den
osaban biziya,
aitondu ta besutan
illoba txikiya,
familia azitzen
berritik asiya;
nai nuke au balego
zu bezala aziya,
onekiñ daukat nere
esperantz guziya.

8/ Alaba Vitoria'n,
semia Amerika'n,
juan eta itzuli ga-
bia da andikan;
iñoiz etorko balitz
diro asko patrikan,
zerbaiten esperantza
banuke oraindikan,
bizitzeko kuido-
rik gabetanikan.

- 9/ Potreta zuri bial-
tzia gogoratu,
zuk diozu ez nauzula
arraz ezagutu;
ortaz ditutzu bertso
berriyak paratu,
osaba zarra one-
ri farrez kantatu...
bota nai adinkuak,
ez naiz ikaratu!
- 10/ Esan dezu gaztia
nagola oraindikan,
ikusi uste dezula
berriz Amerika'n,
ez lana ori pensatzen
ari alperrikan;
konsejuak nai ditutzu-
la nere abatikan...
zuk ez dezu geiago
maestro biarrikan. (2)

(2) Paulo Yanzi'ren eskuz-idatzietatik artuak.

**IKARAGARRIZKO GERTATUA
PAULO YANZI'K BANATUA
URRIKI TA IRRIRAZ MOLDATUA
(Lesaka'n, 1947'ren Feriak)**

«Lesaka'ko erriak baditu aunitz auzo, eta batek izena du Zalain. Zalain'go auzoa da Bidaso bazterrean ezkerreko aldetik, eta eskuiñeko aldetik da Bera'ko erria. Auzo onetako yendeak yoaten dira meza entzutera Bera'ra, eta gauzak eroatera ere bai; ta nai zuten Bera'ko errira batu. Orrengatik izandu ziren izugarrizko diskusioneak gauza onen gaindik, bañan azkenaz Lesaka'k irauzi zun pleitua. Ta gu-re aitak bertsu ok yarri zitun ordun.» (1)

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

1/ Emetzi eun da berro-
gei eta zazpiyan,
okasiyo bat jarri
digute atian,
ebendako mesedetan,
gureztat kaltian;
jaun batzuek ez gaiztela
utzi biar pakian,
gizon abillak badira
Bera'ko partian.

2/ Ez ditugu sartu nai
beratar guziyak,
baizikan gaur agintzen
dauden nagusiyak;
eman dituzten pausuak
dirade ikusiyak,
bestena ebenganatzen
ziraden asiyak,
bi auzokin naizikan
Lesaka'n mendiyak.

3/ Bi auzotako jendia
zeukaten deitua,
egun batez jokatzeko
plebiszitua;
Lesaka'ren mendiya
nai zuten kitua,
jabia biarrikan
zeguen listua,
meidi-gañatik artzaiak
jo dio ziztua.

- 4/ Guzion gidaria
da jaun bat bikaña,
jakinduriya badu
deabru batek aña;
auzo politak Alka-
iaga eta Zalaiña,
andikan erditxi nai
mendiyaren gaña;
or ezta baliatu,
abilla da baña.
- 5/ Jauna orren maizterrak
lenik abiatu,
bezindadia ezik
naizik kanbiatu;
nagusi jauna orrek
zituen giatu,
beste geiago ere
zituzten billatu,
jakinduri denakin
ezta baliatu.
- 6/ Beste jaun batzuek ebilli
dirade bidian,
gure mendiya oiek
kentzeko idian,
egon nai ez dutenak
Jainkuen legian,
arriya tira eta
eskuak gordian...
artzaiak ikasi du
oriyek nor dian.

7/ Bi auzuak egiteko
Bera'ra bisita,
botutan jokatzeko
egifia zen zita,
Beratar izateko
an irabazita;
orain zertaz gelditu
martxa artan asita?
nai duena juaten al da
guriak utzita!

8/ Gauzak diren bezala
ditugu esango,
jaun oiek asko agindu
diotela emango;
bestiak ere itza eman
diradela juango,
izan ezkeroztikan
Baldrun eta Otxango...
preziyua orretan
ez dituzte izango.

9/ Zalaiñ ta Alkaiaga'n
zeratenak bizi,
zuetik askok Bera'ra
juan nai igesi;
idea txarra orretan
zeratenak asi,
orra oraiñ bertsuetan
guk adiderazi,
ez dezutela euneko
amar irabazi.

10/ Gizon jakintsu oiek
dirade saiatu,
Lesaka'ren mendiyak
biarrez mugatu,
Bidaso'tikan gora
naizikan aldatu;
isill zabiltzan baño
artzaiak sumatu,
txaskoren bat bitarti-
an zaio gertatu.

11/ Muga egiten asiyak
ziran ala traza,
Tellegi'tik asita
andik Endarlaza,
errek'artik aurrera
etzaitezken pasa;
lan au etzaio ateri
uste beziñ aisa,
egña zutelakoz
kalkulo eskasa.

12/ Obe zenduten eskeintz
ona egiñ aurrez,
kitua izatia
ez da orren errez;
ageriyan gertatu
uste zana gordez;
oraingo aldiko zuen
ibillera elbarrez
jende guziya dago
gaur zueri farrez.

13/ Zertako dira gizon
batzuen jakintzak?
engañatutzekotan
gezurrezko agintzak;
Lesaka'n dauzkagu lu-
rra oriyen giltzak,
pakian laja gure
mendi ta aritzak,
errespetoz ikasi
Jainkuaren itzak.

14/ Au erakusten digu
Jainkuen legiak,
ondo begiratzeko
ondasun geriak;
gauza itsusia jartzia
bestenak beriak,
itza ok esaten ditu
egiazko Jabiak,
mugak jarriyak daude
lengo aguriak.

15/ Ez genduen siñesten
orrelakorikan,
zuek lana ortan asi-
ko ziñatenikan;
bide ortan ibiltzia
dezute alperrikan,
ez degu utziko jartzera
oitura txarrikan,
ez degu Rusia'ko
egite biarrikan.

16/ Ibilli gabetanikan
bat bestien kaltian,
goxo-goxo elkarrekin
konpondu gaitian;
okerrarik baldin bada-
go gure artian,
zuzenduko gerade
itzaldi batian,
lendabaiziko modu
on bat izatian.

17/ Gure esanak ez nai-
zikan obeditu,
Madrid'ako bidian
zenduten segitu;
arrazoiak beti bere
bidiak baditu,
ango diktamena dezu-
tenian aditu,
buruak makurtuta
zerate gelditu.

18/ Zuek lana ortan eman
dituzuen pausuak,
erriyan oroipengarri
daudezi jasua;
beratarrakiñ zinduzten
konfianza osuak,
orain nola gelditu
zerate, gaizuak?
berriz guretzat mendi-
yak eta auzuak.

- 19/ Beratar izateko
zatenak jaiuak,
lana orretan egiñ
ditzute ensaiuak;
orra oraiñ idekiak
ate eta leiuak,
baita ere zuen eskuko
ango kamiyuak,
zuazte eta kunplitu
zeben deseiuak.
- 20/ Zeñ muga ederra egiten
duen Bidasua'k,
aspaldian jarriya
lengo gurasuak;
orain jakindu dezaten
muñ gabeko batzuak,
orra orrelakuentzat
guk jarri bertsuak,
ia ixiltzen ote diran
jende berritxuak.
- 21/ Bidaso'ko muga oiek
eman dituzte lanak,
zeren diraden beti
guriak izanak;
ori aisa ezagutzen du
txorua ez denak,
oiek Bera'ko erriyari
eman nai zioztenak,
denak baduzke gurekin
konforme ez daudenak.

22/ Dotia eramen nai zenduten
ta bestenatikan,
ala erakutsiyak
Bera'ko erritikan,
zerbait ateri ustian
gure menditikan;
ezer gabe etzuten
zuen biarrikan,
lagundu dizue baña
ez zuengatikan.

23/ Planua egiña zen-
duten lendabaiziko,
baita mugako arriyak
denak lau eskinko;
uste bezala ez dituzte
Lesaka'n jarriko,
lana ori guk ez degu
ezertan utziko,
ondo gorde zatzute
Bera'ko erriko.

24/ Zuen burlak aditzen
gu egondu gera,
orain nai badegu egiñ
badaukagu aukera;
zueri ikasia degu
burlosuen izkera,
orain guk kantatzen al de-
gu: *¡Toca madera!*
¡Zalaiñ y Alkayaga
no serán de Vera!

25/ Zuen traiziyua ori
genduelarik jakiñ,
guk ere ibiltze bat
gero degu egiñ;
zuek gelditu zerate
ezkenduen ustekiñ,
guk geria defendi-
tu degu beñepin,
gora alkate jauna
bere lagunakiñ! (2)

(2) *Bertso-papera*, "Editorial Leyre.—Tel. 2374.—Pamplona", Paulo Yanzi'k berak emana. Guri emateko, zenbait bertotan ikutu batzuk egin zizkan paperari Yanzi'k berak.

(1948 urte inguruan)

NESKA GAZTE BATZUEI

«Orain dela ogei bat urte, Lesaka'ko errian soldaduak zauden denboran, neskek militarrakin zabiltzan. Ta *Acción Católica* formatu zan, ta aunitz neskatxa an sartu ziren. Bañan batzuk, elizako denboran santaren moduan egon, ta, andik ateritakoan, len bezela soldadu, sarjento edo billatzen zutenakin ibilli. Ura ikusirik, Paulok bertsu ok paratu zitun. (1)

1/ Bertso berri batzuek
nai nituzke atera,
ikusirik oraingo
neskan tankera;
goiko Jaunan ordenak
botarik oiñ-pera,
eben kapritxuakiñ
dijuaz aurrera;
oriyen janzkera
modazko aukera;
nua esatera
gutxi gora-bera
damatxo gaztia o-
ien ibillera.

(1) Salvador Etxarte'k. Bertsoak, Pauloren eskuz-idatzietatik artuak.

2/ Nonbait billatzen dute
nai duten klasiya,
naiz izan askondako
neurritz pasia;
erakusten dabilta
daukaten graziya,
aragiyak ageri
oien fantasiya;
oraingo eskasiya
dute ikasiya,
gisa ortan jantziya,
zer eleganziya!
orrelakuan etxian
zer desgraziya!

3/ Jendiak ala dio
batzuen auzotik,
neu're erreparatu-
a naiz geroztik:
geienak dabilzala
katiak lepotik,
ezpañak pintatuak,
pulserak besotik;
ordaintzera ondotik
norengo xokotik,
batzuek gogotik
andik edo ortik;
ortako ateriko da
estraperlotik.

4/ Jotzen asi orduko
elizako ezkillak,
bidian ikusten dira
alako pillak;
alde guzietatik
nolako kuadrillak,
ojua daditela
oien eskanbillak!
buelako isillak,
utziyak naspillak,
jeniyoz umillak,
izketan abillak,
biltzen dituzte eben gus-
toko mutillak.

5/ Batzuek sartu dituzte
elizako praktikan,
lagun gaiztotik alda-
tziagatikan;
zintzillikan jarriyak
zintak lepotikan,
otaz gañera insij-
niak petxotikan;
Acción Católica'n
ta apostolikan,
ala ere ondotikan
dabiltz gogotikan;
ezerengatikan e-
tzaio ajolikan.

6/ Igandero goizetan
lenbaiziko elizan
kunplitzen dute kristab
fiñaren gisan;
gero arratsaldian
dibertitu plazan,
fandangua utzita
geienian balsan;
jendiak naiz esan
ajol gutxi izan;
mutillakiñ salsan
zokotako dantzan,
asko pensatu gabe
nola dabilizan.

7/ Pruebak ere badira,
ez denak esanak,
ikusten diradela
mendirra juanak;
modu itxusiyetan
lurrian etzanak,
egiten gorputzaren-
tzat gustoko lanak;
orra oien famak,
erne egon, jaunak,
obe ez izanak
orrelako damak;
zer suertia oieta-
tik libre danak!

8/ Erriyan badauzkagu
neskatxa jatorrak,
ageriyan dabilta
belaun-kozkorrak;
ez dizkiyo estaltzen
soñeko atorrak,
iya erakutsiyan
sekretuko obrak;
ageri pantorrak,
eze'do idorrak,
enpeño gogorrak,
dantzako pizkorrak,
plazan ariñak lane-
rako sendorrak.

9/ Gauza ederra ibiltzia
bat bere neurriyan,
ez ordian orrela
lasaikeriyan;
umian moduz jantzita
dabilta kalia,
lotsa geiago gabe
eben arpegiyan,
jiraka periyen,
jendian aurrian,
plazaren erdiyan,
janzkera urriyan,
eben sekretuak i-
ya ageriyan.

10/ Illiak kuzkur jarri
itxura arrokuak,
permanentiak dira o-
ien gogokuak;
ortikan bera berriz
beren lepokuak,
seda fiñaz egiñak,
konfiantz osokuak;
neska eroskuak,
odol berokuak,
orai orlakuak,
gero nolakuak?
zer ikasi biar dute o-
ien ondokuak?

11/ Probatutzen dabilta
daukaten indarra,
eziñ aplakaturik
eben sukarra;
geienak orla dabiltz
sua eta garra,
formalak izateko
alderdi elbarra;
artu bat azkarra,
atzera utzi txarra,
bertakuari farra,
betor militarra;
zeñ dan onena dute
autatu biarra.

12/ Besteri garbirazi
etxeko zikiñak,
eurek konserbatu idu-
ri Ama Birjiñak;
lanako artutzen di-
tu buruko miñak,
oyian pasatu nai
rato atsegiñak;
onak esamiñak,
tranpaz irakiñak,
oien mediziñak
kolonia fiñak;
jaiako sendatuak
ariñ-ariñak.

13/ Beste oiek bezala
señorita fiñak,
oiek ere badituz-
te eben griñak;
lana ematen diyo
sendatu eziñak,
gorputzara azaldu-
tzen zaizkiyon miñak;
tankeraz berdiñak,
aragiz egiñak,
momentu jakiñak,
etan alegiñak;
aldarian jartzeko
zer imajiñak!

14/ Kaleko edo baserri,
neskame ta jostunak,
ez parterik artu kul-
parik eztunak;
umiaren antzera
jantzirikan gonak,
azpitikan ageri
dituzte belaunak;
gaurko solteronak,
erne egon, gizonak,
pasa leizke onak
oiekiñ egunak;
biziya ateratzeko
ai zer lagunak!

15/ Nik ez nuke sartu nai
guziyon konduta,
ez det txarrik eman nai
ona kenduta;
nola batzuek dabiltzan
bide onak galduta,
oriyek zuzentziaz
nengoke poztuta;
mutillak artuta,
tasketan sartuta,
naikua zurruta,
joradak bilduta, (*sic*)
eben onradeza gu-
ziyaz anztuta.

16/ Neska gaztia oien
atarramentuak,
naiz gero ebentzat i-
zan tormentuak:
soldaduak adiskide
baita sarjentuak,
alferez ta teniente
ondo presentuak; (2)
mutill atentuak,
oien kontentuek
paseatu yuntuak,
onak momentuak;
gero izaten dira
beste kontuak!

17/ Modu ortan badirela
erriyan ugari
alako person batek
esan dit neri;
zer gertatutzen zaion
orrelakuari?
egiya eziñ esanaz
aitari ta amari,
jartzen dira eri,
koloriak zuri,
gorputzera lodi,
mugimientua nagi;
geiago plaza aldian
ez dira ageri!

(2) presentuak: presentatuak.

18/ Orra dama gaztia
oientzat bertsuak,
euerk jarri dituzte-
lako kasuak;
oriyek ere eben
kontuak gaxuak,
gaztetan nai pasatu
momentu goxuak;
zabaldu besuak,
elkarri musuak,
jeniyoz lasuak,
orrela pausuak;
etxian negarrez o-
ien gurasuak!

BETI-GAZTE'RI

«Lesaka'ko errian bada futboleko ekipua, *Beti-Gazte* izena duena. Lau edo bortz urtez nagusi egon zen ekipo au. Eta urte batez bertsu ok paratu zitun gure aitak *Beti-Gazte* orrentzat.» (1)

1/ Aurtengu ontan berriz badegu
ordu on aundiya,
ordu on aundiya,
pozaz beterikan dago
Lesaka'ko erriya,
Beti-Gazte'k ekarri duelakoz
kopa bat berriya,
kopa bat berriya.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

- 2/ Kanpeonatuan sartua bazan
asko jende-mota,
asko jende-mota,
Beti-Gazte au oñ-pera
nai zutenak bota,
bañan aurten onek irabazi du
fronterako kopa,
fronterako kopa.
- 3/ Fronteran aurten gertatu zaio
etzutena uste,
etzutena uste,
asko badira jarriyak
makiña bat naste,
guziyongatik zuek aurrera,
aupa *Beti-Gazte!*
aupa *Beti-Gazte!*
- 4/ Amar partidatik bat berdindu,
zortzi irabazi,
zortzi irabazi,
asko ziran bide ori
nai zutenak galazi,
guziyon artian *Beti-Bazte*
eziñ atzerazi,
eziñ atzerazi.

5/ Ori eziñ eramanez asko
gizon ta emakumiak,
gizon ta emakumiak,
itz itxusiak ojuka
jende infamiak;
ok dirade zuek zaten beziñ
ama onen semiak,
ama onen semiak.

6/ Kanporat ateri orduko
itzaz maltratatu,
itzaz maltratatu,
oriyek nai zutena da
Beti-Gazte oñ-peratu;
egiñal egiñak dira bañan
ez dute paratu,
ez dute paratu.

7/ Gu orai esatera guazi,
nai dutenak jakiñ,
nai dutenak jakiñ,
—bestiak asko esan dute,
guriak ixillik egiñ—:
Beti-Gazte aurten etorri zaigu
kopa eder batekiñ!
kopa eder batekiñ!

8/ Gipuzkua'tik Errenteri ta
baitare Ondarrebi,
baitare Ondarrebi,
Irun'dik ere baziran
beste ekipo bi,
Naparro'tik Bera ta Lesaka...
au kanpeon ateri!
au kanpeon ateri!

9/ Lesaka'ko erriko *Beti-Gazte*
onen mutikuak,
onen mutikuak,
denak dirade zauliyak,
indar aundikuak,
ez ditu edoziñek gelditzen
oken ostikuak,
oken ostikuak.

10/ Gu aurten pozaz beterik gaude,
bestiak an konpon!
bestiak an konpon!
guk oju egiten degu:
aliron, aliron,
fronterako kopa irabazita
Beti-Gazte kanpeon!
Beti-Gazte kanpeon!

11/ Periodiku oriyetan neurriak
artu zituzten laster,
artu zituzten laster,
bañan ateri zaizkiyo
oiek esanak oker;
pozaz beterik ez dira egongo
Gale eta Riber,
Gale eta Riber.

12/ Gaztia ok ebekiñ batian
Beltxa zuten lagun,
Beltxa zuten lagun,
guziyon onran besta bat
denak egiñ dezagun,
ia onat kopa eder ori,
ortik edan zagun,
ortik edan zagun.

13/ Santos Goienetxe ori're
ekipuan gazterik,
ekipuan gazterik,
oraindikan ezpaiditu
amazazpi urterik,
adiña orretan ez dago
portero oberik,
portero oberik.

14/ Bitoriano Mazizior da
 ekipuan zarrena,
 ekipuan zarrena,
 ogei ta bost urtian
 ostikoka ari dena;
beste zure lagun guziyokiñ
 agur, Beltxa jauna!
 agur, Beltxa jauna! (2)

(2) Paulo Yanzi'ren paperetatik, makinaz idatzitako orri batetik artuak.

GARZIARENA TA KORTA (1)

Doñua: Oiartzun'go garbantzo jaliena.

1/ Itz neurtu berriyak jartzen
ni orai naiz asi,
zerbait esango det nai
badezute ikasi;
zar ta gazte bat dituzte aiz-
korian jokarazi,
gipuzkoano ta naparrak
joku ortan dira nasi,
napartar gaztiak dio
zarrari irabazi.

2/ Napartar gaztia ori da
Martin Garziarena,
Azkoiti'ko Korta'n aurka
orai jokatu dena;
zarra orren alde zagon
jendia geiena,
txarrena ateri zaio
onena uste zena,
galdu duenak orai
biotzian pena.

(1) Garziarena ta Kortaren apustua, 1949 urteko Ilbeltzaren 23'an jokatu zan.

3/ Korta zen aizkorian
guziyon erregia,
aldi ontan inon ere
parekorik gabia;
orai Leiza'tik ateri
gazte ori obia,
ogei ta bat urtekua,
oraindik nerabia,
gorputz sendo eta bular
azkarren jabia.

4/ Martin Garziarena,
Leiza'ko umia,
gazte bular sendoko,
gerriyaz ere mia;
egurren gañian zauli,
iduri du zumia,
azkar mugitzen badaki
baldin badu premia,
aita eta ama euskaldun
jatorren semia.

5/ Bereziak zituzten
amaseina adaki,
jokua zuten ok zeñek
lenago ebaki;
aizkoraren ibiltzea
Korta'k ondo badaki,
gaztia ere ebakiyaz
bera orrekiñ juaki,
bestetan ere amaren
semiak izaki.

- 6/ Ez da zuen berdiñikan
ez Norte ta ez Surrian,
lana ori egiteko oñ
denbora lagurrian;
amaseina enbor ebaki,
denak bago-egurrian,
bat bestien aldame-
nian derrigorrian,
edoziñ jartzeko ezta on
zuen biyon aurrian.
- 7/ Bi bulartxo atera zate
jende askoren aurrera,
amasei kana-erdiko
zeñek lenago moztera;
berrogei ta amalau minutoz
bota ditzue lurrera,
zuek bezalakorik ezta
joku ortarat atera,
Korta ori ona da baña
zu gutxiago etzera.
- 8/ Bertso ok etzatzutela
iñork gaizkitzat artu,
ideaz ez nuke nai nik
besterikan mendratu,
baizikan gaztia ori
nai nuke goratu,
asi bezala baiditu
ebaki danak bukatu,
orrelakorikan ezta
iñon ezagutu.

9/ Asi eta bukatu arte
egia zaude gogor,
azkenian oraindi-
kan kopeta idor;
kana-erdikuak ebaki
ditutzu amasei onbor,
ogei ta bat urtekua
beste bat oinbeste nor?
ematen al dizute askok
lana orretan amor!

10/ Ogei ta bat urtekua,
oraindik gazte guriya,
norbaitek eman diyo
nerabe orreri giya;
gazte delik badauka
gizontasun aundiya,
Korta'n aurka egiña da
joku izugarriya.
fenomenua jarri di-
ote izen berriya.

11/ Parerik gabia dela
askok dute aitortzen,
jokuan etzuela kope-
tarikan idortzen;
ikusiya zuten baña
etzekiten nor zen,
yaunaren yaunak dirade
mundu onetan sortzen,
zarran ondolik beti
gaztiak etortzen.

12/ Alai egoten al zerate
Leiza'ko errikuak,
orainguan gelditu zate
sona aundikuak;
amasei egur ebaki
kana-erdikuak,
gañera ateri dira uste
ziranak azpikuak,
naigabe asko eman ditu
zuen mutikuak.

13/ Esaten ari naizena ok
ez dirade gezurrak,
Tolosa'n gertatu dira
uste etziran makurrak,
ta zuzentzeko ziraden
añ denbora lagurrak;
gaztiak mugitu ditu
zañak eta ezurrak,
lenbiziko moztu ditu
bere amasei egurrak.

14/ Gizonak orrenbeste lan
egĩñ lezakela,
joera ori egiñ duena
ezta jende motela;
ezagun da jan dezutela
arraultze asko ta okela
denbora gutxiz moztutzeko
amaseina egur orrela,
Jainkuak urte askuan
ondo zaitu zaiztela!

15/ Tolosa'n joku ori ikusten
badirade izanak,
askon aurrian egiñak
zerate zeben lanak;
ortaz zuentzat dirade
orai nere esanak:
ezagun da zuek zatela
bular onak edanak,
Jainkuak bedeika detzala
zuen aitak eta amak!

16/ Oroipengarri izango da
urtian lenbiziko illa,
noiz izandu den Tolosa'n
Leiza'ko mutilla;
ikustera juana bazan
ura ango jende-pilla!
ori esan gabe eziñ naiz
ni egon isilla,
Euskalerra guzian
jakindu dedilla.

PELOTA-PLAZA BERRIA

«Orai dela amabortz bat urte, Lesaka'ko Zalain auzoan pelota-leku berria egin zuten. Lendabaiziko, partidu au izandu zen: Antonio ta Vitiri, Fagoaga ta Erro'ren kontra.» (1)

1/ Bertso berri jartzeko
naute enkargatu,
gusto orren egitera
biar det saiatu;
nola fronton berri bat
den inaguratu,
ango pasadizua
biar dela kantatu,
Zalañ'go auzo ori
naizikan goratu.

2/ Apirillaren laua zen
igande-eguna
Zalañ'ara jua eta
pasatu genduna;
musik-soñu ederrakiñ
baitare ttunttuna,
ango gazte dantzari-
en edertasuna,
bazagon soñu alai
ok zeñek entzuna.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

3/ Trena baten betian
jende asko jua zan,
beren oñez ere juanak
beste asko bazan;
irrintzi eta kantari,
asko berriz dantzan,
izugarrizko dibe-
siyua izan zan,
ikusi etzan ainbeste
auzo artako plazan.

4/ Lenikan jokatu zen
pelot-partidua,
ikustiagatik bazen
jende asko bildua,
uste det bazegola
naiko motibua;
ikusi zanian Anto-
nion latigua,
laster zarra orren alde
jarri zen dirua.

5/ Antonio Vitiri'kiñ
mallaz ez da jatxi,
beste aldetik ziraden
Erro eta Patxi;
Antoniok joz paretak
nai zituen autsi,
bere abillidadiak
ditu erakutsi,
zartu eta're orrentzat
kontrariyo gutxi.

6/ Beste ikuskizuna
ezpat-dantzariak,
poza artu zuten auzo ar-
tako gazteriak;
bertako neskatx bikafiak
parerik gabiak,
edoziñen aurreko
egoki jantziyak,
oiekiñ ateri ziran
zortzikolariyak.

7/ Lenikan zortzikua ta
gero fandanguak,
lengo zarra aien oiturak
ez dira orainguak;
ariñ aski goratuaz
bastante zanguak,
agertu bitartian
gona-barrenguak...
azkar mugitzen ziraden,
etzauden mainguak.

8/ Aniko'n etxian zuten (2)
askondako jana,
neskatx gaxua aiek
egiñ zuten lana;
asetziagatik bazan
asko arat juana,
etxe orrek badauka
aspaldiko fama,
kontentuz ateria da
andik jende dana.

(2) Aniko, Zalain'go tabernari bat omen zan; illa da.

- 9/ Bi aizpak aritu ziren
mai denak serbitzen,
lan ederra izandu zuten
ainbeste ornitzen;
arat eta onatian
etziran gelditzen,
biar denian badakite
zanguak mugitzen,
ikasiak dirade
ariñ aski ibiltzen.
- 10/ Iturri'n etxea ori (3)
leku sonatua,
asko gazteri badago
an kafia artua;
kontua galdetu eta
dena pagatua,
neskatx gazte artaz bada
asko gustatua,
izango da moñoñ ori
zeñek eskatua.
- 11/ Gauzak esaten ari naiz
biar den bezala,
Oletxe orretan ere (4)
da jende leiala;
eguna aretan egiñ
zuten egiñala,
esan dute an ezere
faltikan etzala,
maian jarri orduko
jana beriala.

(3) Zalain'go beste ostatu bat.

(4) Oletxe, auzo artako etxe baten izena da.

- 12/ Jan ta edan naikua ta
ondo serbitua,
ainbeste gizonendako
badu meritua;
ezenen faltik etzala
daukat aditua,
jendia oso konforme
dela gelditua:
gutxi pagatu eta
ondo ornitua.
- 13/ Agur, presente ziñaten
autoridadiak,
militar eta paisano
baita abadiak,
agur, pelotari ta
ezpat-dantzariak;
jango ziñuzten nik baño
bokado obiak,
on dizutela denari
ango bazkariak.
- 14/ Agur Zalañdar denari,
beste bat artian,
Jainkuen graziyan bizi
zaitezte pakian;
amoriyua daukagu
biotzan betian,
poza artutzen degu
zuek ikustian,
berriz juango gerade
datorren urtian. (5)

(5) Pablo Yanzi'ren eskuz-idazkietatik artuak.

(1948)

BIDASOA'KO KOPA

1/ Emetzi eun da berro-
gei eta zortziyan,
Donosti'tik jarri gaiz-
te mugida aundiyan,
kopa bat jokatzeko
Bidaso guziyan;
sartzera gertatu da
Lesaka'ko erriyan.

2/ Esatera nijua
aurtengo asuntuak,
ostikozko pelotan
baziran kontuak;
izpirrintan jarriyaz
gol eta puntuak,
erniak gertatu, uste
ziranak tontuak.

3/ Parte artu du Baztan
ta Bidaso osuak,
bañan alperrik eman
dituzte pausuak;
Lesaka'n daude bi ko-
pa eder jasuak,
otik edan ditugu
edari goxuak.

4/ *La Voz de España*'n kopa
askok zuten maite,
Lesaka'ra ekartzia
iñork etzuen uste;
denak nai zuten baña
zuek jabe egiñ zate,
aurtengua zuentzat,
aupa *Beti-gazte!*

5/ Denak nai zuten baña
etzekiten nola,
Lesaka'ra etzuten
utzi nai iñola;
baño fuerte egoki
Beti-Gazte'n odola,
Beltxak sartu du azken
triunfuko goal.

6/ Bigarren kopa eman du
Gofi biajantiak,
ontan etziran sartzen
estudiantiak;
ez dira lo egondu
Lesakar gaztiak,
*Beti-gazte'*ntzat aurten
bi kopa maitiak.

7/ Naparro'tik lau ekipo,
Gipuzkua'tik iru,
denak naizik puntuak
goi aldian eldu;
bat bestiak atzera
naizikan bialdu,
*Beti-gazte'*k irabazi,
beste denak galdu.

8/ Lekaroz kolejioko
estudiantiak,
Elizondo'tik ere
mutill balientiak,
Bera ta Irun'dikan
ekipo fuertiak,
Lesakarrak jo ditu
aurten suertiak.

9/ Elkarrekiñ neurtu di-
ra Bidasotarrak,
aurtenguan nagusi
dirade naparrak;
gora Lesaka'ko amai-
ka mutill azkarrak,
premiyuak merezi
ditu Beltxa zarrak.

10/ Beltxa urte askokiñ
plazara seriyo,
balonari korajez
segitutzen diyo,
animo aundiyakiñ,
gañera baliyo;
kopa irabazi da
au dela mediyo.

11/ Ez ditut bistan jartzen
bestien izenak,
batzuek dirade aundi-
yak eta gizenak,
xutalari bizkorrak
ta mutill zuzenak,
ok alai daude baña
jarri dituzte penak.

12/ Eskerrak asko, Goñi
ta *La Voz de España*,
mugirazi dezute
gizaldi bikaña;
bestetan mutill bizko-
rrak badira, baña,
Beti-gazte'k egin du
aurtenguan azaña.

13/ Denak nai zuten baña
los nuestros ganaron
Bidaso'ko errekan
campeonato de balón;
edaten ari gera
de este gran copón,
bulartsu oju egiñez:
Beti-gazte campeón!

14/ Agur on bat denari,
biar det bukatu,
nere esana ok ez
gaizkirako artu;
itz okiñ nik ez nuke
nai iñor mendratu,
gaizki esanik bada
faborez barkatu. (1)

(1) Pablo Yantzi'ren eskuz-idatzietatik artuak.

GAZTETIK ZARTZERA
DIFERENTZIYAK
PABLO YANZI'K JARRIYAK

«Bertsu ok dire 1953 urte inguruan yarririk. Egondu zen denbora aundi bat gure aita reumak yota, bai eta ere Fitero'ko urak artzen. Gero yarri zen ongi, bannan beti izandu zun besuetan eta zangoetan reuma. Ta orduan erraten zun berak:

—Ainbertze urte Ameriketan, zaldiganean, pillotan eta laisterka, ta beñere ez dut deus ere izandu; eta orai asi zaizkit ajiak eta reumak, ta emen nago ezin mugituz!

Gauza au dela medio, paratu zitun bertsu ok, batek zer sentitzen dun gaztetik zartzera.» (1)

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

1/ Lenago gazte giñan,
orai gaude zartuak,
juan ziran gure dantzak
eta kantuak;
ibilli eziñ eta
nola egiñ saltuak?
jostaketa oriyek
dauzkagu anztuak;
zentzuan sartuak,
beldurrak artuak,
gauz onen naituak,
laguntzaz biartuak...
non dirade gure len-
go espantuak?

2/ Egiya da, lenago i-
zanak gera gazte,
au gertatuko zanik
ez genduan uste;
arro ibiltzen giñan,
bai, jai eta aste,
gero lotsatutzen a-
si giñan bitarte;
zentzua aparte,
guretako kalte,
orai dena bake,
ez len aña naste;
anaitasun ona o-
ri degu maite.

3/ Lenago arrokeriyan,
orai nekez nabill,
geiago ere badira
lana ortik urbill;
laguntza biarko degu
bastoi edo makill,
gaztetan ez giñaden
orai beziñ sotill;
neskazar ta mutill,
gaizo edo abill,
len ainbeste naspill,
orai zertaz umill?
erotasun artan be-
ar genduke ill!

4/ Gaztetan konsejorik
ez genduen aditzen,
denak gezurrak zaizki-
gun iduritzen;
gerokua oneri ez
gendion begitzen,
lasaikeri aundiyan
giñaden ibiltzen...
gero zer da arkitzen?
indarrak gutitzen,
ajiak sentitzen,
asiyak nagitzen...
orai aurrari neurrian
gera gelditzen.

5/ Lengo denbora etan
gure alegrantzak,
gaztiaren aban be-
ti alabantzak,
burutik eziñ kendu
jaietako dantzak,
tiratzen beti maiten
baten semejantzak;
orai anztu balsak,
plazetako salsak,
bat bestien antzak,
galdu esperantzak...
gaztetik zartzerako
ai zer mudantzak!

6/ Zarraren izatia
orai det nik neurtu,
gaztia oriyek di-
tezen beldurtu,
denbora dalik zentzu-
an ditezen sartu,
ta zuzeneko bide-
tan ibilli gertu;
gu gerade zartu,
itxuretan txartu,
gorputza igartu,
asko gera elbartu...
orai ondorat nork bi-
ar gaitu artu?

7/ Uste etziran ajiak
zaizkigu azaldu,
etorri dira eta
eziñ bialdu;
gaizto bagiñan ere
orra ederki ondu,
obe genduen len au
pentsatu bagendu;
indarretan auldu,
animuak galdu,
latzak gera izandu,
zartzerako leundu...
orain erruki degu
bañan berandu!

8/ Zarraren konsejuak,
gaztiak, aditu,
ejenplua oneri
ondo segitu;
etzaiztela kaso e-
giñ gabe gelditu,
ezpadezute nai on-
dotik errukitu;
ez sobra aunditu,
denboraz mugitu,
geroko begitu,
gaztia, entenditu;
zartzia onek lan aun-
diyak baditu.

9/ Bat ezpada akordatzen
sasoia denian,
gero errukitan den-
bora juanian;
guk ori egiñ bagendu
gazte giñanian,
pen'au etzan egongo
gure barrenian;
orai azkenian
bide zuzenian,
biar den legian,
zartu garenian...
asko gaude jarriyak
besten mendian.

10/ Ondo dakieneri e-
giñ zazute galde,
ark esango dizute
egiyan alde:
denborarik ez pasa-
tutzeko debalde,
sasoia juan ta gero
zentimo bat gabe;
asko orla gaude
orai besten mende;
gaztia, izan trebe,
au zuentzat obe:
zartzian izan zeben
buruan jabe.

11/ Orra bada, gaztiak,
jarri erreparatzen,
zartzerako zer gauzak
diran azaltzen;
gu ia ari gerade
guziyak pasatzen,
zuek lan ori bera al
dezute esperatzen?
ari zate zartzen,
ikasi barkatzen,
egite onak artzen,
txarkeriyak uzten,
ta ez ibilli bazter
guziyak nasten.

12/ Lenago ameka ta
onekiñ dozena,
zarraren gertaera
oken azkena;
gaztetan artu zazu-
te bide zuzena,
itz ok obeitutzia
dezute obena;
gaztian izena
adiña ortan dena,
ikasteko ordena
zarran oroipena;
orai gure aldiya da,
sarri zuena. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. Macazaga — Rentería",
Paulo Yantzi'k berak emana.

Pauloren eskuz-idatzietan ere arkitu ditugu bertso
auek, bañan aldaketa auekin: 3/9: neskatz eta mutill;
6/11: gerriyak meartu; 6/12: gorputza igartu; 7/13:
erruki orai degu; 8/11: biotza ukitu; 9/10; gizonan
legian; 9/11: bide zuzenian; 9/13: jarriyak emen
gaude; 12/11: ikasi ordena.

FABRIKA BERRIA

«Denbora batian, Lesaka'ko gaztiak yoa-
ten ziren Ameriketara ta Frantzira lanera,
lanik etzagolako Lesaka'n, eta erria asi
zen gelditzen gazterik gabe. Ordun asi zi-
ren fabrika bat paratu bear zutela Lesa-
ka'n. Ayuntamentuak eman zitun, fabrika
egiteko, bi milloi pezeta, ta asi ziren lu-
rrak erosten ere. Ta batzuk baziren fabri-
ka nai zutenak, ta bertze batzuk etzuten
nai. Ordun pixka bat nasi zen erria. Ta
gure aitak paratu zitun bertsu ok.» (1)

1/ Bertso berri jartzeko
badegu baimena,
orai da momentua
abiyan garena;
nola dagon nasia
Lesaka geiena,
esatera guazi
gertatutzen dena.

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

2/ Jaun bat orai iru urte
izandu zen lenbizi,
fabrikan deseiua
zuen adirazi;
lur asko nai zuen eta
erri dena nasi,
azkenian juan zen
emendik igesi.

3/ Gero beste batzuek
ziraden azaldu,
fabrikandako lurrik
nai ote zan saldu;
erriko etxera gazte-
ri aundiya bildu,
propuesta berri ori
etzela biar galdu.

4/ Ondotikan sesione
ta asko beintanak, (2)
etan agertu ziran
konforme etzirenak;
oiek ziran pozoia
gordian zaukatenak,
ez dira goxo egongo
jaun oien barrenak.

(2) Erriko agintarien batzarra ta billerak.

5/ Deitu orduko zuzen
sesionetara juan,
gizonaren moduan
konformidadia eman;
urrengo aldiyan berriz
lengo itz onak jan,
badakigu orrela
zeñ ibilli diran.

6/ Etzan uste lan ori
zela ikusiko,
aurrera egin biarrian
atzera ostiko;
gizonan izenakiñ
gertatu mutiko,
señalatuak dira
erriyan betiko.

7/ Zer nolako kristabak
dauzkagun errian,
beti sartuak daude
Jaunaren aurrian;
arriya tiratuta
eskuak gordian,
Judas aundiyagorik
ez dago lurrian.

- 8/ Gaizki egitea ori
batzuek dute maite,
kristabaren legia
ez dute nai bete;
erri bateri egin nai
orrenbeste kalte,
Jaunaren barkamenik
oiek ez daukate.
- 9/ Nolakuak geraden
eziñ laiteke esan,
batzuek ez dute egon nai
emandako itzan;
ustez seguro ziran
lurrak eziñ izan,
satorrak azpiyatik
lanian zabiltzan.
- 10/ Ustez egin ta onduan
lurraren tratuak,
batzuek pozoitasunez
berriz dudatuak;
diro geiago eskeintzen
gabaz mandatuak,
ezpaidituzte bide
onez sobratuak.

11/ Gustatzen zaio bisi-
tatzia eliza,
andikan bueltan lo da-
gonari paliza;
obrak alde batera,
beste aldera itza,
aspaldiko denboran
orrela dabilta.

12/ Oien barrena dago
pozoiaz betia,
erri bateri egin nai
orlako kaltia;
agerian kolore bat,
gordian bestia,
posible al da kristaba
orrelakua izatia?

13/ Jende gaiztuak beti
pozoia berekiñ,
oriyek zeñ diraden
orai degu jakiñ;
juntatzen dira txiki
ta aundi elkarrekiñ,
orainguan ez dute
nai zutenik egiñ.

14/ Oiekiñ ezin laike
gastorikan ondu, (3)
izatezkero lengo
ona dena galdu;
jende bearrari ez
dute nai lagundu,
lana ori goguan
idukiko degu.

15/ Aurretik erosita
atzetikan saldu,
iñoren bide ona
al badute galdu
egille ona erri-
tikan nai bialdu...
orrelakuak siñes-
menturik bai al du?

16/ Lana orretan artu
dezutenak parte,
erriyan egin naizik
geienari kalte;
nai zendutena eginta
gelditu etzate,
gugatik urte askoz
biziko al zerate!

(3) Pauloren eskuz-idatziak orrela dio; bañan ez
al da *gaiztorikan ondu* izango?

17/ Batzuen menian gu
onenbeste jende,
nai dutena egiten
aritu dirade;
besterik aurrian jarri,
berak beti gorde,
bañan erriyan ondo
berexiak daude.

18/ Oien esanatikan
giatzen zirenak,
fabrika etzela egingo
esaten zutenak;
esan gabetanikan
zeñ diran izenak,
ondo ezagutuak
dira erriyan denak.

19/ Fabrika etzela egingo
ostatuz ostatu,
denari farra egiñez
dirade jostatu;
lana ori erriyan
etzaigu gustatu,
guk jarri orai bertsuak,
detzaten kantatu.

20/ Ez uzterat saiatu
dirade ederki,
erri dena menian
naizikan iduki;
oiek atiak etxi,
bestiak ideki,
giltza aundiyaguak
bestetan izaki.

21/ Oien ustez atiak
ondo ziran etxi,
bañan Konpañia onek
denak ditu autsi;
Lesaka'ra etortzera
etziuzten nai utzi,
ikusiko dituzte
biar edo etzi.

22/ Lesaka'tik besuak
urrutira arrika,
jaun ok beti aurrera
guziyongatika;
kantatuaz alaitu
dezagun karrika,
laster izango da-ta
Lesaka'n fabrika.

23/ Orra bertso batzuek
guk oientzat jarri,
zeren pozez gaudezin
kale ta baserri;
kanpotik gizon fiñak
errira etorri,
gora Bares Lili jaunak
ta Lizarriturri!

24/ Lesaka'ko gaztiak
nai degu adirazi,
goiko Jaunari emanaz
milla asko grazi,
ez-bayian pleitua
degula irabazi;
ta laster fabrikara
lanara guazi. (4)

(4) Paulo Yanzi'ren eskuz-idatzietatik artuak.

BERTSO BERRIYAK
 PABLO YANZI'K JARRIYAK (1)
 (LATASA TA LUXIA)

Itz neur-tusak jar-tzi-a zai-gu go-go-ra-
 zu zer-bait kan-tu bi-di-an nai-zi-kan pa-ra-
 -tu bi aiz-ko-la-rik al-ker nai zu-ten pro-ba-
 -tu: Do-nos-ti-ko ze-zen-pla-zan di-ra jo-ka-
 -tu, Do-nos-ti-ko ze-zen-pla-zan di-ra jo-ka-tu.

(1) Latasa ta Luxia'ren apustua, 1959'ngo. Apirillaren 28'an jokatu zan. Bi doñu auek, Salvador Etxarte'k kantatu ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik entzun da idatziak.

A-ma-lau kan'er-di-ko ta bi ka-na-ku-
 -ak, al-ka-rren pro-ba-tze-ko ba-di-ra nai-ku-
 -ak; lan-or-tan ez-du-te bear ke-men-ga-be-ku-
 -ak: bi-oki-zan-go di-ra bu-larr o-ne-ku-ak

- 1/ Itz neurtuak jartzia
 zaigu gogoratu,
 zerbait kantu-bidia
 naizikan paratu;
 bi aizkolarik elkar
 nai zuten probatu,
 Donosti'ko zezen-pla-
 zan dira jokatu.

- 2/ Amalau kana-erdiko
 ta bi kanakuak,
 elkarren probatzeko
 badira naikuak;
 lan ortan ez dute biar
 kemen gabekuak,
 biyok izango dira
 bular onekuak.

3/ Aizkolariyok dira
Luxia ta Latasa,
elkar probatu biarrez
zeñendako baza;
biyontzat ere etzan
lanpide arraza,
pruebako artu zuten
Donosti'ko plaza.

4/ Luxia orrek egin du
lanian egiñala,
Latasa'k ere izaki
aizkorian gala,
zorrotz aski kenduaz
egurrari ezpala...
ez esan Naparrua'n
gizonik ez dala.

5/ Bazkan iduki dute
Luxia luzaro,
ona jarriya izan-
go zan onezkero;
bedetzi illabete
fondan egunero...
orai gertatu danik
etzuten espero.

6/ Gizon koxkor bat zela
egiten zuten farra,
Luxian onduan zala
txiki ta mearra;
Luxia gipuzkuarra,
Latasa naparra...
onek denari orai
jo dio adarra.

7/ Luxientzat on zanik
gaur etzala iñor,
napartar koxkor batek
ez dio eman amor;
lana aundiya zuten
gozo eta gogor,
Latasak lenik moztu
ditu amasei onbor.

8/ Mingañak lasaituta
arronka ederrikan:
naparrak etzuela
moztuko egurrikan;
onek etzaukan lana
orren beldurrikan,
bere besuentzat ez da
egur gogorrikan.

- 9/ Gauza asko esaten
ziraden aritu,
Napar aldian dira
guztiyak aditu;
orai azkenian nola
dirade gelditu?
Luxia apalduta
Latasa aunditu.
- 10/ Txikiya zala artzen
zioten aitzaki,
Luxiantzat etzala
gizonikan aski;
askotan yuzkuak e-
giten dira gaizki,
ustez asko zan ori
ateri da guti.
- 11/ Gu ere Naparrua'n
kristaba biziyak,
txikitikan lanian
ondo ikasiyak;
Luxiakiñ zituzten
konfiantz guziyak...
orai kontatu betza-
te irabaziyak.

12/ Edoziñ gauza esaten
du aisa mingañak,
ortaz belztu dirade
askoren bekañak;
ikusi diranian
Latasan azañak,
onek erakutsi ditu
napartarran zañak.

13/ Oroituko ditu Orri-
llako ogei ta seiak
nola izandu ziran
Donosti'rat deiak;
jokuan galdu ardiyak,
mando eta beiak,
bestiak txanpon guztiyak
ta etxeko oiak.

14/ Naparrak etzituela
egur danak autsiko,
onbor aundiyetikan
etzala jatxiko;
gero zer igaro da?
autsi lenbiziko...
egun ori etzaio-
te aisa antziko.

15/ Au omen da lenago
izandu ez dena,
zokotan jarri duena
orrenbeste pena;
askontzat izandu da
apostu gizena,
ez da aisa anztuko
Latasa'n izena.

16/ Orra nik esan joku
ortako berriyak,
askondako goguan
eramangarriyak;
badira miserian
jarritako erriyak,
Latasak eman ditu
naigabe aundiyak.

17/ Luxian alde zagon
jendia geiena,
etzuten ezagutzen
Latasan kemena;
orai galdu dutenak
biotzian pena,
au etzaiote ate-
ri Garziarena.

18/ Luxia plazara juan zen
makill aundi batekiñ,
fanfarroikeriya ze-
ramalik berekiñ;
indar danak egin ta
irabazi eziñ...
Latasa ori zenbat den
iñork ez du jakiñ.

19/ Latasak lenik moztu
txiki ta aundiyak,
plazan joku ortako
ziranak jarriyak;
orra zer egin duen
napartar txikiyak:
apaldu Luxiaren
panparroikeriyak.

20/ Etzuten ezagutzen
Latasa ori nor zen,
txikiya zala farrez
plazan jende asko zen;
gero gertatu danaz
etziran oroitzen...
amak diran tokiyan
semiak jaiotzen.

21/ Latasak zuenian
azken egurra moztu,
Luxian aldekuak
jarri ziran estu;
lenago ain bero ta
beriala oztu...
irabazi duenak
penarikan eztu.

22/ Ez dala iñoiz orre-
lakorik izandu,
gipuzkuar zar batek
alaxen esan du;
bero aski ziraden
Donosti'rat eldu,
irabaziya uste zan
apostua galdu.

23/ Luxia zagon bere
izatez itxutua,
jendia egongo zala
beraz izutua;
orra zertarako zan
berorren bultua:
Gipuzkua'n jartzeko
askori lutua.

24/ Latasa da arronkik
gabeko mutilla,
berez bulartsua ta
plaz-gizon umilla;
duro asko irabazi du,
ez dakit zenbat milla,
orrek pozaz bete du
bere erri Sunbilla.

25/ Luxiak zuen arronka,
Latasak izana,
goguan artu gabe
besteren esana;
orrek bildu du bestek
galdutako fama...
Jainkuak bedeika betza
orren aita ta ama. (2)

(2) Paulo Yanzi'ren eskuz-idatzietatik artuak.

NESKA BATZUEN BERRIYAK
P. YANZI'K JARRIYAK

*Doñua: «Iñork galdetzen badu
España'n zer modu...» (1)*

«Lenago Lesaka'n andreak etziren ateritzen kanpora ostatura, eta gerra ondoren asi ziren neskak yoaten ostatura mutillekin edatera. Olako libertaderik etzuten beñere izandu lengo emakumeak. Denbora batean etziran andreak orai bezela yanzten, noiznai soñeko berriak paratu ta ezpañak pintatuz. Ta orrengatik paratu zitun bertsu ok gure aitak, broma bat egiteko.» (2)

(1) Doñu au, 235'gn.orri-aldean arkituko du irakurleak.

(2) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

1/ Neska gazte batzuentzat
jolas-bide txarrak,
baita're berdintxuak
badira zarrak;
gaztiak arrotzen ditu
odolan sukarrak,
gazte-gazte diralik
naizikan senarrak;
gerriyaz mearrak,
trapozko bularrak,
lepoko amarrak
urre edo zillarrak...
ez ditu oroitutzen
guraso bearrak.

2/ Jaian edo astian
beti egunero
alduaz dabilta
amar jenero;
gorputz baten beztitzen
oinbeste numero,
egite onak atzera,
jantzitzen primero;
zenbait neska ero
odoletan bero,
ezkondu ezkerro
ondo izatia espero...
bizi banaiz begira e-
gongo naiz gero!

3/ Goizetan jaiki eta
oien egin bearrak:
lendabaiziko lana
kendu makarrak;
nolazpait itxuratu e-
ben iduri txarrak,
ortako berdiñ dira
gaztiak ta zarrak;
erretzalle azkarrak
Cuba'ko belarrak,
ostatuan zabarrak,
langille elbarrak...
asko egiñ bearko du
oien senarrak!

4/ Aberatsak bezala
nai dute luzitu,
jan ta edan ondo egiñez
berdiñ beztitu;
banderill ta bermutez
oiek nola ornitu?
tasketan sartu ta eziñ
dirade kabitú;
elkarrerri abistu,
batek bestia deitu,
gogua kunplitu,
ortan nai segitu,
pozikan norbaitek or-
nitzen baditu.

5/ Batek ornitzekotan
dama oriyen galak,
ez dira noski aski
gaurko jornalak;
lan batzuetarako
ez dira makalak,
gorputza jantzitzeko
daudezi leialak;
gerriko ugalak,
brillante zabalak,
galtzerdi kristalak,
agerian aztalak,
gonak moztuak ez bil-
tzeko petralak.

6/ Ezkongaiian moduan
ezkondua geiena,
asko da luzitzen ka-
lian dabillena;
ez dakit non dagon zen-
tzua oriyena,
ez dute asko betetzen
Jainkuan ordena;
ez al da au pena?
galdu lotsa dena,
jantzitzen aurrena,
lanako azkena...
senarrak egiñ bearko
etxian bear dutena!

7/ Berdintxuak dirade
nola andre ta neska,
luzitzeko bear dute
motua edo bespa;
jiraka ibiltzen dira
lanaren igeska,
arroturikan nola
gallina culeca!
¡qué gente más fresca!
si está algo seca,
txanpañan galdezka,
basuan beteka...
gero etxerakuan
Ceca a La Meca.

8/ Orrelako laguna
topatzen zaionak,
erruki ditut nik o-
riyen gizonak;
andrian lanaetara
kanpoko pionak,
ori esan dit neri
begira dagonak;
ok dirade sonak,
zer etxeko bromak!
nagusitu gonak,
ebendako onak...
ez dira denentzat on
olko pelonak.

9/ Anzturikan dabilta
Jainkuan dotriña,
modu ortan zikintzen
eben arima;
*enredando se les ve
en cualquiera esquina,
gero amari erristan
todavía encima;
no saben cocina,
es gente muy fina,
bat da nere prima,
gauz ona se estima,
pobre del gaizua que a
ellas se arrima!*

10/ Iñon jartzen bada o-
ietatik serbitzen,
laister ateri dala
degu aditzen;
etxeko andriak zerbait
badio agintzen,
berangatik ez dute
eskurik zikintzen;
laster dira asitzen
lanaren utzitzen,
kalian luzitzen
dirade ibiltzen...
bizi-bearra onek
ez ditu izitzen!

11/ Gazte denbora igaro
orrela jostatzen,
eskuak laztutzia e-
tzaio gustatzen;
aberatsan moduan
beti paseatzen,
zentzu-gabia oiek
ez dira lotsatzen;
lujo aundiyan janzten,
biziyotan sartzen,
lanian ez asten,
ez dute irabazten...
ez dakit nondikan du-
ten ateratzen!

12/ Uda aldian bañorat
nai dute agertu,
odoletan bero ta
naizikan oztu;
dama oriyen pausuak
zeñek ondo neurtu?
iduri du buruti-
kan dirala nastu;
gonak oso moztu,
onradezaz anztu,
uste gabez zartu,
senarrik ez artu...
gero batzuek monja
nai dute sartu! (3)

(3) *Bertso-papera*, moldiztegiaren izenik gabea,
Pablo Yanzi'k berak emana.

BERTSO BERRIYAK
PAULO YANZI'K JARRIYAK
NAPARRO'KO BERTSOLARIEN
TXAPELKETA-EGUNEKO
(1960'ko Iraillaren 25'an)

Doñua: Markesaren alaba.

«Lesaka'ko errian beti euskaraz egiten zen. Guardiazibill eta karabineroen aurrak ere ederki ikasten zuten. España'n badira aunitz mutil eta neska, zibill orien seme-alabak, orain aundituak, ederki itzegiten dutenak euskaraz. Bañan gero elizan etzuten erakusten dotriña euskaraz len bezala, eta aurrak asi ziren denak erderaz, eta euskara antzitzen. Gure aita zen euskara galtzearen kontra, eta miñ aundia zuen; eta ordutik ill arte aunitz bertso paratu zitun gai orren gaindik.» (1)

1/ Orra bertso batzuek
nik Lesaka'n neurtu,
nere samintasuna
naizikan agertu,
euskaldun asko euskeraz
nola dan aspertu,
beren izkuntza utzita
besterena artu.

(1) Pauloren seme Pepito Yanzi'k.

2/ Uste geiago direla
bestena ikasita,
naiago orretan ari
berenaz antzita;
miñ artzen det gaztiak
orrela ikusita,
erderaz ari dira
euskeraz utzita!

3/ Euskalerrriyan bada
orrelakua ugari,
elkarrekiñ erderaz
diradenak ari;
zueri esaten dizuet,
euskeldun amari:
euskeraz erakutsi
zeuren aurtxuari!

4/ Lengo aitona zarrak
zigutena utzi,
antzuta lajatzia
ez luke merezi;
gauzko gaztiak dute
zokoratzen asi,
txiki-txikitik ez du-
tela nai ikasi.

5/ Neuri gogotzea da
bertsuak jartzeko,
euskeldun guziyari
adideratzeko:
ez det esan nai erde-
ra ez ikasteko,
baizik gure euskera
gaxua ez anzteko.

6/ Itz politikak baditu
euskera gaxuak,
ondo esan ezker
dira ain goxuak;
ezpaditugu ematen
zaitzera pausuak,
negar egingo dute
lengo gurasuak.

7/ Euskera zaitzen naiz ni
aspaldi asiya,
zeren ikusten nuen
zegola nasiya;
beren zaitutzen diju-
a nere biziya,
zeren dan lengo aitonak
guretzat utziya.

8/ Nere esan guztiyak
ez dira zartuko,
zeren askon burutan
ez diran sartuko;
erderaz ari dira
gaur jaio orduko,
gure euskera gaxua
digute galduko!

9/ Gaztiak, maitetasuna
euskerari artu,
berotu bearrian
etzaiztela oztu;
euskeraz mintzatzia
arren ez lotsatu,
zeuren izkuntza etza-
zutela ukatu.

10/ Estranjeriyan dute
euskera zabaldu,
bere erriyan berriz
aspaldiyan auldu;
euskaltzale geranak
dezagun lagundu,
lengo zarrak utziya
ez dadiyen galdu.

11/ Euskeldun probintziak
denak dira zazpi,
guziyotan ere ezta
au maitatzen aski;
estranjeriyan maite
dutenak izaki,
berdiñ jakingo dute
guk baño obeki!

12/ Baditut iru ogei ta
emezortzi urte,
euskera zabalduzen
beti orañ arte;
berengatik egiñ det
makiña bat neke,
orañ au galdutzia
miñ artuko nuke! (2)

(2) Paulo Yanzi'ren eskuz-idatzietatik artuak.

Makinaz kopiatua ere arkitu degu bertso-sail au Yanzi'ren paperetan; bañan ontan aldaketa auek ditu: 1/1: Bertso berri batzuek; 1/3-4: ez noski beste askorenak beziñ gertu; 2/5: pena artzen det gaztiak; 3/8: zeben umieri; 5/1: Nere motibua da; 6/4: diranak goxuak; 9/1: Gaztiak, amoriyua; 9/7: zeben izkuntza etza-; 12/8: pena artuko nuke.

Eskuz-idatziak izenbururik etzuan; emen jarri deguna, makinaz egindako kopia oiek zutena da.

SALBADOR ARTZAIARI AMERIKA'RA PABLO YANZI'K

«Egun batian, artzai nabillelik, yoan nintzen arditara, ta zakurra nere ondotik bazterrera yoan zen. Ikusi nun zerbaiten ondotik zabillega, ta yoan nintzen lasterka, ta zauden legoi bat arbol-gañian ta zakurra azpian. Agindu nion zakurrari, ta zaingaka asi zelarik, saltatu zen legoia, yoan ziren legoia antziñean ta zakurra ondotik.

Orduan ardi-kanpora yoan nintzen, rilia artu nun ta lengo lekura etorri nintzen. Zakurra azpian ta legoia arbol-gañian zauden. Ta an zagolarik, tiratu nitun iru tiro, ta bota nun legoia seko.

Gero etorri nintzen nere pozarekin ran txora, Josetxo nere lengusuari erratera. Yoan giñen Josetxo ta biak biaramonian retratuak ateratzera, ta retratua biali nion gure osaba Paulori, ta onek bueltan bertsuok biali, broma bat egiteko:» (1)

(1) Salvador Etxarte'k. Bertsoak, Pauloren eskuz-idatzietatik.

1/ Aizu, Salbador, jakiñik nago
zure mendiko berriyak,
eziñ zaiturik izan zarela
aurrian daillkitzun ardiyak,
gaba batez pasa ditutzula
beldur ikaragarriyak,
ikustian nola argitzen zuten
leoi zar baten begiyak.

2/ Artzai onen izenakiñ orrat
asko zerate juaten,
orko pestiak gizon motelak
non dauden laster sumatzen;
zuen kontuak orai batzuetan
nola diraden izaten,
lasai aski presadan lo egon
ta leoia bildotx jaten.

3/ Peste orren izena leoia,
erdaraz deitzen da *león*,
gauza asko zan tokiyan gosiak
jan gabe etzuen nai egon;
gab'artan billa ateria zen
bildotxik ote zan iñon,
bai eta ere laster sumatu
artzai lotia non zagon.

4/ Zertako mendi (y) ortan ibilli
aritz añaako mutilla,
eziñ zaituaz ibiltzekotan
aurrian dailzun ardi-pilla,
zere eskutan dauzkitzulikan
riflia eta makilla?
Etzaitela beste aldiyan jua
auzora laguntza billa.

5/ Leoia trankill bildotxa jaten
ardi tartian sartuta,
zu sendor aski, lonan azpiyan,
kuidado oiek anztuta;
nozpait ernatutzian igesi
makilla ta arma artuta...
zuk orrela galdu biar dezu
euskaldunaren konduta.

6/ Californi'tik Nevada'ra jua
or obekio biarrez,
ta leoi zar bat ikusi orduko
laguntza billa negarrez;
makilla ta riflia galduta
etzendituen billatu errez...
geroztik ori entzun dutenak
urtutzen daudezi farrez.

7/ Leonero ta ameka zakurrek
aurrian eramen pestia,
ori galduagatikan berriz
azaltzen al da bestia;
gizona zertako jarri orrela
dena beldurrez betia?
Salbador, lan ori ezta zure mo-
ñoñari xirri egitia.

8/ Nevada aldera juanak bazate
mendi-gizonak bikañak,
orra zer tamañako artzaiak
bialtzen dituen España'k;
orai emen entzuten ditugu
zuek egiñdako azañak:
igesu juan ikusi orduko
leoi zar baten letañak!

9/ Peste zarrak ezagutu zu lo
presadan ondo zeundela,
zuk, ernatzian, sumatu ardi
tartian zerbait bazela;
korrika galdu txakurra, makill,
riflia eta txapela,
ta bitartian leoia jaten
Tonin bildotxan okela.

- 10/ Peste zarrak laster ezagutzen
gizon koraje gabiak,
baita artaldian sartuta egiñ
eben gustoko afariak;
merke aski jan dizkitzu orrek
bildotx oien aragiak,
zure nagusi jaunari azitzen
bitarte ongo gostariak.
- 11/ Peste oiek, okela jatia
zaiotenian gogotzen,
eben gustoko gauza non dagon
laster dute begiz jotzen;
onena zeñ dan berexi eta
areri zaizkiyo lotzen,
berriz ere jango dizkitzute
ezpazera erne egoten.
- 12/ Tonik aurten ganantzi aundirik
orrela ez lezake izan,
berak saldu biarko bildotxak
zuri leoi zar batek jan;
gaba aretan izutu ziñela
etzazula iñori esan,
arren ixillik egon, jendiak
farrikan egiñ ez dezan. (2)

(2) Pablo Yanzi'k berak bere eskuz idatzitako orri batzuetatik artuak.

ERRATZU'KO PELOTA-PLAZAN

«Bazitun gure aitak larogei urte. Erratzu'ko errian Naparroa'ko bertsolari-txapelketak ziren. Nik yakindu nun gure aitak nai zula yoan bertso kantatzera. Orduan nik erran nion:

—Egia da nai zula yoan Erratzu'ra bertso kantatzera?

Ta erran zidan aitak:

—Zer du okerrik orrek?

Nik erran nion:

—Orrek oker bat badu: uste dut aurbiurtzen ari zarela orain, zergatik beñere etzare izandu txapelketetan, eta orain, larogei urtetan, zer papera pintatu bear duzu zuk an?

—Nik ez dakit zer paper pintatu bear duten, bañan yoan bear dut.

Nik uste nun etzela yoanen, eta, alletu zenian eguna, bere lagunak etor ziren automobillakin eta eraman zuten Erratzu'ra.

Erratzu'n permisionea galdetu zion ango juraduari bertso batzuk botatzeko, eta eman ziotenian, burutikan bere boneta kendu eta kantatu zitun bertsu ok.

Berak nai zun labur kantatu, eta asi zen kantari ta luzeegi izandu zen, eta moztu egin zun.

Gero, etxian aditu zunian bere boza magnetofonian aunditua, bera ere aunditu zen, ta egin zitun bertso geigo pape-rean paratzeko, an kantatu zitunak gutxi zirela-ta.

Bertso orietako bat egondu zen Donostia'ko Bar Bartolo'n, pizarra batian yarrita, illabete bat ostatuan zintzilik, bañan gure aitak etzun ikusi bertso ura an eskribitua, eri yarri eta il zelako.» (1)

Bertsolari-txapelketa ori, 1962'ngo Uztaillaren lenengo egunean egin zan, sei bertsolari auekin: Ezkurdia, Ibarra, Arozamena, Rekondo, Perurena ta Madariaga.

Paulo Yanzi'k, txapelketa asi baño len kantatu zituan bere bertsoak. An kantatu zituanak, *Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketa, 1962* deritzan liburuan argitaratu ziran.

Bañan oietaz gañera, beste lau bertso ere arkitu ditugu Pauloren eskuz-idatzietan. Dudarik gabe, lau bertso oriek izango dira gero etxean paratu zituanak. Ona emen guziak, eskuz-idatzi oietan dauden bezelaxe:

(1) Pepito Yanzi, Pauloren semeak.

- 1/ Botatzera nijua
zenbait bertso berri,
agurtxo bat egiñez
aurreko danari,
apaiz jaun ta epaile
ta agintariari;
asi dedan lana ezpa-
det egiten ongi,
barkatuko al dezute
aiton zar bateri.

- 2/ Emen diradelakoz
gaur bertsolariak,
billera ederra dauka
Erratzu'ko erriak;
entzutiagatikan
itz neurtu berriak,
plaza onen inguruan
jende asko jarriak;
izan zaiztela denak
ondo etorriak.

- 3/ Auxen da plaza oneta-
ko edertasuna,
jende asko bildua,
geiena euskalduna;
abestu ezkerro bada-
go zeñek entzuna,
gaur da bertsolariyen
txapelketa-eguna,
Baztan'go inguruan
antzuko etzaiona.

- 4/ Geiago botatzera
 biar det saiatu,
 zueri abesteko
 al badet asmatu;
 euskeldun asko gera-
 de gaur bateratu,
 euskeraz mintzatzia
 arren ez lotsatu,
 geuren izkuntza da-ta
 biar degu maitatu. (2)

The image shows a musical score for a song. It consists of five staves of music, each with a treble clef and a key signature of two flats (B-flat and E-flat). The melody is written in a simple, folk-like style. Below each staff, the lyrics are written in a stylized, handwritten font. The lyrics are: "Eus-ka-le-rr-i-yan jai-o, bai ta ber-tan a-zi, as-koke rri-ko iz-kun-tza ez-du-tei-ka si; txi-ki-ti-kannai-a-go er-da-ra-kin na-si, gaz-te as-ko-kin o-ri gei-netan".

Eus-ka-le-rr-i-yan jai-o, bai ta ber-
 -tan a-zi, as-koke rri-ko iz-kun-tza ez-du-
 -tei-ka si; txi-ki-ti-kannai-a-go er-da-ra-
 -kin na-si, gaz-te as-ko-kin o-ri gei-netan

(2) Doñu au, emendik aurretako bertsoak kanta-
 tzeko dira, Pepito Yanzi'k idatzia itzaurrean esan dan
 letrarekin.

i-ku-si, txi-ki-ti-kan a-si eus-ke-ran i-ge-
 -si er-da-ra-kin dua-zi, ba-ñan e-men bi-
 -zi... eus-kal-dun i-ze-nikez-du-te me-re-zi

5/ Iduri du badago-
 la alkartasuna,
 ori da Euskal-erriyan
 biar deguna,
 gora dezagun geuren
 izkuntza kutuna,
 geuren aita ta amakiñ
 ikasi genduna;
 bada asko ezaguna
 ta adiskide ona,
 andre ta gizona,
 entzuten dagona:
 biotzetik izan be-
 ti euskalduna!

6/ Abestera nijua
jende askon aurrian,
itzak goxo esanez
beren neurrian,
kemenik baldin badago
neure eztarrian,
itza ok iristeko
zuek zauten tokian:
Erratzu'ko errian,
oitura zarrian,
eusker a ederrian,
len zana indarrian,
gaur arkitutzen da la-
guntza biarrian.

7/ Euskera apaldu dela
jende askok esan du,
orañ beziñ apal len
ez dala izandu;
ez degula maitatzen
ortan ezagun du,
gaxuari goratzen
dezagun lagundu;
laguntzia on du,
bearra omen du,
ez dadiyen auldu
edo dana galdu;
au galdutzia euskaldunak
lotsa biar du!

8/ Euskalerrriyan geuren
izkuntza ez naita,
ia eroria dago
ziar etzanta;
euskeldunak euskeran
gogua juanta,
eziñ laike siñestu
egia esanta;
geurena izanta,
gurasuak emanta,
ain polita baita,
biar degu maita...
ez dezagun geronek
oiñpera bota!

9/ Euskalerrriyan jaiio,
baita bertan azi,
askok erriko izkuntza
ez dute ikasi;
txiki-txikitik naia-
go erdara nasi,
asko gaztekiñ ori-
xen det nik ikusi:
txikitikan asi
euskeran igesi,
erdarakiñ duazi,
bañan emen bizi...
euskeldun izenik ez
dute merezi!

10/ Neure samintasunez
gaur mintzatu nediñ,
zeren gazte oiek e-
maten nauten miñ;
beren izkuntza utzita
beti bestenakiñ,
euskeraz aritzia ez
al luteke berdiñ?
asko buru-ariñ,
adirazi eziñ,
biar luteke jakiñ
gurian dala atsegiñ...
euskeldunak euskeraz
biar du itz egiñ!

11/ Mundu guziko izkuntz-
etan ederrena
da lengo aitonak guri
utzi zigutena;
da gure euskera guzi-
yotan politena,
baita izan bear da
danetan zarrena;
ele goxo amena,
guretzat maitena,
batzuek nai bestena
utzirik berena...
ezta euskalduna au
maite eztuena!

12/ Gaurko aski egin det,
lan au biar det utzi,
agurtxo bat denari
egiñez lenbaizi;
neure samintasuna
orra erakutsi;
denak jakiñ zazuten
naiz ni Pablo Yanzi;
zartuta naiz asi
naizik adirazi,
itza ok ez antzi:
euskera ikasi,
lengo zarren izkuntz e-
der oneri eutsi! (3)

(3) Esan bezela, bertso guziak Pauloren eskuzidatzietatik artuak.

Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketa 1962 deritzan liburuan, 8, 10, 11 ta 12'garren bertsoa falta dira.

Gañerako bertsoetan aldaketa batzuk arkitu ditugu, bañan magnetofonotik itzak ondo ezin konprendituz jarri diranak dira. Ez dute, beraz, emen jartzetik merezi.

PEPITO YANZI'REN BERTSOAK

Pepito Yanzi, Pauloren semea da. Au ere Ameriketan barrena ibillia degu amar urtean; ez ordea mendian arditan, *Xey* zeritzaion bost laguneko musika-talde jatorrarekin baizik, soñu-jotzalle ta kantari. Onek musikari eman dio bere bizitza, bañan bertsoatarako kimurik gabeko arbola izan ez dala, onako jarri-aldi auek erakusten digute. Berak emanak ditugu. Gaur Donostia'n bizi da.

BARRIO ZIALDO'RI BERTSOAK

1/ Bertso berriyak jarri ditugu,
asi bear degu kantatzen,
gure barrio Zialdo ontan
zer zaigun bada gertatzen;
jende askon abetan gabiltza,
gutaz gaizki dute esaten,
aiek esaten dutenengatik
batere ez gera lotsatzen.

2/ Gure barrio Zialdo zer dan
nai degu bada erakutsi,
Lesaka'ko semeak gera ta
bertan biar degu bizi;
broma ederrak pasatze'itugu
gure kordeona ta guzi,
au baño auzo politagorik
iñon eztegu ikusi.

3/ Gure barrio Zialdo zer dan
nik emango dizut traza:
emengo firmik obenak dira
Lantxen anaiak ta Lastra;
Pakete ere artzen degula
naguse edo kapataza,
egun batian mozkortu zan da
oraindik etzaio pasa.

4/ Gure barrio Zialdo ontan
ez gera aisa galduko,
erri guzira buelta emanda
Zialdo'n gera bilduko;
alde batetik Pakete degu,
beste aldetikan Zoko,
mundu guziko diruangatik
ez genuke ba salduko.

5/ Gure gurasuk esaten zuten
lenguk zirala fiderrak,
aiek ustutzen zutela aisa
basuak eta pitxerrak;
gu ere ondotik eldu geranak
ez gera oso motelak,
jai-egunak alletu ezkerro
biltzen ditugu ederrak!

6/ Denan izenak emen jartzerik
nik ez nuen ba espero,
bañan nai det denak jakitia
asiya naizen ezkerro:
Alzate ta Garibay aurrian,
beste atian Sillero,
Karrasko, Kapallo ta Felipe,
Manbrosia ta Ortzero.

NERE AITARI

- 1/ Seme batentzat aita da beti maite bear gendukena, ta zoritxarrez aztuta askotan ibillitzen geradena; beti elkarrekin bizitzea da gauzikan ederrena, zu juan ziñan mundutik eta eziñ kendu detan pena! bertsuan bidez egin nai nuke aita zanan oroipena.

- 2/ Aita maitea, ill ziñan eta nere biotza-barruan arantza aundi bat sartuta dago irtengo ez dan moduan; zenbat aldiz lagundu zirazun beti daukat nik goguan; orain zeruan arkitzen zera, ni berriz emen munduan, gero betiko izango gera biyok elkarren onduan.

- 3/ Pablo Igantxi zan nere aita,
euskaldun benetakua,
Ameriketan izandu eta
berriz etorritakua;
bertsolari amorratua zan
ta euskeraren aldekua,
zurearentzat izandu zera
beti biotz onekua,
argatik Jaunak utziko dizu
santuen bizi-lekua!
- 4/ Naparrua'ko Lesaka auxe
ezta erri itsusiya,
gure Jaungoikuak emana du
euskaldunaren graziya;
nik gaur dakiten pixarra ere
ementxen det ikasiya,
erri onetan jaiua naiz ta
ementxen bertan aziya,
aita maitea, zor dizut beti
orain dakiten guziya!
- 5/ Zenbat egun on pasatu gindun
zurekin Lesaka onetan
soñua jotzen eta kantari
elkarrekin jostaketan!
erdal izkuntzik etzen izaten,
beti euskeraz izketan,
ni soñu jotzen jendearentzat,
zu berriz beti bertsutan...
olako pozak bukatu dira,
argatik nago penetan!

6/ Eskerrak zuri artu ditugu
emen guk milla birtute,
zuk emandako konseju onak
guretzat indarra dute;
ori beñere etzaigu anztuko
bizi geraden bitarte,
pozez beterik egondu giñan
zurekin berrogei urte,
ama nerekin bizi da eta
ez det utziko ill arte!

7/ Mundu onetan berdiñak gera
aundiyak eta txikiyak,
ta Jaunarentzat berdiñ-berdiñak
naiz beltzak eta txuriyak,
eriotza bidean degula
il bear degu guziyak;
Pepito Yanzi'k bere aitari
jarri nai bertso berriyak
Pablo Igantxi nolakua zan
jakiteko Euskalerriyak!

JOSETXO YANZI'REN BERTSOAK

Jose txo Yanzi, Paulo Yanzi'ren anai baten semea da, Lesaka'ko baserri batean jaioa. 1946 urtean 17 urterekin, Amerika'ra joan zan. An amaika urte pasa zituan; 28'rekin etorri zan. Gaur Etxalarr'en bizi da. Pauloren bertsoetan Jose txoren bertso batzuk ere sartuak ditugu.

ARTZAIEN BIZI-MODUA

Onako sei bertso auek, Salvador Etxarte'k eman zizkigun, itz auek aurretik erantsiaz:

«Nevada'ra yoan nintzelarik, Jose txok bertsu ok kantatu zitun, ango bizia nola zen; berak yarriak dira.»

Gero Jose txori berari erakutsi nizekion, ta irakurri ondoren onela esan zuan:

—Ez nuen uste bertsu ok bizi zirenik; nik beintzat aantziak nitun. Nevada'n nabillelarik, Lesaka'ko Fagoaga anaiak galdetu zidaten ango biziari zenbait bertso paratzeko, ek etxera bialtzeko. Ama bi bertso yarri nitun. (1)

(1) Doñua, Salvador Etxarte'k kantatua ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik entzun da idatzia.

Men-di-yan jar-tzen ga-re-lik ba-kar=ba-ka-ri-
 -kan, ba-kar=ba-ka-ri-kan, trix-tu-ra be-ti bi-yo-
 -tzin po-zik ezi-non-di-kan, e-sa-nazi au ez-
 -dek bi-zi-mo-du-a, gua-zen e-men-di-
 -kan, gua-zen e-men-di-kan.

- 1/ Europa'tik ateri eta
 Amerika'n sartu,
 Amerika'n sartu;
 bizi-modu berri on bat
 ustez oi degu artu...
 ardi zarren atzetik lasterka
 batek bear du lertu,
 batek bear du lertu!

2/ Mendiyan jartzen garelik
bakar-bakarrikan,
bakar-bakarrikan,
tristura beti biotzin,
pozik ez iñundikan,
esanaz: «Ola ez laike bizi,
guazen emendikan,
guazen emendikan!»

3/ Nik egiyak esango ditut
nola fiñez bainagon,
nola fiñez bainagon:
leku au etor berriyin
iñôntzat ez dela on,
bañan sosik ezta izaten eta
bertan bear egon,
bertan bear egon!

4/ Bertsutan eztet yarriko
nik deus gezurrikan,
nik deus gezurrikan;
miñen bat artuko balitz
gaudelik bakarrikan,
amak ez luke aditutzen al
gure negarrikan,
gure negarrikan!

5/ Mutil bat izan daiela
azkar ta abilla,
azkar ta abilla,
miñez dela jakiñ ez ta
nor juango da aren billa?
iñor agertu baño lenago
gerta laike illa,
gerta laike illa!

6/ Nik egizyak esango ditut
jakiñen gañian,
jakiñen gañian;
gezurrak badira bota
oken ordañian:
diro gutxigoz bizi obia
eiten da España'n,
eiten da España'n!

NEGU GOGORRA

«Josetxo Nevada'n arditan zabilleta, bortsz illautian egon zen elurra kendu gabe, ta berriz asi zun sekulan baño geigo. Ta, ura ikusi zularik, iru bertso ok yarriz zitun. Ta arratsian etorri zen ardi-kanpora, ta neri kantatu.

Beñardo Josetxoren anaia da, ta California'n osabarekin ari zen lanean, ran-txo batian. Karta bezala biali zizkion bertso ok.» (1)

- 1/ Beñardo, aurten dauzkagu
emen negu gogorak,
arditan ibiltzeko
artzai jatorrak;
sutan erre ditugu
inguruko onborrak,
oietik aski ez ta
txamizo-zoztorrak;
gorrituk sudurrak,
baita're muturrak,
iltzeko beldurrak,
eztira gezurrak...
guk baño bizi obia
orko zakurrak!

(1) Salvador Etxarte'k; bertsoak ere, onek berak emanak.

2/ Osaban etxe ori
ez nago anztuta,
leku ori bainaukan
txit maitatuta;
orain Salbadorrekin
itten det disputa,
ori obia dela
aditu nai du-ta;
ezin ukatuta,
au dago aitortuta,
ai au bizi puta!
gorputza oztuta,
ardiri segi eskuk
bolsan sartuta.

3/ Guretikan urruti
daudezi erriyak,
txalet ordezkagu
txamizo aundiyak;
begiratuta buelta
guziyan mendiyak,
elur artin ageri
dire arri gorriyak;
gu eskintan jarriyak,
ok dira egiyak,
urrikigarriyak
geu ta animaliyak...
parerikan ez dauka
emengo biziyak!

KASKABEL-SUGIARI

Jose txo ta Salbador zebiltzan tokian, kaskabel-suge asko omen zan. Aiekin kontuz ibilli bear zan. Bañan bere kaskabel-otsarekin non ziran abisatzen zuten. Eskerrak orri. Jose txok bost bat bertso paratu zituen, suge oiek gai artuta. Bañan onako auek izan ezik, beste danak galduak dira. Aurrena, Jose txok emana da; ta bigarrena, Salbadorrek.

- 1/ Bakardadeko basamortuan
nola baigeran bizitzen,
koiote, kato, legoi ta suge
bertzerik ez da arkitzen;
sarritan gaude kanpo barruan (1)
oien orruak aditzen,
salbaje-modura bizi gera,
ezerk ez gaitu izitzen...
esan laiteke geuren biziya
ez degula estimatzen.

(1) kanpo = lo egiteko tokia, *tienda de campaña*.

2/

.....

.....

.....

kaskabelaren defentsarako
iru ordu bakarrak dira, (1)
ta gutxienian zortzi ordu
lendabiziko errira,
iñoiz ausikitzen bagaituzte
betiko etorriak gira!

(1) Kaskabel-sugearen auskiak iru orduko bizia ematen dio gizonari; besterik ez.

BI LENGUSUAK

Pepito Yanzi, Pauloren semea ta Jose-txoren lengusua, Xey'koekin kantari Me-jico'n zebillela, Josetxok Nevada'tik ber-tsoren bat biali omen zion; ta bai Pepitok ere bertso onekin erantzun:

Kantu-lanian ona ziñala
ori aspaldi banekin,
bañan eztezu ezer egingo
lana orretan nerekin;
zu mendiyen ta neu ziudadian
pasitzen nabil neskakin,
zu ere pozik ibilko ziñake
emen dagon aukerakin. (1)

* * *

Beste aldi batez, Pepitok Josetxori pun-

(1) Salvador Etxarte'k.

tu onekin bukaera zuan bertsoa bialdu
zion:

odoletikan korrika dezu
zure aitaren graziya.

Izan ere, Josetxoren aita zana, Paulo
Yanzi'ren anaia, bertsolaria izana zan. Ta
Josetxok bertso onekin erantzun zion:

Aizu, Pepito, esan dirazu
nik dutela aitan graziya,
gauz au ez nizuke ukatuko
izan laike-ta egiya;
ta bera ez mundu ontan bizi,
au da gauz penagarriya,
ai zer gustura egongo ote zan
gizajoaren begiya,
ikusirikan bere odoletik
datorren bertsolariya! (2)

(2) Josetxo Yanzi'k.

ERRIKO BESTAK BURUTAN

«Josetxok, ardi zai zabillearik, San Fer-
miñetan erriko bestaz oroituta, paratu zi-
tun amar edo amabi bertso. Paperian es-
kribitu zitun. Nik altxatu nun maletian
paper ura, bañan orai alere galdua da-
go.» (1)

1/ Gaur asten dî Lesaka'n
egun sonatuak,
ango gaztin irrintzi,
dantz eta saltuak!
gu berriztik mendiyen
artzai tiratuak,
angoz pentsatzen gabiltz
erdi zoratuak.

2/ Ondo oroitzen gera
gaurko goiz onetan:
txuntxunakin dantzari
erri-bazterretan,
jendia atzetik duala
dana bi filetan,
gero dantzatu ederki
Onin'go paretan.

(1) Salvador Etxarte'k. Bertsoak ere, onek berak
emanak, bigarren bertsoaren atzeneko bi puntuak
izan ezik; auek Josetxok emanak dira.

SALBADOR ETXARTE'REN BERTSOAK

Salbador Etxarte, Yanzi'ko Isasmendi baserrian jaio zan. Ameriketan artzaintzan zenbait urte eginda, gaur Irun'en bizi da.

SALBADORREN DESPEDIRA

«Amerika'ra banuiela, azkeneko bazkarian, kantatu nitun bertsu ok, nere aita ta ama, senide, lengusu ta famile dana an zagolik.

Andik yoan nintzen Bilbao'ra trenian; Bilbao'tik Madrid'a aeroplanuan, ta Madrid'tik Nueva York'era, eta Nueva York'etik San Francisco'ra; andik osabaren etxera, rantxora, Winters deitzen den erri batera. Leenik ondo ibilli nintzen. Gero, Nevada'ra yoan nintzelik kontuak!» (1)



Kan-tuz e-gin bi-ar det ne-re des-pe - di -
-ra, ba-nui-e-la-koz gu-ziz u-rrun den


(1) Salbador Etxarte'k berak. Doñua, onek berak kantatu ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik entzun da idatzia.




to-ki-ra; de-sei-o nu-en mar-txa orain-txe



a-si da, as-pal-di-yan zai nen-gon dei-a-ren



be-gi-ra, bat tris-tu-rak ar-tze-ko



o-ri-xe as-ki da, bi ur-te pa-sa-



-tu-ak o-rre-la juan di-ra.

- 1/ Kantuz egiñ biar det
nere despedira,
banuielakoz guziz
urrungo tokira;
deseio nuen martxa
oraintxe asi da,
aspaldiyan zai nengon
deiaren begira,
bat tristurak artzeko
orixe aski da,
bi urte pasatuak
orrela juan dira.

2/ Ortaz bertso batzuek
biar ditut para,
ondo despeditzeko
denakiñ al bada;
Amerika'n urrun i-
zan biar da Nevada,
nozpait iritxiko naiz
makurrik ezpada,
bizi-arrisko airian
nuaie arara,
Aingero guardikuak
nezala anpara!

3/ Nevada'ra nerama
urriaren famak,
ots aundiyakiñ dira
orai ango esanak;
ikusiak dirade
emengo izanak,
ezer gutxi dakarra
egiten den lanak,
penakiñ uzten ditut
familiko denak,
barkatuko al didate
aitak eta amak!

4/ Despeditzeko itzak
billa nere abak,
pensatzen badamazki
egunak ta gabak;
mingañari azaldu-
tzen zaizkiyo trabak,
ala ere egiñgo ditut
nere egiñalak:
adios, aita eta ama,
anaiak ta arrebak,
baita modu berian
izebak ta osabak.

5/ Ongi neurtuak dira
emengo etorkiak,
askoz aundiyaguak
dira yuanpidiak;
ikusiak dirade
emengo izatiak,
ortaz animatzen nau
urrun juatiak,
barkatu orañdañoko
nere esatiak,
adios, adiskidiak
ta lagun maitiak!

6/ Nor naizen esan biar det:
Salbador Etxarte,
familiya utzita
nuaiena aparte;
beti izango zaiztet
biotzetik maite,
ume onan legiak
nai nituzke bete,
zuen amoriyuak
itzulazko naute,
ezpada ala gertatzen
Josefata arte! (2)

(2) Paulo Yanzi'ren eskuz-idatzietatik.

Iru kopia arkitu ditugu: Oietako batean, bertsoak or goien jarri ditugun bezela daude.

Bigarren kopiak, aldaketa auek ditu: 1/4: urrun den tokira; 2/3: ongi despeditzeko; 4/12: osabak ta izebak; 5/11: agur, adiskidiak.

Irugarren kopian bertsoak amar puntukoak dira, ez seikoak. Bertso bakoitzean puntu bat oso-osorik falta da, beraz. Ona emen aldaketak: 1/5-6: falta da; 1/10: orixen; 2/7-8: falta da; 3/7: ezer aundi-rik ez da-; 3/8: kar emengo lanak; 4/7-8: falta da; 4/9: agur, aita ta ama; 4/11: modu berian agur; 4/12: osabak ta izebak; 5/3: askoz geiago dira-; 5/4: de yuanpidiak; 5/5-6: falta da; 5/8: emendik juatiak; 6/1: Au da nere izena; 6/6: biotzatik; 6/7-8: falta da.

SALBADOR ETXARTE'K
PAULO YANZI'RI

«Bertsu ok, Ameriketara yoan da segidun yarri nitun. Ta biali nizkion karta batian Paulori.» (1)

A-me-ri-ka-ko-ne-re-bi-zi-ya kan-tu-
-an be-ar det ja-rrri es-pli-ka-tu-az no-lana-
-bi-llen de-na kla-ro e-ta gar-bi jan-se-
-da-na-kinez na-bill e-men Es-pa-ñi-an bezin la-
-rrri ta la-nian e ez det a-te-ra-tzen orra-
-in-bes-te i-zer-di.

(1) Salvador Etxarte'k. Bertsoak ere berak emanak ditugu. Ta doñua ere berak kantatu ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik entzun da idatzia.

- 1/ Amerika'ko nere biziya
kantuan bear det jarri,
esplikatuaz nola nabillen
dena klaro eta garbi;
jan-eranakin ez nabill emen
España'n bezin larri,
ta lanian ê ez det ateratzen
or ainbeste izardi.

- 2/ Milla bat ardi dauzkat aurrian
eta bi zakur lagunak,
aien ingurun pasatzen ditut
aste eta jai-egunak;
martxa onetan laister nerekin
dauzkat aberastasunak,
orai arte bezala laguntzen badit
suertiak eta osasunak.

- 3/ Nausi jaunentzako ere ez daukat
errenkura egin bearrik,
bixitatu gabe ez nau utzitzen
egun batin e bakarrik;
Jainkuak daki zer puska ttuzten
emen neretzat ekarrîk,
esaten dira jateko lasai,
ez egoteko beldurrik.

PAULORI, BIGARREN ALDIZ

«Paulok karta egin zidan nola nabillen galdetuz, ta nik bertsu okin kontesta. Ordun California'n nintzen.» (1)

- 1/ Aizazu, Paulo, nere ibillera
orain biar dizut kontatu,
nere denboran ez det oneñen
egun ederrik pasatu;
jana ta erana beti pillaka
ta gorputzik ez nekatu,
iru urte esperuan pasa ta alere
orra suertia tokatu.

- 2/ Ez nuen uste izaten zala
oneñen famile onik,
etxi onetan momentu batin
ez da faltatutzen bromik;
Beñardok ere egunik eztu
eiten jo gabe kordeonik,
etzait iduitzen iñor badela
gu baño obekio dagonik.

(1) Salvador Etxarte'k. Bertsoak ere, berak emanak.

3/ Ez nuen pensatzen emen ibiltzea
oneñen modu edertan:
jana ta erana sobrante daukat
ta gasturik ez ezertan,
gorputza lanin nekatu gabe
sari ederra urretan...
andregai pasatuko banu
zer bizipidea bertan!

ARTZAI-KONTUAK

Nagusiak, sierraren ondoan aziya jarri zuen mazela (1) aundi batian. Ta izugarri bazka ona zen. Ta erran zien iru artzairi, an biña egun ardirekin pasatzeko pas-teuan.

Lenengo pasa zun Urepel'ko artzai batek; Mixel zuen izena. Urrengo, nere lengusu Anjelek; bañan onek, bi egun pasa biarrian, lau pasa zitun, ta neretzat tokia bazkik gabe utzi zun.

Ta nere sierraren onduan baitzen mazel ori, egin zaizkion ardiak nere sierrara eskapatu; ta gero, andikan bere tokira zuaielea, Josetxoren sierraren azpian pasatu bear zun, ta pasatzian Josetxori ere bazka jan zion.

Gero nik, broman, bi bertsu ok jarri

(1) mazela = zati.

nizkion, ta kanperuarekin bera zegon le-
kura bialdu. Uste izan zun, lenbiziko, Jo-
setxok bialiak zirela.» (2)

Ai zak i An-jel ja-kin-du al-dek en-
te-ra-tu-a nai-ze-la, a-zi be-rriko ne-
re par-ti-a ik pas-te-a-tu yu-e-la? Ga-
ñen da be-rriz si-e-ran -re Je-su-kris-toan
den ma-ze-la o-ri-yek as-ki ez dire-la
be-rriz Jo-se-txo-ri e-re tre-la bil-dotse-
de-rrak no-la ez di-tuk ai-sa e-gin-goo-rra-la.

(2) Salvador Etxarte'k; bertsoak ere berak emana-
nak. Ta doña ere onek berak kantatu ta Ambrosio
Zatarain jaunak magnetofontik entzun da idatzia.

1/ Aizak i, Anjel, jakindu al dek
enteratua naizela
azi berriko nere partia
ik pasteatu yuela? (3)
gañera berriz sierran ere
Jesukristoaren mazela,
oriyek aski eztirela berriz
Josetxori ere trela... (4)
bildotx ederrak nola ez dituk
aisa egingo orrela?

2/ Artzaiko lana ontan udaro
baduk neretzat ajia:
iyaz legoia eta aurten sierra
bestek jan eta lajia;
ikusi nuenik pasteatua
nik maite nun parajia,
eztuk siñisko momentu artan
artu niken kurajia...
yotzera etorko ñuen ezpazen
oinbesteko biajia!

(3) pasteuan, pasteatu = *pastando, pastar, baz-
katu.*

(4) trela = bidea.

DAVID ARANBURU'REN BERTSOAK

Dabid Aranburu, Lesaka'ko Uarte base-
rrian jaio zan, 1928'ngo Apirillaren 6'an.
Ameriketan bi aldi egiñak ditu, ta biak
artzaintzan. Auek idazterakoan, emengo
aldi du. Orri eskerrak bildu al izan ditugu,
berak emanda, urrengo orri-aldeetako ber-
tsoak. Beraren beste jarri-aldi bat, Aus-
poa'ren 39'gn. zenbakian, 59'gn. orri-al-
dean, arkituko du irakurleak.

CALIFORNIA'KO LAGUNAI

«Uarte zen gure lagun bat, Lesakarra.
Izenez, Dabid Aranburu. Elkarrekin Ne-
vada'n giñen. Gero, California'ra Josetxo
ta biak etorri, ta ura bertan gelditu zen.
Guk abistu genion California'ko bizia no-
la zen, ta arek Nevada'tik bueltan ber-
tsuak paratu ta biali zitun. Uarte, bere
etxearen izena du.» (1)

- 1/ Errege-egunakin
juanda umoriak,
gizonak izaten ditu
olako aldiak;
nere lagun Josetxo,
Salbador ta biak,
artu biar dituzute
bertsuak berriak,
Nevada'tik Uarte'k
zubentzat jarriak.

(1) Salbador Etxarte'k; bertsoak ere berak ema-
nak.

- 2/ Enteratu nauk ondo
 bizi zeratela
 jan-eran ederrakin,
 nekerik eztela;
 neskatxakin gozatuaz
 nai zuten bezela,
 urte askuan, motellak,
 segitu orrela,
 gazte izatik ezтик
 baliyo bestela.
- 3/ Gu emen gabilta geure
 onetik aterik,
 illabetiak neska bat
 ikusi bagerik;
 nik eztiat agontzen al (2)
 denbora luzerik,
 gañera au osasunak
 gonbeni ote dik?
 gutxiago irabaziaz
 neskakin obe dik.
- 4/ Salbadorren atzetik
 neskatxak demanda,
 ori egiya dela
 siñestia lan da;
 neu arritzen nauk gauz au
 orrela izanda,
 eztegu zertan egonik
 esperantza juanda,
 orra nozpait alletu
 itxusien txanda.

(2) agontzen = aguantatzen.

PABLO YANZI'RI

Pablo Yanzi'ri Ameriketatik bialdutako bertsoak:

- 1/ Pablo, gertatzen gera
zugandik aparte,
zure illoba Anjel
eta Uarte,
zu ibillko lekuan
arturikan parte,
etorritako penik
gañera ez bate;
zorrua ondo bete,
pagatzen gaituzte
merezi ainbeste
dolarraz fuerte...
ola egon laitazke bost
edo sei urte!

2/ Esan izan zenduen
emengo biziya,
gazteak zer egiñ be-
ar gendun iya:
zintzo jokatutzeko
degulik sasoya,
esandako moduan
nai genduke saya;
zuk esan guziya
bai ongi egiya,
fanfarroikeriya
da gauza itxusiya...
zure kontsejuari
milla graziya! (1)

(1) Dabid Aranburu'k berak idatzitako libreta batetik

AMERIKANOAK ETA EUSKALDUNAK

Ameriketan, arrantxo batean amerikano ta euskaldun askoren artean egindako festa baten ondoren, bertso auek paratu zituan Dabid Aranburu'k:

1/ Bertsotan asko ez jakin arren
lagundutzen dit gogoak
gutxitan alkartutzen dirade
olako euskaldun-moltsoak,
neskatxak ere gure artian
aski politak gaizoak,
biotza lertu baño lenago
jartzera nua bertsoak.

2/ Amerikano eta euskaldun
danok alkarrez nasturik,
nolako poza bat bestiakin
alkar besotik arturik;
ez dakit iñork esan lezaken
beste oinbeste egirik,
edertasun au ikusi eta
nor egongo da isillik?

3/ Denak pobriak izana arren
au da patzada erraza!
esan laitake danok batera
artzen degula arnasa;
iduritzen zait emen degula
euskera denen baratza,
pobre onela bizi ezkerro
ez degu nai aberatsa!

4/ Adiskideak ikusi emen
nolko euskaldun-purrusta,
bat bestiatik naiz urrun egon,
alkarregana bilduta;
bai eta ere amerikanuk
pozez geurekin nastuta,
mundu guzian geuren izkuntzak
entzute garbiya du ta.

5/ Guztiok berdiñ ikusten gera
langille edo nagusiak,
esan liteke bat bestiakin
gaudela ondo josiak;
emen ez dauka ezer egiñik
elkar ezin ikusiak,
emen ez dago belarri-motzik,
danok belarri-luziak!

6/ Batenbat emen gerta liteke
euskeraz ezin egiñik,
danok euskaldun ezin litake,
ori dakigu geroz;
bañan alkar guk nola agurtu?
esku zabala emanik,
biotz oneko jendia da ta
ez dago ezer esanik.

7/ Sinistu gero euskaldunak gu
ez guazila gain-beran,
nai det esan nik Ameriketan
nola ikusiak geran:
sekulan naiz ez ezagutu zuk,
lendabaiziko izkeran
begi argiyaz galdeko dizu
ia zu euskalduna zeran.

8/ Geure erritik bizi-modua
diferente da konpleto,
ontan gezurrik ez dijuala
sinistu zazu zierto;
jende ona da an guretzako,
nik ori dakit ederto,
emen euskera maitatutzen da
Españi'n bañan obeto.

- 9/ Gure erritik aparte gaude,
ematen degu aitortza,
bañan alare Euskalerrira
begira beti biotza;
sinistu gero jaio-lekua
ez daukagula arrotza,
pozez gaude gu Euskalerridan
izan gendulkoz jaiotza.
- 10/ Adiskideak, banijua ni
azken kanta ematera,
ezin sinistu dedan moduan
urruti etorriak gera;
bañan oraindik nai nuke egon
Euskalerridaz batera,
merezi du ta al dan moduan
gora dezagun euskera! (1)

(1) Dabid Aranburu'k berak idatzitako libreta batetik.

ANAIARI

«Bost urte etxetik ateririk nitun egunean, anaiak bialdu ziten karta bat, eta karta onen bukaeran bertsu au:

Gaur bost urte Amerikera
i juañ yitzan urruna,
karta unen bidez auxen digu guk
aipatu bear deguna;
ezkerotzikan ni triste niok
eta biotza illuna,
nai nitek jakiñ noiz izango dan
alkartutzeko eguna.

Iru bertso okin erantzun nion:

Amerikera etorri ninyun
dolarra edo diruaz,
mutilzar anparo gabetanik
urteetan gorat guaz;
eta ik diok alkartutzeko
yagoela deseiuaz...
izan litekek ni egotia
i bañan aundiaguaz!

Bai, egiya duk, orain bost urte
atera ninyun etxetik,
zartu orduko neure buruen
jabe izateagatik;
osasun ona baldin badaukat
Zeruko Aitaren partetik,
beste bost urte eztituk juango
alkar ikusi gabetik.

Zertan juanik ez dagoela
ezin nezakek diskulpa,
Ameriketan abion rapiduk
orain atera dituk ta;
amar bat ordu goien-goienez
aien barruan sartuta,
alkarrebian afaldutzera
Ameriken gosalduta! (1)

(1) Dabid Aranburu'k bere eskuz idatzitako libre-
ta batetik.

AMARI

Dabid Aranburu'k amari, beraren egunean, Santa Teresa egunean, Ameriketatik bialdutako bertsoak:

- 1/ Nere deseiuak otxek dirade
Ameriketan urrundik:
besarkada bat eman nai diot
nere amari emendik;
nik ama beti maitatutzen dut
beste gauza danen gaintik,
urtiak badijuazi baño
maitasuna ez oraindik.

- 2/ Semeak zenbat sentitutzen dun
nai det egitea jakin,
aman ondotik urrun nagola
orretzek ematen dit min:
nik ama beti maitatutzen nun,
ortan segitzen det berdin,
lagunak asko badira baño
ama bat bakarra ordin! (1)

(1) Dabid Aranburu'k idatzitako libreta batetik.

LAGUN BATI

Bertso auek, Dabid Aranburu'k bere lagun bati bialduak dira. Amabi bertso omen ziran. Iru auetaz oroitu da orain Dabid:

1/ Neure erritik etorri ninyun
artzai urrungo mendira,
neure aurretik etorritako
lagunak diran tokira;
berreun dolar naiz irabazi
mantenuakin garbira,
Manolo, gure garai bateko
broma ederrak non dira?

2/ Geure erriyan naiz sosarik ez
beste bizi-modu bat zan:
jai-egunetan erromeriyen
neska ederrakin dantzan,
gabian beraz konpañatuta
muso bat faltatzen etzan...
au jakin banu Ameriketa
neregatikan libre zan!

3/ Mendi mortuan bitxo oriyek (1)
guri lotuko balira,
iru orduan egaka ere
ezin bajatu errira;
egun batetik bestera gaude
desgrazi orren begira,
artzaiantzako adelantuak
orrelaxekuak dira! (2)

(1) Kaskabel sugeengatik ari da emen. Auek ausiki egin ezkeru, iru orduko bizitza besterik ez omen du gizonak.

(2) Dabid Aranburu'ren libreta batetik artuak

LAGUN BATI KONTESTAN

- 1/ Aizak i, lagun, ire bertsoak
neri eman diraten poza,
nerekin nitun samintasunak
bai ederto samar goza!
premier negon distraitutzeko
nik dedan leku arrotza,
bertso ederrak jarri dizkiak,
nik ematen dit aitortza,
bost puntuetan Kantabria'ko
aitona zarraren boza.

- 2/ Artzaiak duen gauzik txarrena:
mendi mortuan gaudela
egunak iñor ikusi gabe
animaliyak bezela;
etzan-lekua toldoz estali,
ori da gure hotela,
baiñan gure jan-edanak ez du
alimentua motela,
janari eta jornala onekin
egon laitake onela!

3/ Esaten ditek: «Ameriketan
artzaia bizi dek zatar!»,
baiñan inbidiz ari danari
ez da kasorik egin bear;
ik beintzat modorik baldin badek
etorri ununtza azkar,
nere partetik naiago nitek
etortzia abudo samar,
zer gauza ederra Ameriketan
guk besarkatzia alkar! (1)

(1) Dabid Aranburu'ren libreta batetik.

TXAKAIN

«Ameriketatik Txakain deitzen zaion parajiari edo iturriari jarritako bertso batzuek; iturri orrek dauka ermita San Fernando, eta gazteak egiten dute berendo bat santu-eguna ori urbilna dagoen jayian:

- 1/ Milla bederatzireun
berroi ta emezortzi,
nolanai aztutzera
nik ezin det utzi;
zoko polit orretan
zeratenak bizi,
agurtutzen zaituztet
bertso eta guzi!

- 2/ Ermitatxu orretaz
oroitu naiz orain,
maite bear gendukela
geuren buruak ain;
orko iturri freskuak
iduri du txanpain,
aupa oju eginez
gora zagun Txakain!

3/ Alkarrengandik gaude
oso apartian,
gañera itsasua
alkarren tartian;
baldiñ ongi bagabiltz
danok bitartian,
alkartutzen al gera
egunaen batian!

4/ Zuengandik aparte
gertatzen naiz aurten,
baiñan oitura zarrak
nik ez ditut uzten;
nai nuke egotia
nonbaitik ikusten
nere biyotzak nola
maitatzen zaituzten!» (1)

(1) Dabid Aranburu'ren libreta batetik.

ARTZAIEN BIZI-MODUA

Bertso-sail luzea omen zan, bañan orain bertso onetzaz bakarrik oroitu da Dabid Aranburu. Ameriketako artzaien bizi-modua zer dan adierazteko paratu zituan:

Eztegu iñor iltzen,
ain gutxi ebatsi,
ain gutxi ebatsi,
ez gezurrik esan ta
gorrotu ain gutxi;
mendiyatik mezera
ezin gera jetxi,
barkatzen omen dute,
trankil gera bizi...
batek esan lezake:
Zeruan gaudezi! (1)

(1) Dabid Aranburu'ri berari kopiatua.

BIGARREN JOAN-ALDIAN

Bertso au, Ameriketara joan zan bigarren aldian bialdu zuan Dabidek, eskutitz batean sartuta:

Bigarren aldiz gertatutzen nauk
Amerika'ko partian.
Sacramento'tik ogei millatan
dagon arrantxo batian;
iru eun eta berrogei ta amar
jornala illabetian,
osasuna're bazaukagu ta
ontan konforma gaitian! (1)

(1) Dabid Aranburu'ri berari kopiaua.

LEON BEREAU'REN BERTSOAK

Leon Bereau, Lesaka'ko Lizardi-baita baserrian jaio zan; gaur egunean Nevada'n ardi-zai dabil. Onako bi bertso-sorta auek, *Luzaide* errebistara bialdu zituan, baita onek argitaratu ere, bata 1960'gn. urtean ta bestea 1961'ngoan.

NEVADA'KO BERRIAK

- 1/ Europa'tikan Amerika'ra
askok egin degu bisita,
gure famili ta amistadiyak
denak or berian utzita;
pasatu degun ibaia ori
ezta, ez, oso polita...
negar-malkuak eskapatzen dira
ori pentsatzen asita!

- 2/ Luzaide aldeko mutil gazte bat
emen daukat nere lagun,
juan den Otsailaren lenian
emen ezagutu gendun,
elgarrendikan urbillin gaude,
ez bada oso urrun;
emen elgar estimatzen degu
denak anaiaren modun.

3/ Mendi gañera ateraik gaude
bildotxak enbarkatuta,
nagusiak esana egin bear
eskaporik ezta;
emen mutilla gelditzen baita
besten eskuan salduta,
sierra gañian artzai gabiltza
bina milla ardi artuta.

4/ Basa-piztiaz inguratuak
emen ditugu onduan
basa-zaldi ta leoi, koiote,
domadorien moduan;
animali oien izenak
beti aitzia banuan...
amakiña bat ikusteko're
badaukagu munduan!

5/ Euskalerriko kanta ta dantzak
beti dauzkagu buruan,
euskaldunaren pare danikan
ezta izango munduan;
basamortuan emen gaudezi
salbajiaren moduan,
olako gauza zoragarririk
ezta gu gauden lekuan!

- 6/ Euskal bertsuak ikusi ditut
oraindik oso berriyak,
Xalbador eta Mattinek biyek
Luzaide aldian jarriyak;
jaun oieri eman bear diztet
emen bertatik graziyak,
urte askotan lagun zaiela
osasun eta suertiyak!
- 7/ Zure rebista ikusi eta
emen esan bai genduan:
«Gure aldeko euskara ederra
oraindik bizi da munduan!»
Barren-barrendik poza eder bat
nola izan genduan,
gure biotzak zabaldu ziran
abanikuen moduan.
- 8/ Oraingotikan dijua bada
azken bertsu neria,
barren-barrendik alabatuaz
gure Euskalerra maitia;
barkatu bear dezute bada
egin badegu kaltia,
eta osasun onarekin
agur, Don Jose Maria!

Mountain, Nev., 1960/IX/14

NEVADA'KO ARTZAINAK

- 1/ Milla bederatzi eun urte ta
irurogoi ta batian,
bertsu batzuek kantatzia
ezta iñoren kaltian;
aireko untzi eder batekin
etor giñan onatian,
geroztik artzai emen gabiltza
Nevada'ko partian.

- 2/ Dakizutena, añen aparte
nola dagoen Nevada,
biziya arrisko aireko oitan
etorri giñan onara;
batzutan iran, bestetan jeitxi,
pasa genuen bolada,
guzien gañin Jaun Zerukoak
ondo giñuan anpara.

3/ Esango det, ba, nola dagoen
gure laneko manera:
uda aldian mendi gañian,
negu aldeko gain-bera,
goiko larriak jan ditugu ta
guaz desierto aldera...
Nevada'ko aldian gauden artzaiak
orrelaxen bizi gera.

4/ Uda aldian mendi aldera
eldu gera berririk,
sei bat illaute urbilduxia
egon bearra bakarrik,
txakurra eta zaldiya arekin,
ezta beste lagunarik...
garaia orretan aski luziak
dira eguna orik.

5/ Etxe bikaña izaten dugu
uda pasatzeko artua;
lona-mutur bat lau eskinetik
lau kordaikin lotua,
egur bat, txutik egon dadiyiela
erditikan paratua,
orren barrenin izaten dira
sukalde eta kuartua.

6/ Kanpuaren aldatzeko
udan dauzkagu astuak,
aietan ibiltzen ditugu
gure etxe ta trastuak,
zenbaitan maldan anbildu eta
pusken erdiyak galduak...
zerua ondo mereziya du
emen gu bezalakuak!

7/ Mendiya oiek nolakuak diran
batek elazteke pensatu,
arroka eta arri tartian
askotan ezin pasatu,
erreka eta zoko tristia
batek bear du ikaratu...
emen emango pausuak elaike
dolarrarekin pagatu!

8/ Goiziyen ardiyak denak bildurik
markak denak kondatuta,
atsaldeko erdiyak falta
kuioten bat sartuta,
pazientziatik ondo aterik
laño elurrian naastuta...
olako ordu txar frango badegu
mendiya otan pastuta!

- 9/ Orra nik esan nola diraden
 Nevada aldeko berriyak,
 kolera osuan artu dizkiot
 lana oieri neurriyak;
 azindak ere deabruak dira,
 kolera emangarriyak,
 Judasek ainbat tranpa badute
 Amerika'ko ardiyak!
- 10/ Illundu orduko asiko dira
 kuiotiak erausika
 bat besteari abisatuaz,
 au da orien musika;
 pausu txarrarekin eztira izitzen
 gauba illunagatika, (1)
 gure ardiyak nun dauden eztu
 iñork esan bearrika!
- 11/ Europa'tika etorri giñan
 fama aundiko tokira,
 alleatu orduko bota ginuzten
 desierto edo mendira,
 jai eta aste, uda ta negu
 artaldiaren begira...
 emen irabaziko dolarrak
 ondo gostaiak dira!

(1) Paperean: *ulunagatika*; bañan bertsoaren aurreneko itza *illundu* baita, pentsatu degu ustegabeko utsegiteren bat izango dala, ta *illunagatika* jarri degu.

12/ Esango det, ba, nola dagoen
nere deitura guziya:
Leon Bereau daukat izena,
Lesaka'n jaio ta aziya;
Jaun Zerukoak emaiten digu
osasun eta graziya,
orañ artio ola dijua
gure emengo biziya.

13/ Tentaziyua izandu det, ba,
kantu-lanian astiak,
barkatu bear ditzute
esan ditudan kaltiak;
nik berdin estimatzen ditut
bai zaharrak eta gaztiak,
umore eta suerte onez
agur, euskaldun maitiak!

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: SAGARDAOREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. M. Soroa: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. Pepe Artola: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. P.M. Urruzuno: EUSKALERRITIK ZERURA. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: RAMUNTXXO (*Aitua*).
7. R. Azkarate: GALTZAUNDI (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: PATXIKO TXERREN.
9. B. Iraola: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. P. Larzabal: BORDAXURI (*Aitua*).
12. Bilintx: BERTSO TA LAN GUZIAK. (*Aitua*).
13. M. Izeta: DIRUA GALGARRI. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. A. M.^a Zabala: GABON GAU BAT.
17. A. M.^a Labayen: MALENTXXO, ALARGUNI!
- 18-19. A. Zavala: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. F. Goñi: LURDESKO GERTAERAK (*Aitua*).
21. P. Larzabal: HERRIKO BOZAK.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. F. Imaz: BERTSO GUZIAK.
25. A.P. Iturriaga: JOLASAK.
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. B. A. Moguel: IPUI ONAK.
29. T. Alzaga: BURRUNTZIYA.
30. G. Anduaga: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. M Soroa: BARATZAN.
32. M. Elícegui, A. Zavala: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. M. Elícegui, A. Zavala: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.

34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
 37. *A. Cardaberaz*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
 38. *S. Salaverria*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
 39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
 42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
 43. BERTSOLARI-TXAPELKETA (1-I-1965).
 44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
 45-46. *J. M. Satrustegui*: BORDEL BERTSULARIA.
 47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
 48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
 49-50. *A. Zavala*: PELLO ERROTAREN ITZALA.
 51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BIDUMA.
 54. *A. Zavala*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
 55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
 56. *A. Zavala*: UDARREGI BERTSOLARIA.
 57-58. *C. Beobide*: ASIS'KO LOREA.
 59. *A. Zabalas* AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
 60. *A. Zavala*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
 61. *A. Zavala*: GAZTELU BERTSOLARIA.
 62. *A. Zavala*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.
 63-64. *A. Zavala*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSOLARIAK.
 65. *J.M. Satrustegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.
 66. *A. Zavala*: IRU BERTSOLARI.
 67. BERTSOLARI TXAPELKETA (11-VI-1967).
 68-69-70. *A. Zavala*: ALZO'KO IMAZ BERTSOLARIA.
 71-72. *A Iturriaga*: IPUIAK.
 73. *A. Zavala*: IRU ANAI BERTSOLARI.
 74-75. *A. Zavala*: ERRENTERIA'KO BERTSOLARI ZAARRAK.
 76. *A. Zavala*: ALZA'KO BERTSOLARI ZAARRAK.
 77-78. *A. Zavala*: PAULO YANZI TA BERE LAGUNEN BERTSOAK.

IMPRESO EN ESPAÑA